

2017-02-10 EGUBAKOITZA / 716. ZENBAKIA / 17. URTEA  
DEBAGOIENEN DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

## Etorkinekiko elkarbizitza egokiari bultzada

Atzerritarrengana gerturatzeko harrera protokoloa landu eta aurkeztu du Arrasateko Udalak, elkar ezagutzetik elkarri aitortzarainoko pausoa eman beharra ikusita / 10



**Mendi Mendia Racing jaia Elgetan, pilotuei gastuetan laguntzeko eta kirola ezagutarazteko** / 33

**Arrasateko bi atleta Espainiako Etorkizuneko Kirolarien Txapelketara** / 14

### SINADURAK

 URTZI AMIANO / 8	 SABIN ARANBURU / 23
 JOSU ZUGASTI / 13	 IOSU ELORTZA / 28
 OIER ARANZABAL / 17	 ANDER ETXEBERRIA / 48

**Bizikleta zaletasuna bultzatzeko festa egingo dute Antzuolan bihar, zapatua, lehenengo aldiz** / 31

**Ekainean inauguratuko dute Caritasek Arrasaten egokituko duen tailer okupazionala** / 2

**Pasaia-Trintxerperko 21 urteko gazte batek eskuratu du lehen saria Amodiozko Gutun Lehiaketan** / 40

**puntuak**

+ Union Cerrajera: Arrasateren aldaketaren ispilu

Angel Chamorreri elkarrizketa; iktusean aditua da



Jon Odriozola oñatiarra, Euskadi Basque Country Murias taldeko zuzendaria, bizikleta eskuetan.

## "Euskal selekzioa gara"

Jon Odriozola: "Euskal Herriko lurralde guztiak batzen dituen benetako proiektua gara" / 38

# Tailer okupazionala egokitze obrak hastear

Tramite administratiboek eraginda, atzeratu egin dira Caritasek Arrasateko Kataide industrialdean sortuko duen tailer okupazionala egokitze obrak. Datorren astean egingo dituzte obretarako prestatze lanak eta maiatzaren 31 rako bukatu gura dituzte

## Ubane Madera DEBAGOIENA

Maiatzean obrak bukatu eta ekainean tailer okupazionala inauguratu. Asmo horrekin, datorren astean abiaraziko dituzte Caritasek Kataide industrialdean erosi duen 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioia egokitze prestatze lanak. "Aurten dira 50 urte Gipuzkoan Caritas sortu zela eta kanpaina ari dira, Kursaalaren ere egon zen ekitaldi erraldoi bat. Baina kanpaina amaitu nahi dute tailerraren inaugurazioarekin. Eta hemen sortuko den ekintza sozialaren eredia beste bailaretan ere ezarri nahi dute", esplikatu du Horazio Argaratek, Arrasateko parrokoak.



Kataideko 20. pabilioia egokituko dute, Astorek erabili izan duena. UBANE MADEIRA

## 600.000 euroko inbertsioa

Caritasen tailer okupazionala bi solairutan banatuko dute –bigarren solairua espazioaren erdira iristen da–. Goian laguntza sozialak egokituko dituzte: jangela, sukaldia... Sarrera ondoko bulegoetan, berriz, eskolak emateko tokiak; beheko solairuaren atzeko aldean komunak eta aldagelak, eta gainontzeko guztia tailerrarako esparrua izango da, panel mugikorrek banatuta, esplikatu du Fernando Laspiurerek, proiektuan lanean diharduen boluntarioak. 80 bat lagun artatu gura dituzte Kataiden.

Egokitzapen obra Alaya Taldeak egingo du –Bergara-Arrasate–, 300.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Pabilioia erosteko, berriz, beste horrenbesteko inbertsioa egin du Caritasek. Guztira bada, 600.000 euroko inbertsioa egin behar dute proiektua aurrera ateratzeko. Eta langile bat ere kontratatu dute, lanean badabilena: Agurne Juldain arrasatearra.

## Elay, JMA eta Kooperera

Izan ere, tailerrak martxan dituzte dagoeneko: "Bergaran –lehenagotik– eta Mesedeetako

ikastetxean orain. Gertatu dena obra atzeratzen doala, baina hemengo lantegiak akordioak eginda daude eta lana ematen hasita daude, Antzuolako Elay, Arrasateko JMA eta Kooperera", esan du Arrasateko parrokoak.

Lan industrialaz gainera, bigarren eskuko jostailuen tratamendua –Bizkaitik ekarritakoak– eta Arrasateko mojei edo Caritasi ematen dioten jantzien sailkapenaz ere arduratzen dira Caritasek artatzen dituen atzeritarrak.

## "Entrenamendu" modura

Atzeritar gehienak modu behartsuan datoz. Egoera irregularrean egonda, horien arteko multzo handi batek ez du ez zereginik, ezta nondik ezer irabazi ere: ez dute lanerako baimenik, formaziorik... eta urteak ematen dituzte egoera horretan, Arrasateko parroko Horazio Argaratek azpimarratu duen moduan. Horri aurre egiteko sortu gura du Debagoieneko Caritasek tailer okupazionala. Hala, tailerretako lana "entrenamendu" modura erabiliko dute: "Hemengo diziplinak, obligazioak... bereganatu egin behar dituzte. Eta horretarako irakatsi egin behar diegu. Zela lan egiten den hemen, ikus dezatela gai direla, baita ere, beste edozein langilek moduan lan egiteko (...) Nahi dugu egingo duten lana benetan industrial arloan egiten den mailakoa izatea: epeak bete, kalitatez lan egin... oso-oso entrenamendu ona da, gero benetako tailerretan aurkituko dutenarekin konparatzeko. Ordu batzuk beteko dituzte horretan, baina hori formazioarekin osatuko da", dio Argaratek. Azken horretan, hizkuntzak, informatika, elektrizitatearen gutxieneko ezagutzak eta eguneroko bizimoduarekin lotutako zereginak erakutsiko dizkiete. "Eta gazte talde batekin gabiltza antolatu nahian aisialdiko ekintzak edo gure herrietan berez dauden aisialdiko ekintzetan parte hartzea bultzatzeko. Integrazioa lantzeko. Orain arte urtean birritan egin ditugu halakoak eta hilean behin, gutxienez, halako zerbait egin edo bultzatu nahiko genuke", gaineratu du Argaratek.

## Asian, Ekialdean eta Afrikan lantegi berriak zabalduko dituzte

Fagor CNAREN fakturazioa ia hirukoiztu egingo dela aurreikusi dute, eta lantaldea 200 langilerekin handitu

## U.M. DEBAGOIENA

Kataluniako CNA Group konpainiako presidente Jorge Parladek iragarri du taldeak hiru lantegi berri irekiko dituela atzerrian datozen hilabeteetan. Ekialde Hurbilean, Magreben eta Txinan zabalduko ditu, zehazki, planta berri horiek. Europa Press agentziak jakinarazi duen moduan, gainera, horietako lantegi batean, gutxienez, urtea bukatu aurretik hasiko dira lanean.

Enpresa horiek mistoak eta bertako bazkideekin osatutakoak izango dira; helburua da kostuak merkatu, eta Txinako eta Turkiako etxetresna elektrikoaren fabrikatzaile handienekin lehiatzea.

## Fagor marka lider

Era berean, taldearen beraren handitze honekin lortu gura dute krisiaren aurretik Fagor markak –orain Edesa Indus-

trial– etxetresnen alorrean Espainiako merkatuan zeukan lidergoa –Bosch markaren atzetik– berreskuratzea, edo lider nagusi bilakatzea, taldeak adierazi duenez.

## Euskadiko produkzioa Arrasaten

CNAGroup-ek atzerrian duen produkzioa handitzeko asmoaz gainera, Parladek iragarri du Euskadin duen produkzio guztia Arrasateko instalazioetan kontzentratzeko asmoa dutela.

2014ko urrian hartu zuen CNAK (Cata) Fagor Etxetresnen negozioa. 2015ean Edesa Industrial izena hartu zuen. Duela bi urte 450 langile zituen Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Basauriko lantegietan banatuta. Horietatik, 53 lagun kaleratu egin zituen iazko abendura bitartean. Gaur egun, 477 langile ditu eta bost urtean 700 izatea aurreikusi du.

## Altsasuko herriari elkartasuna adierazi guran, ekimenak

Oñatiar talde batek ekitaldiak antolatu ditu datozen bi zapatuetarako, "Altsasuko herriari elkartasuna adierazteko" asmoarekin. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, 09:00etan elkartasun martxa egingo dute Oñatiko Orkatzategi, Aloña eta Arranoaitz tontorretara, Foruen plazatik abiatuta. Eta bihar zortzi, 11:30ean, Altsasukoen testigan-

tzak jasoko dituzte, kultura etxean; eta 19:30ean, berriz, kontzertua izango da, Arrasateko Dirty Brothers eta Beasaingo The Sinners taldeekin; kasu horretan, gaztetxean.

"Hiru hilabete igaro dira Altsasuk pairatu behar izan duen muntai poliziala martxan jarri zenez. Orduetik, ondorio latzak jasan behar izan dituzte bertako herriarrek: hiru gazte atxilotuta, beste batzuk inputatuta eta herriaren irudia erabat kaltetuta", esplikatu dute antolatzaileek.

## Paper eta kartoi salmenta lizitazioa, Makomunitateak

Debagoieneko Mankomunitatea osatzen duten zortzi udalerrietan –Aramaio kanpoan geratzen da–, edukiontzia urdinetan, atez ate, dendetan zein industriarekin lotutako azpiegituretan eta garbiguneetan jasotako papera eta kartoia saltzeko zerbitzua kontratatu gura du Mankomunitateak. 1.750.000 euroko aurrekontua du horretarako –BEZ barik–

eta adjudikazioa prozedura irekiz eta presazko tramitazioaz egingo dutela jakinarazi du. Hain zuzen, preziorik onena egiten duen eskaintza da balorazioerako erabiliko duten irizpidea –hori bai, behin betiko bermea eskaini beharko du lizitazioa eskuratzen duenak–.

Urtebeterako kontratua eskaintzen du Mankomunitateak, baina urtero luzatzeko aukera ere ematen du; asko jota, beste zazpi urterako luzapena izango da, edozelan ere.



Arrasateko erdigunetik ikusten den etxe multzoa. JOSU BILBAO

# Zoru klausulen baliogabetzea hizpide

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak hitzaldi informatiboa antolatu du gaurko, zoru klausulen eta hipoteken gastuen gainean. Besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hartutako azken erabakiaren ondorioak azalduko dituzte bertan

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Kaleratzeak Stop plataformarekin kolaboratzen ibiltzen diren hainbat abokatuk hitzaldi informatiboa egingo dute, gaur, Kulturaten, 18:30ean. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak abenduaren 21ean zoru klausulen eta hipoteka gastuen gainean hartutako erabakiak kontsumitzaileei zer ondorio ekarriko

dizkien azalduko dituzte, besteak beste. Izan ere, EBko Justizia Auzitegiak zoru klausula baliogabea den erabakietan kontsumitzaileei diru guztia bueltatu beharko zaiela esan dio Espainiako Auzitegi Gorenari sententzia baten bidez.

Hitzaldia eskainiko duen abokatu bat Jose Mari Erauskin izango da: "Europatik datorrenak

zoru klausulekin zerikusia du. Batez ere, Espainiako Auzitegi Gorenak interpretazio oker bat egin zuelako, behin zoru klausulak baliogabeak zirela erabaki zuenean efektuak mugatu zituelako. Hau da, epaileak klausula bat gehiegizkoa den edo ez interpretatu dezake, bere irizpidearen arabera delako, eta horren gainean ezin daiteke ezer

esan. Epaile batentzat baliogabea izan daiteke edo ez. Hala ere, baliogabea dela esaten duen unetik aurrera datozen ondorioak ez daude bere nahiaren mende, baizik eta legeak ezartzen ditu. Beraz, ezin daiteke esan aldi berean klausula bat gehiegizkoa dela baina bakarrik zati bat itzuliko dela. Horrek ez du zentzurik. Gehiegizkoa da edo ez. Ez bada ez zaio ezer itzuliko kontsumitzaileari, eta baldin bada, guztia bueltatuko zaio".

## Informazioa, gakoa

Erauskinen ustez, hipoteka bat dutenak justiziak hartu dituen azken erabakien inguruan informatuta egotea ezinbestekoa da: "Garrantzitsua da informatuta egotea. Hitzaldian, adibidez, egungo egoera berria azalduko dugu eta ondoren Espainiako gobernuak egin duena ere bai. Izan ere, Espainiako erresumak bankuak lagundu ditu berriro, ez hanka ez buru ez duen dekretu baten bidez. Gogoratu behar dugu, hasieran, Auzitegi Gorenak txarto egin zuela diruaren bueltatzea ez zuenean onartu. Bertan fiskala ere bazegoen eta ez zuen diru kopuru guztiaren itzultzea defendatu. Kontua Europara heldu zen, eta sententzia 2016ko abenduan ezagutzera eman zuten. Baina jendeak jakin behar duena prozedura horretan Espainiako erresumak bi estatu-abokatu bidali zituela da. Eta abokatu horiek dirua ez bueltatzea defendatu zutela".

## EPAILE BAKOITZAK, BERE ASKATASUNEAN, ZORU KLAUSULA BAT GEHIEGIZKOA DEN EDO EZ ERABAKI DEZAKE



GOIENA

## "Kaltetuei diru guztia itzuli beharko zaie"

**JOSE MARI ERAUSKIN**  
ABOKATUA

Kaleratzeak Stop-eko abokatuetako bat da Jose Mari Erauskin.

### Zoru klausulen diru guztia itzuliko zaie kaltetuei?

Epaileak klausula bat gehiegizkoa dela erabakitzen badu, ondorioak legeak markatzen ditu, eta gehiegizko klausula hori inoiz ez dela existitu ulertu behar dugu, ez dagoela jarrita, eta, beraz, sortu dituen ondorio guztiak bueltatu behar dira. Beraz, diru guztia itzuli beharko zaie, ez bakarrik kopuru horren zati bat.

### Klausulak baliogabeak diren edo ez epaileek erabakiko dute?

Hori da. EBko Justizia Epaitegiak ez du esan zoru klausulak berez baliogabeak direnik. Albiste hori gaizki saldu zela esango nuke.

## Lasterbidean lasterketan izena emateko epea, zabalik

Oñatin egingo dute, ekainaren 4an, "euskal errepresaliatuen eskubideen aldeko nazio lasterketa"

**J.B. OÑATI**

Aurten bosgarren urtez egingo duten Lasterbidean lasterketa Oñatin izango da ekainaren 4an. Korrika ez ezik, patin gaineko ibilbidea ere prestatu dute Oñatiko antolatzaileek.

Antolatzaileen esanetan, "helburua, ahalik eta jende gehien batzea" izango da. Izen-ematea otsailaren 2an ireki zuten eta ekainaren 2ra arte egongo da zabalik, 12 euroren truke. Gainera, lasterketetan parte har-

tzeko izena emateaz gainera, herri bazkarirako ere eman daiteke izena, 15 euroren truke -bazkari begetarianoa ere aukera daiteke-.

"Euskal errepresaliatu politikoaren eta beraien gertukoaren eskubideen aldeko elkartasun adierazpen zintzoa egiteko" sortu zen orain bost urte Lasterbidean lasterketa. Antolatzaileek azaldu duten moduan, "ehunka dira beren etxetik urrun bizi diren euskal herritarrak, espetxean, ihesean, edota deserrian".

Hain zuzen ere, "beraien eta euren senideen eskubideak urrututa" jarraitzen dutela diote antolatzaileek: "Oraindik ere egoera larria bizi dugu eta gure elkartasun urrats honen bidez ere egoera gogor hau gainditzen lagundu nahi dugu".

### Hiru ibilbide

Korrikalariet bi ibilbide izango dituzte aukeran: 8,3 kilometroko luzea edo 2,9 kilometroko laburra. Aurrenak ibilbide "benetan erakargarria" eskainiko du, an-

tolatzaileen esanetan, herriko kaleetan aritzeaz gain, Oñatiko hainbat auzo zeharkatuko baititu: San Martin, Murgia, Olabarta... Ibilbide motza herri erdigunean egingo da, eta Errekalderako igoera izango da zirkuaren puntu gorena.

Gainera, patinen lasterketako ibilbideak 9,2 kilometro izango ditu eta "patinatzaileak ez dira herri barruko mugetatik irtengo". Hiru ibilbideetan, herriko plaza izango da abiapuntu eta amaiera gunea.

# "Era apalagoan landu behar dira barne arazoak"

**ISABEL SALUD** EZKER ANITZA-IU KOORDINATZAILEA NAGUSIA

Urtarrilaren 28an egin zuen IX. batzarra Ezker Anitza-IUk, Barakaldon, eta %95eko babesarekin berretsi zuten bergararra koordinatzaile nagusi kargurako

**Xabi Gorostidi** BERGARA

Giro lasaia eta barne liskarrik gabekoa izan zen nagusi Ezker Anitza-IU-ren bederatzigarren batzarrean.

Isabel Salud koordinatzaile karguan berretsi zuten, %95 kontsentsuarekin, eta ardua hori partekatuko du Espainiako Kongresuan duen diputatu karguarekin. Madrildo Parlamentuan eserlekua duen debagoiendar bakarra da hura.

**Kontsentsua eta giro lasaia izan ziren nagusi Barakaldon egin zuten bederatzigarren batzarrean. Zeintzuk izan ziren hartutako erabaki garrantzitsuenak?**

Proposamen guztiak %91 eta %94 arteko babes mailarekin onartu ziren; beraz, kontsentsu maila oso handia izan zen. Hartutako erabakien artean, koordinatzaile nagusi berretsi ninduten karguan; aho batez, gainera. 2012tik hona izan dugun balantzea oso positiboa izan da eta horrek ere asko laguntzen du. Madrazoren eta konpainiaren garaiak gaingitu ditugu, eta gaur egun instituzio guztietan daukagu ordezkaritza: udaletan, batzar orokorretan, Eusko Jaurlaritzan, baita Espainiako Kongresuan ere. Hori, alderdi instituzionalean, baina kalean presentzia edukitzea da gure lehentasuna. Alderdi horretan, borroka eta gatazka sozialak jarraitzen ditugu erakunde eta sindikatuekin elkarlanean. Gure izaera ezkertiar purua duela bost urte baino defintuago dagoela esango nuke.

**Kontsentsu giro horrekin errazagoa da lan egitea, ezta?**

Guretzako, batasun hori funtsezko elementua da. Guk *bloke politiko-sozial* izena jartzen diogu. Irabazi, Alternativa Republicana eta Equorekin egin genuen bere garaian. Podemosen orduan ez zuen gurekin bat egin nahi izan, baina azken hauteskundeetan indarrak batu ditugu.



Isabel Salud, Bergarako Udaletxe parean, martitzenean. XABI GOROSTIDI

## "GURE ALDERDIAREN IZAERA EZKERTIAR PURUA DUELA BOST URTE BAINO DEFINITUAGO DAGO"

Hauteskundeetara begira indar metaketak egitea erreza da, baina benetako erronka batasun hori eguneroko bizitzako gatazketan islatzea da. Zentzu horretan, asko daukagu oraindik egiteko.

**Batasuna helburu estrategikotzat jarrita, begi onez ikusi al duzue batzarrean Podemosen batera indarrak batzeko estrategia?**

Hala da, balorazioa erabat positiboa izan da. Indarrak batzean elkarrekin lan egiten ikasi dugu, eta hori gero udaletara ere hedatu daiteke. Akordioetara heletzea lortu dugu, eta hori garrantzitsua da.

**Vistalegre II batzarrean atarian gaude. Nola ikusten duzu zure taldekide direnen arteko ika-mikak egunero albiste izatea?**

Nik kongresuan egiten dut lan, eta bertan dagoen lan giroan ez da zatiketa giro hori igartzen,

eta Eusko Jaurlaritzarako lan esparruan ere ez dago horren arrastorik. Erakunde bakoitzak bere prozedurak ditu eta errespetatu egin behar dira. Baina, nire uste apalean, gizarteari begira proiektatu den zatiketa irudi horrek ez du laguntzen. Ezkerra zatituta eta ahulduta dagoela ematen du aditzera, eta hori ez da ona. Barne arazoak era apalagoan konpontzearen aldekoa naiz. Gustatuko litzaidake Vistalegreko batzarrean ondoren gauzak lasaiago hartzeko eta tirabirak hobeto bideratzeko gai izatea.

**Batzarrean azpimarratutako gaietako bat kapitalismoaren eta neoliberalismoaren aurkako blokea eraikitze beharra izan zen. PSOE-ren eta Podemosen barne liskarrek ez dute lan hori errazten, ezta?**

Guretzako, ezkerra batzea da bide bakarra, ez dago besterik. Podemos eta sozialistak aipatu dituzu, baina EH Bildurekin ere behar berak ditugu. Gure benetako etsaia sistema kapitalista da. Herriko komertzioek zein enpresa txikiek ondo ezagutzen duten etsaia da. Gizarte bezala kontzientzia hartu behar dugu, horren aurka lan egiteko.



Ekimenaren bultzatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan. EUSPOT

## Euskal spotik onenaren atzetik, aniztasuna ipar hartuta

Euspot lehaketaren seigarren edizioan, berdintasunaren eta integrazioaren aldeko spot onena sarituko dute

**X.G.** DEBAGOIENA

Eguaztenean aurkeztu zuten, Donostian, Euspot lehaketaren seigarren edizioa. Euskara ardatz hartuta, sormena eta publizitatea uztartuko dituzte, beste behin, jada Euskadi mailan erreferente bilakatu den lehaketan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian duen egoitzan egin zuten aurkezpen ekitaldia, ekimenaren sustatzaileen presentzia nabariarekin. Bertan izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari Mikel Irizar, Aretxabaleako alkate Unai Elkoro, Mondragon Unibertsitateko ordezkarikari Goio Arana, Arizmendi Ikastolako komunikazio arduradun Edurne Balzategi eta Artemaneko zuzendari Arantza Lagunilla.

**'Aniztasunak aberasten gaitu'**

Horixe da aurtengo edizioak izango duen leloa. Aurkeztu beharreko iragarkiek aniztasunaren alde edo edozein diskriminazio motaren aurka hausnartzeko helburua izan behar dute.

Norbera ezberdina eta erreprekiazina den heinean, aniztasuna altxorra dela helarazten ahalgindu behar dute parte hartzaileek.

Hauek izango dira lantzeko proposatu dituzten gaiak: aukera berdintasuna, aniztasuna, diskriminaziorik eza, elkarbizitza, gizarte-kohesioa, giza eskubideak eta elkarkidetasuna.

Gai nagusia kontuan hartuta, etorkin zein gaixoen bizitza errazteko eta haien integrazioa sustatzeko lan egiten duten erakunde ordezkariek ere izan ziren aurkezpen ekitaldian. Besteak beste, Afagi, Banaiz, Bagara, EHGAM, Jatorkin, Emaus, Crhysallis eta Gureak taldeetako ordezkariek izan ziren ekimenari babesa adierazten.

Musikak ere bere lekutxo izan zuen, Mikel Laurobaren eskutik. Abestiaz gain, sahararentzat eta alzheimerrekin pairatzen duten gaixontzat eta familientzat hitzak izan zituen ekitaldian.

**Berrikuntza ugari aurten**

Urtetik urtera berrikuntzek lekua izaten dute Euspoten, eta aurtengo edizioa nobedadez jositako dator.

Batetik, webgune berria presatu dute seigarren ekitaldirako ([www.euspot.eus](http://www.euspot.eus)). Bestetik, Debagoieneko Arizmendi Ikastolak antolatzen duen BHklip saria Euspot barruan txertatuko da. Fitxaketa berri honekin orain arteko gazteen saria BHklip saria izatera pasako da, eta nerabeen artean berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko balioak lantzeko aukera eskainiko du.

**Azken edizioa, arrakastatsua**

Azken edizioan Euskal Herri osoko 35 lan aurkeztu ziren guztira, eta lau eguneko epean 2.000 bototik gora jaso ziren lan gutuokoenak aukeratzeko.

# Elorregin komunak jartzea eskatu dute

Hainbat herritarrek adierazitako nahiari eutsiz, autobus geltokiaren alboan komun publikoak jartzeko eskaera bat bideratu dute Gipuzkoako Foru Aldundira, autobus bidaiariendako zein bidegorriko erabiltzaileendako onuragarria izango delakoan

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Elorregiko biribilgunean dagoen autobus geltokian komun publikoak jartzearen alde dade erabiltzaileetako asko, eta dagoeneko hasi dira eskaera hori egiteko tramiteak.

Elorregin komun publikoak jartzeko proposamena herritar batek egin zion, lehenik, Oñatiko Udalarari. Izan ere, oñatiarrek izan ohi dira geltoki hori gehien erabiltzen dutenak. Hain zuzen ere, geltoki horretan, Bergara aldera zein Arrasateko norabidean doazen edo norabide horietatik datozen hainbat autobus lineek dute guralakua.

Hala, autobus aldaketa egiteko zain dauden pertsonek erabili ahal izango lituzkete komunok, baita ondotik pasatzen den bidegorriko erabiltzaile ugarietako ere.

**Eskaera, auzoaren izenean**

Jesus Osa Elorregiko auzo alkatea da, eta hark hiru herritara



Elorregiko autobus geltokia. AMAIA TXINTXURRETA

bidali zuen komun publikoak jartzeko eskari formala: Oñatira, Bergarara eta Arrasatera, auzoa hiruren erdian dagoelako.

Hain zuzen ere, Udaletan aurkeztutako eskari hori Elorregiko auzo alkatearen izenean eta auzo horretako elkarteko presi-

dentearen izenean sinatu dute. Andoni Larrañaga da auzo elkarte horretako egungo presidentea.

Besteak beste, Oñatiko Udalak eskari hori Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu duela jakinarazi du.

## Beharrezko ikusten duzu komuna?



**MARTINA ROQUE**

"Oso ondo iruditzen zait; Arrasatek Zubillagarako bidea egiten dut ia egunero, eta faltan igarri dut behin baino gehiagotan".



**JOSE MARI LARRAÑAGA**

"Nik uste dut beharrezko zerbait dela. Askotan ikusten dut jendea bere beharrak bazterretan egiten. Konponbide bat izan daiteke".



**ROSA ARNAIZ**

"Asko ibiltzen naiz pasean bertan, eta oso ondo deritzot. Egin dezaketen gauzarik onena da, hemen jende asko ibiltzen delako egunero".



**LUIS MIGEL LAZPIUR**

"Autobus geltokia dagoenez, beharrezkoa da. Autobusa eta bidegorria, biak erabiltzen ditut. Tunel inguruan zikinkeria ikusten da batzuetan".

## LAB sindikatuak batzarra egin du Bergaran, kongresura begira

Maiatzeko hitzorduaren harira, biltzar aurreko prozedura zein izango den azaldu dute Irizar jauregian

**J.B./M.T.** DEBAGOIENA

Sindikatuak maiatzean ospatuko duen IX. Kongresura begira, biltzar aurreko prozedura zein izango den azaldu zuen LABek Bergaran. Besteak beste, "eskualdeko deialdiak, aurkezpen bilkurak, eztabaida bilkurak, emendakinak aurkezteko prozedura eta biltzarkideak aurkezteko prozedura".

Gainera, Garbiñe Aranburuk ponentzia politikoko sindikalaren eta antolakuntza ponentziaren aurkezpena egin zuen. "Erabaki

nagusiak azaldu eta egondako zalantzak argitzeko tarte bat emanez amaitu zen bilkura", sindikatuak azaldu duenez.

"LAB sindikatuak esku artean duen proiektuarekin, eskaintza berrieta eramango du IX. Kongresura. Eredu sindikala birprentatzeko erronka baten aurrean, orain arteko ibilbidea oinarri hartuta, aldaketa gauzatzeko erabakiak hartzea izango da fase honetan izango duen erronka", azaldu du Debagoieneko LABek.

## Debagoieneko hainbat ordezkari Durangoko Berdeago azokan

Ingurumen iraunkortasun azokan standa jarri dute bailarako hiru enpresak joan den aste bukaeran

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

Joan den asteburuan eta oraingoan, Durangoko Landako gunean Berdeago azoka egiten dihardute. Euskal ingurumen iraunkortasun azoka da honako hau, eta, hitzaldiak edota tailerriak antolatzeaz gain, arlo horietan lanean diharduten enpresen standak jartzen dituzte. Bada, Debagoieneko ordezkariak ere badaude horien artean.

Ekitermik, Ion Leihoak eta Alet Taldea dira ordezkariok. Lehenengoa Arrasateko koope-

ratiba bat da, eta efizientzia energetikoaren arloan dihardu. Ion Leihoaken, berriz, aluminiozko arotzeria egiten dute. Alet Taldeari dagokionez, energia fotovoltaikoa, termikoa eta geotermia lantzen du.

Horiek joan den asteburuan izan dira Durangon. Oraingo astean ere izango da bailarako ordezkariak. Izan ere, Josu Oleaga arrasatearra Tazebaez enpresaren ordezkaria egongo da; era berean, azoka antolatzen diharduen taldea da.

## Desfibriladorea jarri dute Bergarako Pol-Pol tabernan

**M.T.** BERGARA

Bergarako Pol-Pol tabernan desfibriladorea jarri dute, Be+Safe Almas Industries enpresakoa, eta tabernako kideek hura erabiltzeko formazioa jaso dute. Helburua da inork bihotzeko arazoren bat izanez gero horri erantzuteko baliabideak izatea: "Lehenengo bost minutuak dira garrantzitsuenak eta ambulanzien azkartasuna ez da beti zehatza izaten", jakinarazi dute Be+Safeko ordezkariak. Desfibriladorea izateko obligatorik ez du tabernak, baina Dunixi Olabarria jabeak, arazo publikoa dela jakinik, bizkor erantzuteko baliabideak izan gura ditu.

# Eskualdeko ordezkariak ekonomia foroko bileran

2018an Bilbon egingo dute Gizarte Ekonomiaren Mundu Mailako IV. Foroa eta dagoeneko prestaketa lanetan dihardute. Arrasateko Udalak, besteak beste, balioan jarri du herriak duen "garrantzia, bereziki kooperatibismoari dagokionez"

**Josu Bilbao** ARRASATE

Gizarte Ekonomiaren Mundu Mailako Fororako Bilboko hautagaitza babestu eta gero, Arrasatek "parte hartze garrantzitsu eta aktiboa" izango du 2018an Bizkaiko hiriburuan egingo diren jardunaldietan, Udalak azaldu duenaren arabera.

Martitzenean Bilboko Euskalduna jauregian egin zuten aurreneko bilera, eta bertan izan ziren, besteak beste, Maria Ubarreren Arrasateko alkatea eta Marga Garmendia Enplegu teknikaria.

Lehen bileran, foroa antolatuko duen organoa eratu dute eta antolakuntza horren baitan



Arrasateko Udaleko ordezkariak, ekonomia foroko lehen batzarrean. ARRASATEKO UDALA

parte hartuko duten instituzio eta eragileak zehaztu dira. Honela, foroa antolatuko duen organoa eratu da eta eragile hauek izango dira: Hego Korea-ko Foroko idazkari nagusia, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Arrasateko Udala, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, ASLE -Euskadiko Lan Sozietateak-, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarteak, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteak, REAS ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea eta Sareen Sarea, Euskadiko hirugarren sektore soziala.

## Ekitaldiak Arrasaten

Arrasatek "parte hartze garrantzitsu eta aktiboa" izango du foroaren baitan eta "hainbat ekitaldi Arrasaten egiteko aukera" aurreikusiko du Udalak: "Arrasatek Gizarte Ekonomiaren aldeko konpromiso instituzional eta politiko sendoa izan du betidanik eta gure eredu bereizgarria ezagutzera emateko aukera ezin hobea da datorren urtean egingo den foroa".

## Copreci, etxetresna elektrikoaren Txinako azokarik handienean

Shanghai New International Expo Centre izeneko aretoan stand bat izango du Aretxabaletako Copreci kooperatibak. Zifra ikusgarriak ditu bere baitan etxetresna elektrikoaren alorrean Txinako azokarik handiena den Appliance and Electronics World Expo (AWE) 2017 izeneko ekimenak. Guztira, 600 partaide inguru produktuak erakusten eta 150.000 bisitari baino gehiago haiek ikusten egongo dira 100.000 metro karratuko espazio ikusgarrian.

Copreciren moduan, esaterako, azoka berean izango dira Haier, Samsung, LG, Sharp, Bosch, Siemens, Panasonic, Hitachi, Whirlpool, Sanyo, Electrolux edota Daewoo moduko marka entzutetsuak.

AWE 2017 azoka martxoaren 9tik 11ra egingo da. IFA eta CES azokekin batera, hura da munduan garrantzitsuena, etxetresnen alorrean. Txinako azokaren kasuan, dagoeneko 20 urte pasa daramatzate hura egiten.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LEIHOAK

#### ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

### LOREZAINZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA


ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Urkulluren jitea****JON OTERO URIBARREN**

ARRASATE

Gure lehendakariak erranda du, oraintsu: sinesten omen du Euskadi Espainiari atxikitzeo aukeraz, borondatez. Norbaitek interpretazio okerrak atera ditzake Ondo Vascan esan duenaren gainean.

Argi gera bedi EAJ abertzaleen eskuina dela, baina abertzalea, azken baten. Moderatua edo ez, guda bizi izan zuen bere garaian.

Barregura ematen didate inkesta askok. Ze egunkarik ateratzen dituen arabera, diote Euskadin hainbat direla independentziaren aldekoak. Betiere, oso beheranzko emaitzekin egia dena baino.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %60k bozkatu dute abertzale, eta beste hainbatek Elkarrekin Podemosi eman diote botoa, erabakitzeo eskubidearen alde.

Abertzaleak, batzuk erradikalki eta beste batzuk moderatuki, baina denak independentziaren aldekoak dira.

Beraz, lur zati honetan independentziaren alde garenak gehiengoa gara: %60, hain zuzen.

Galdetu Urkullu jaunari ea kontsideratzen den espainiarra, eta aurpegira esango dizu ezetz. Norbaiti zalantzak geratzen zaizkio?

Onartzen dugula Euskadiren balizko ezetz bat independentziari? Bai, bere borondatea hori bada.

Baina non dago erreferendum hori?

Gaur egun, %60 gara, hori da egia. Hori da demokrazia, eta ez inkestak.

**Nazional-flamenkismoa****MANEX AGIRRE**

HTTPS://GOO.GL/1TZFL6

Joan zaigu Jon Azpillaga, gizon elegante hori, eta bere

heriotza ezagutu ondorengo egunek berrekarrari dizkigute orain hamarraldi batzuetako oihartzunak. Gaur egun "sortzaile" kategorian gorrotagarri samarra darabilgu ahoz aho, eta izendapen horri oraingook baino justizia handiagoa egin zioten Lopategik eta Azpillagak, Jon biek, diktaturaren mamupean plazaz plaza ibili zirenean. Sortzen, ez soilik hitz neurtua; kultur sistema bat, garai berrietarako bide bat, herri bat (transzendental jartzea merezi du).

Grazia eta dena egiten du jakiteak Azpillagari sei hilabetez bertsoan egitea debekatu ziotela. Demokraziaren seme-alabon ikuspegi kontua izango da; gaur egun ez zaigu halakorik egin daitekeenik buruan sartzen, ez behintzat hain modu agerikoan. Goi-karguek beste bide sibilinoago batzuk dituzte errepresio

kulturalerako edo, azken finean gauza bera dena, errepresio politikorako.

Debekua ez zen beste bide zuhurrago bat erabili zuen frankismoak berak, intentzio osoz, flamenkoarekin. Kasua ezaguna eta paradigmaticoa da.

Tradizionalki Andaluziarekin lotutako folkloreak jabetu eta espainiar identitatearen sinbolo eztabaidaekin bihurtu zuen. Batasun nazionala eta turismoa sustatzeko baliabide eraginkorra izan zen urte luzez, "nazional-flamenkismo" etiketa jasotzeraino.

60. hamarkadaren erdialdetik aurrera hasi zen iraultze-mugimendua, Morente, Lola eta Manuel, Jose Menese eta beste hainbaten eskutik.

Errebindikazioa letretan eta formatan, erregimenari oposizioa eta gitarraz lagundutako koplari kutsu *kitsch*-a erazteko gogo.

Orain, diskurtso ofizialak adierazpide artistikoak (eta okurritzen zaion beste edozer gauza, komeni zaiola uste badu) despolitizatu behar direla behin eta berriz errepikatzen duen egunotan, ez dago gaizki atzera begiratu eta apropiazio kulturalak gaur egun baino disimulu gutxiagorekin egiten ziren garaiak berraztertzea.

**Arabako kirola, modan!****MIKEL ARANTZABAL**

EIBAR

Alavesek egin du! Errege Kopako finalean da.

Baskonia, ligan ondo eta Euroligan ere tamainan.

Argi dago Arabako kirola modan eta osasuntsu dagoela, eta horretan *erru* handia dauka Josean Kerejetak: ukitzen duen guztia urte bihurtzen du.

Gustura irakurriko nuke hari egindako elkarrizketa bat... *Puntu*-n, adibidez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

URTZI AMIANO

## "¡Árbitro, cabrón!"

Zorionez, edo tamalez, urte asko egin ditut futbolaren munduan; oraindik ere, beste era batean, baina mundu honetan jarraitzen dut. Bai, *futbolaren mundu honetan*, bai, errealitatek at dagoen mundua baita kasu gehienetan.

Atezain, jokalarari, entrenatzaile, marrazain, epaile, zelaiko delegatu, elkarte bateko arduradun, jarraitzaile, laguntzaile... uste dut futbola ia ikuspegi guztietatik bizi izan eta ikusi dudala.

Ez naiz futbolari edo *futbolero* sutsua izan.

Futbolearen jolastea eta jokatzeari asko gustatu izan zait eta ikustea ere atsegin dut, baina bizipen horiek muturrera inoiz eramanez gabe.

Ez dut ezer berririk kontatuko, baina denborarekin entzundako hainbat eta hainbat esaldiren esanahia azaldu nahiko nuke, betiere, nire subjektibotasunetik, pertsona bakoitzak bere ulertzeko modua dauka eta:

"¡Eres un paquete!"; edonork edonori esandakoa,

normalean, nor bere frustrazio edo gabeziak ezkutatzeko edo babesteko.

"¡Esa la meto hasta yo!";

jokalarari ohiek sarri erabilitakoa, baita inoiz jokatu ez dutenek ere. Ziurrenik, ez ziren jokalarari apartak izango...

## FUTBOLEAN JOLASTEAREN ETA JOKATZEA ASKO GUSTATU IZAN ZAIT ETA IKUSTEA ERE ATSEGIN DUT

"Galdu egin dogu, baina nik ondo jolastu dot"; talde-lanaren esanahia ahaztuta dauka. Garrantzitsuena bera da.

"Eske arbitrua gure kontra zauen"; eskusa bila dabil, irabazteko edozer egiteko gai da. Errua, beti, besteena da.

"Para ser chicas, juegan bien, ¿no?"; *parekotasun* edo *berdintasun* hitzen esanahiak ez dakizki.


"¡Árbitro, cabrón!"; esaldi guztien erregina. Orokorrean, biraoa aldatuz joaten da. Barneko amorrazioa deskargatzeko eta norberaren txarrena ateratzeko erabiltzen da.

Nik ere, noizbait, erabili izan ditut esaldiok. Gaur egun, berriz, ez.

Talde kirol aparta eta balio itzelak ditu futbolak, baina inguruak nazkagarri bihurtarazi dezake momentu motz baten. Geu gara futbola aparta edo nazkagarri bihurtu genezakeen faktore printzipala.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## ZEUK ESANA

### Whatsapp taldeetan daudenek aukera izango dute taldeko kideak non dauden jakiteko, geolokalizazioaren bidez

#### GUASA

DEBAGOIENA

Bueno, denbora kontua zen. Seguruenik, Whasapek hurrengo eguneraketa erabiliko du geolokalizazioa sartzeko. Eta ez dut uste zalaparta handirik sortuko denik; izan ere, aukera egongo da, hala nahi izanez gero, aukera hori ezeztatuko; hortaz, nahi duenak erabiliko du eta nahi ez duenak, ez.

Ez dakit, ba... ahoa betetzen zaigu pribatutasuna eta halakoak defendatzen, baina

gero eta argiago dago aspaldi galdu genituela horrelakoak.

Hurrengo pausoa zein izango den ikusteko dago, baina sare sozialen gorpila etengabe ari da mugitzen, eta ez dago gelditzerik.

Gureak egin du, egin zuen, aspaldi.

#### WATCHING OVER ME

ARRASATE

Hori, hori, zain gaitzela. Jakin dezatela non gauden momentu oro. *CSI*-koak pozik egongo dira.

Azkenaldian, Whasapeko mezuak agertu izan dira komunikabideetan; epaiketetan-eta erabiltzen dira. Eta lasai asko botatzen dituzte albistegietan eta.

Zeinen onurarako izango den hau guztia? Segurtasun indarrentzat. Testuaz gain, hemendik aurrera, pertsona bakoitza momentu bakoitzean non egon den jakin ahal izango dute, eta guk zera egingo dugu: irentsi. Guztia irensten dugun moduan. Euren menpe gaude.

### HURRENGO ZENBAKIAN: PANGA JATEA OSASUNARENDAKO ONURAGARRIA DA?

Iritzia emateko posta elektronikoa: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / Webgunea: [goiena.eus](http://goiena.eus).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.

#### Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredaktore burua

Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber  
Aranburuzabala (Kultura),  
Leire Kortabarria (Ekonomia).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza,  
Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## PROTAGONISTA

# "Formazioa eta sare sozialak indartzea dira helburuak"

JOSE MANUEL RUIZ DE CENZANO EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Mireia Bikuña OÑATI

Oñatiarra da eta Euskal Eskubaloi Federazioko presidente kargurako berretsi dute. Bigarren agintaldia beteko du eta garbi ditu hurrengo lau urteetarako helburuak: formazioa eta sare sozialak indartzea.

**Euskal Eskubaloi Federazioko presidente berretsi zaituzte. Zorionak!**

Eskerrik asko! Hori zen gure helburua. Zortzi urtez egotea federazioan. Hortaz, helburua bete dugula esango nuke.

**Lehen agintaldiari dagokionez, ze balorazio egiten duzu?**

Aurreikusitako asmoen %80 bete ditugula esango nuke.

Bukatu barik geratu diren horiek hauteskondeetara aurkeztutako proiektuan sartu ditugu.

**Bereziki pozik zaude formazioari eman diozuen bultzadarekin.**

Kirol elkarten eskaera zen formazioari indarra ematea.

Euskadiko titulazioa atera ahal izateko ikastaroak egin ditugu, baita nazional mailako



Ruiz de Cenzano, Oñatiko kiroldegian, astelehenean. MIREIA BIKUÑA

titulua ateratzeko ikastaroa ere. Titulazio hori duten entrenatzaile oso gutxi daude eta beharrezkoak dira taldeak aurrera eramateko. 39 ikasle egon ziren, eta 35 euskaldunak ziren.

**Epaileen formazioan ere badiharduzue lanean.**

Bereziki, epaileen kalitatea hobetu gura dugu. Epaileak egon badaude. Lau urteotan zazpi bikote igora dira nazional mailara, eta hori

seinale ona da. Formazioa euren maila hobetzeko bideratzen dugu. Formazioa eta partiduak zuzentzea dira maila hobetzeko bideak.

**Beste lau urte dituzue aurretik, beste hainbat helburu betetzeko. Adibidez?**

Sare sozialak. Hori da gure erronka nagusietako bat. Kirol elkarteek asko erabiltzen dituzte eta gu geu behartzen gaituzte bide horretara. Informazio iturri azkarrak dira. Hortaz, pertsona bat ipini beharko dugu horretara, buru-belarri. Garai berriak datoz eta gu ezin gara atzean geratu arlo horretan.

**Boluntarioekin egiten duzu lan.**

Hala da. Bestela, ezinezkoa litzateke. Diru apur bat kobratzen dute, baina euren lanbideetatik kanpo egiten duten lana da.

**Nolakoa da euskal eskubaloiaren egungo panorama?**

Ona. Asko hobetu da egoera azken 35 urteetan.

**Eta bailarakoa?**

Lan handia egiten da. Indartsuen Oñatiko eskubaloia dago. Akaso, tradizio handia izan duelako beti. Arrasaten lan handia egiten dabilza talde berriak osatzeko, eta Bergaran beste horrenbeste. Txalagarria da egiten duten lana.

## HAU BE BADOGU!

**Alaves, Errege Kopako finalerako sailkatuta**



Gasteizko taldeak Errege Kopako finalerako txartela lortu du, lehen aldiz historian. Partida irratia bidez ematen, besteak beste, Haritz Gallastegi elgetarra izan zen:

@Hgallas: "Festa hau da! Zorionak @Alaves!"

@Alaves\_eus: "Eskerrik asko gure ilusioa partekatu duzuen guztioi! Orain, amesten jarraitu dezagun #GoazenGlorioso"

**Aretxabaletako turismo eskaintza Twitterren ere**



Euskadi mailan, baina, batez ere, Bilbon, autoak eta furgonetak alokatzen dituen Beste Alde enpresak Aretxabaletako turismoari buruzko txio bat jarri du aste honetan:

@BesteAlde: "#Turismoa #Euskadi #Mendia #Aretxabaleta-ko mendien artean goza ezazu Urkuluko urtegia edota Kurtzebarri moduko paisaia naturalekin" (itzulita).

**Garona 'trending topic' izan da Estatuan**

Garonoako zentral nuklearra berriro zabaltzeko baimena eman zuen Seguritasun Nuklearreko Kontseiluak eguaztenean, eta sare sozialetan hainbat herritarrek desadostasuna adierazi dute #GaronaEz eta #GaronaiItxiBetiko traolak erabilita. Gainera, atzo, Frantziako Flamanville hirian dagoen zentral nuklearrean izandako leherketa ere jaso dute sarean.

## ITURRI ONETIK

## Leire Martin gaztetxoari laguntza


Kirola eta elkartasuna uztartzen dituen Bergarako Igam taldeak ekimen berezia prestatzen dihardu ekainaren 17rako. Mendi zeharkaldia egingo dute Donostiatik Bergarara, helburu baten alde: muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin gaztetxo bergararrari eta gaixotasun hori dutenak batzen dituen elkarteari -Fundame- diruz laguntzea. Kamiseta bereziak aterako dituzte, zozketak antolatu eta egunera begira: umeentzako jolasak, afaria, pilota partiduak, musika jaialdia...

## GORA ETA BEHERA



## Muralean marraztutako arratoia

GOIENA aldizkariaren 714. zenbakian, argazkian agertzen den Arrasateko murala txalotu zuen irakurle batek, dekorazio "berritzaile" iritzita. Orain, berriz, mural horren harira, Olarteko ikasgeletan diharduten hainbat neska-mutikoren gurasoek kexua helarazi dute. Esprikatu dute muralean marraztuta dagoen arratoi erraldoiak beldurra eragiten diela umeei.





Encinas (EH Bildu), Merino (Irabazi), Urizar (Baleike), Artola (EH Bildu), Azpiazu (EAJ) eta Tamara Perez (Aniztasun teknikaria). J.B.

# Etorkina bertako sentiarazi guran

Udalak asteon aurkeztu du atzerritarrak herrian integratzeko harrera protokoloa; aurreiritziez harago aniztasuna aberasgarria dela uste dute alderdi guztiek, txostena aho batez onartu zen-eta iazko urrian: "Haiengana hurbiltzeko esfortzu bat egin behar dugu"

## Jokin Bereziartua ARRASATE

Gero eta etorkin gehiago dituen herria da Arrasate eta horrek, aurreiritziez harago, herria aberasten duela uste du Udalak. Horregatik, aspaldi hasi ziren atzerritarrak herrian integratzeko eta formatzeko protokoloarekin lanean. 2011tik 2015era arteko agintaldian jarri zen martxan ekimena eta Udal Gobernu berriak lekukoa hartu du protokolo horren garapenean, oposizioaren oniritziarekin.

Izan ere, udalbatzak 2016ko urriaren 25eko osoko bilkuran onartu zen gaia aho batez eta astelehenean protokoloa aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten udaletxean bertan. Udaleko talde guztien presentziarekin egin zuten agerraldia, alderdi sozialista izan ezik. Protokoloaren egileak dira Deiane Bidaurreta, Oihana Irazu eta Tamara Perez

—gaur egun Aniztasun teknikaria da Udalean—. Hasiera baten, Arrasateko teknikariei eta politikariei harrera egiteko baliabide bat eskaintzeko sortu zen, baina helburu nagusia da elkarbizitza egoki bat bultzatzea.

**Erroldatzea baino askoz gehiago** Elkar ezagutzetik elkarri aitortzarainoko pausoa eman beharra dagoela uste du Udalak. Izan ere, aniztasuna zeharlerroko gaia izanik, Udala bere osotasunean, herriko eragileak eta herritar guztiak inplikatu nahi dituzte harrera prozesuan;

**PROTOKOLOAREN HELBURU NAGUSIA ETORKINEKIN ELKARBIZITZA EGOKIA BULTZATZEA DA**

etorkinari harrera egitea herrian erroldatzea baino askoz gehiago dela uste dute. "Harrera prozesu bat da, non hasieratik bizilagun berriari herritar izatera onartu behar zaion, eta subjektu aktibo bilakatu. Momentu horretatik aurrera biziko duen prozesu pertsonal bat izango litzateke. Bide horretan, Udalez gain, herriko eragile eta herritarrek izugarriko garrantzia dute, elkar ezagutzari eta elkar aitortzari esker bizikidetzara lor dadin", adierazi zuen Ongizate zinegotzi Amaia Azpiazuk.

Azpiazuk gaineratu zuen etorkinendako oso erabaki garrantzitsua izaten dela emigratzearena eta ez direla, hain zuzen ere, turismoa egitera etortzen: "Bizi baldintzak hobetzera etortzen dira, behartuta. Eurekin tratatzean, konturatzen zara

asko atzean duten istorioa oso gogorra izaten dela".

## Herritar guztien erantzukizuna

Horrekin batera, Ongizate zinegotziak azpimarratu zuen herritar guztiona dela erantzukizuna: "Hemen dauden bitartean etorkinek esfortzu bat egin beharko dute integratzeko baina gu, herritar bezala, haiengana hurbiltu behar gara. Esfortzu berezi bat egin beharra dugu". Protokoloari jarraipen bat egiteko konpromisoa ere hartu du Udalak. "Jarraipenerako koordinazio batzorde bat sortu da. Bertan Udaleko Sail guztietako teknikariek hartuko dute parte batzorde horretan eta helburuak izango dira harrera modu egokian egiten dela bermatzea eta aniztasunaren ikuspegia zerbitzuetan eta programetan txertatzen dela ziurtatzea", adierazi zuen Aniztasun teknikari Tamara Perezek.

## BAZetik hasitako prozesua

Harrera prozesua erroldatik hasiko litzateke. BAZen erroldatu ostean, etorkinari udal baliabideen gida banatuko zaio euskaraz eta bigarren hizkuntza baten. Zergatik euskaraz? Sus-

**1.444 ETORKIN DAUDE ERROLDATUTA ETA ADIN TARTE NAGUSIA 30 ETA 40 URTE ARTEKOA DA**

## 2017an, 1.444 etorkin erroldatuta

Jatorria*	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Maroko	126	142	<b>268</b>
Pakistan	70	162	<b>232</b>
Kolonia	63	46	<b>109</b>
Portugal	40	60	<b>100</b>
Aljeria	40	39	<b>79</b>
Honduras	62	14	<b>76</b>
Bolivia	42	22	<b>64</b>
Mauritania	22	24	<b>46</b>
Dominikar Errepublika	24	22	<b>46</b>
Sahara	25	15	<b>40</b>
Txina	17	19	<b>36</b>

\*ETORKINEN ARTEAN BIZTANLE GEHIEN DITUZTEN LEHEN HAMAIKA HERRIALDEAK, ESPAINIATIK KANPO

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

tatzaileek kohesiorako tresna garrantzitsu moduan ulertzen dutelako. Gida hori arabieraz, urdueraz, ingelesez eta gaztelez irakur daiteke. Horrez gain, Topagunearen oinarriko hiztegia ere banatuko zaio eta, azkenik, harrera zerbitzura bideratuko da.

## Ekin elkarte, ezinbesteko pieza

Harrera zerbitzu hori Ekin Emakumeak Elkarteak kudeatzen du, bertan "denbora luzea" ematen dute Udal baliabideak eta zerbitzuak "ganoraz" azaltzen. "Hainbat urtetan aniztasunaren eta integrazioaren gaia lantzen ari den elkarte da, eskarmentu handikoa gaian", dio Perezek. Bertan askotariko formazio ekintzak gauzatzen dituzte, esaterako, Euskal Herriko kulturaren ezaugarriak ezagutzeko saio bat. Gero, Ekinetik beste elkarte batzuetara edo Udaleko sail zehatz batera bideratzen dira.

## Etorkina, gaztea nagusiki

Arrasateko aniztasunaren adierazle da 2017ko urtarrilaren lehen 1.444 etorkin zeudela erroldatuta. Goiko taulan ikus daitekeen bezala, marokoarrak eta pakistandarrak dira nagusi, eta horien artean gizezko gehixeago etortzen da emakumezkoak baino. Hala ere, orokorrean, gizon eta emakume kopuru antzekoa dator. Adinari dagokionez, Arrasatera datorren etorkina gaztea da nagusiki; adin tarte nagusia 30 eta 40 urte artekoa da.



Kale garbiketa zerbitzuaren gaineko bozketa: EAJ (8) eta PSE-EE alde (3); EH Bildu (7), Baleike (2) eta Irabazi (1) aurka. JOKIN BEREZIARTUA

## Kale garbiketa zerbitzu berria eta "hobetua"

Udal Gobernuaren ekimenez, udalbatzak kale garbiketa berria esleitzeko pleguak onartu zituen, urteroko 1.550.000 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne); oposizioak kontra bozkatu zuen, zerbitzua Udalak bere gain hartzeko azterketa eskatzearekin batera

### Jokin Bereziartua ARRASATE

Cespa enpresarekin kale garbiketa zerbitzuaren kontratua apirilean amaitzen denez, kontratu hori berritzeaz gain, "hainbat hobekuntza" egitea erabaki du Udal Gobernuak eta horretarako esleipen prozedura irekitzea onartu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran.

Zerbitzu berriaren kontratua arautuko duten pleguak onartu ziren; hori bai, gobernuaren (EAJ eta PSE-EE) aldeko botoekin egin zuen aurrera proposamenak, oposizioiko talde guztiek (EH

Bildu, Baleike eta Irabazi) kontra bozkatu ostean. Hobekuntza nabarmenenen artean honako hauek daude: pertsonal eta makinaria gehiago kontratatzeko baliabideak jartzea, markesinak eta autobus geltokiak garbitu eta garbi mantentzea –aurreko kontratuan ez zen halakorik egiten–, autoendako garbigunea eta hiri-altzariak garbi mantentzea eta pasabide zein arkupe estaliak garbitzeko maiztasuna areagotzea –kexak izan dira txiza usaina dela eta–. Orokorrean garbiketarako maiztasunak areagotu

egingo dira, fokua bereziki auzoetan jarrita. Izan ere, orain arte astean behin egiten da garbiketa eta aurrerantzean astean hiru alditan egingo da.

### Arratoientzat neurri bereziak

Plegu berrietan egin behar berriak aurreikusten dira baina badago kontratu berrietik kanpo geratuko den orain arteko bete behar bat: arratoien aurkako borroka. "Arratoiekin arazoa daukagu, hainbat kexa jaso ditugu udaletxean horren inguruan. Ez geunden gustura zerbitzu

hori kale garbiketarekin batera egitearekin eta erabaki dugu kanpoan utzi eta arratoien arazoa era espezializatu baten konpontzen saiatzea", dio Maria Ubarretxena alkateak.

### Lau urterako, eta luzagarria

Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA) batzordeko buru Oscar Garcia ere ziur dago onartu berri diren pleguek zerbitzu hobea eskainiko dutela: "Gure obligazioa da herritar guztiei bermatzea kaleak garbi egotea, toki guztietara heltzea. Gainera, uste dugu zerbitzu berria ez dela garestiagoa izango". Zerbitzuaren urteroko aurrekontua da 1.550.000 euro (BEZa barne) eta lau urteko kontratua aurreikusten da, urte bateko beste bi epez luza daitekeena.

### Oposizioa, udalekotzearen alde

Oposizioiko talde guztiek aurka bozkatu zuten, zerbitzua udalekotzearen aldekoak direlako oro har. EH Bilduk, esaterako, bi eskaera egin zituen: "Batetik, azterketa bat egitea eskatzen dugu udal langileekin, betiere kanpoko enpresa bat kontratatu barik. Ez genuen prisarik, egin zitekeen hurrengo hilabeteetan zehar jakiteko zerbitzua udalekotzeak ze kostu eta eragin izango zituen. Oñatiko esperientzia gertu daukagu eta gainera hausnarketa horretan laguntzeko prest zeuden. Bestetik, epearen kontua dago; azterketa hori egin ostean erabaki bat hartu behar badugu norabide baten edo ostean, agian komenigarria zen lehiaketa motzago bat planteatzea", uste du Eneko Barberenak.

Baleikek ere zerbitzu hori Udalak bere gain hartzea eskatu du batzordeetan: "Azterketa bat eskatu genuen baina Oscar Gar-

cia orri erdiko zirriborro batekin etorri zitzaigun, lau zenbakirekin eta gai honek merezi duen azterketa sakon barik", azaldu du Igor Urizarrek. Amaitzeko, oinarrizko zerbitzu publikoak udalekotzea duintasun politikoaren sinonimo da Irabazirentzat eta hiru arrazoi eman zituzten bilkuran hori azaltzeko: "Hasteko, zerbitzua udalekotzea garestiagoa dela behin eta berriz esaten badigute ere, udalak dirua aurrez-tuko lukeela uste dugu. Bigarrenik, zerbitzuaren kalitatea nabarmen hobea izango da eta hirugarrenik, zerbitzu hori eskainiko duten langileen baldintzak ere nabarmen hobetuko dira", deritzo Juan Luis Merinok.

### Parte hartzea eta gardentasuna

Mozioek ere eztabaida eragin zuten osoko bilkuran. EH Bilduk etxegabetzeen kontra –Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformako Salva Gonzalezek hartu zuen hitza– eta Irabazik Saharako herriaren aitortzearen alde –Debagoienean bizi den Saharako komunitateko Saleh Salek-ek defendatu zuen mozioa– zein pobrezia energetikoaren aurka aurkeztutakoak aho batez onartu ziren. Aldiz, Baleikek udal kudeaketa gardenaren eta herritarren parte hartze zuzena sustatzeko mozioak ez ziren onartu. Eztabaida sutsuak izan ziren bi gai horietan.

### Goiena telebistan, gaur (22:00)

Osoko bilkura luzea eta eztabaidaz jositakoa izan zen martitzeneko; kale garbiketa zerbitzuak eta Baleikereren mozioek eragin zuten eztabaida gehien. Bilkura bertatik bertara jarraitzen izan zen Goiena telebista eta gaur, egubakoitza, osorik emitituko da, 22:00etan hasita.

 Halcon bidaiak

Olarte kalea 14, behea • 943 79 28 88  
Halconq99@halcon-viajes.es

IRTEERA BEREZIA ARRASATETIK  
KANARIA HANDIRA BIDAIA  
2017KO MARTXOAREN 8TIK 20RA

12 gau eta 13 egun

Autobusean irteera Arrasatetik

Mantenu osoa: ura eta ardoa otorduetan barne

Beverly park 3\*\*\* Hotela

# Aurrera doaz jolas parkeetako lanak

Zaldibarko eta Munarko haur parkeak eraberritzen dabil Arrasateko Udala. Lanak aste honetan hasi dituzte, eta dagoeneko egitura zaharrak kendu dituzte eta berriak jartzen hasi dira. Udalak "uda baino lehen" bukatuta egotea aurreikusten du

**Josu Bilbao** ARRASATE

Martxa onean doaz Munarko eta Zaldibarko haur parkeak berritzeko lanak. Dagoeneko bi parkeetan zeuden egitura zaharrak kendu dituzte eta berriak jartzen hasi dira. Udalaren arabera, "uda aurretik" bukatuta egon beharko lukete, baina lehenago bukatuko dituztela dirudi.

Bi jolas parkeak eraberritzeko lanak 61.038,45 euroko aurrekontuarekin esleitu dizkio Arrasateko Udalak Sumalim enpresari. Izan ere, Udalaren helburuetako bat "herriko haurrei aisialdi eta jolas gune eta aukera berriak eskaintzea" da, eta, horretarako, "aipatutako parkeak egungo behar eta garaietara egokitu behar dira".

## "Bizi eta dinamikoak"

Sumalim enpresak egin ditu jolas parkeak eraberritzeko proiektuak, eta aurrekoekin alderatuta berritasun ugari izango dituzte. Munar parkearen egitura metalezkoa izango da, eta, besteak beste, txirristak, malgukiak, kulunkak, dorre bat eta lurreko jolasak izango ditu.

Zaldibarko parkearen egitura, bestalde, egurrezkoa izango da, "inguruarekin modu egokian uztartu dadin", Sumalim enpresak proposatu duenaren arabera. "Jolas aukera ugari izango ditu, eta berritasun nagusia tirolina izango da", enpresaren arabera. Izan ere, Udalak iragan urtean abian jarri zuen "ideia lehiaketan tirolina izan zen hurrek egindako eskaera nagusia".

## Beste bi parke estali

Gorostizako eta Makatzena auzoko haur parkeak, gainera, estali egingo ditu Udalak. Makatzena jolas parkeko lanak urteko bigarren seihilekoan hasita aurreikusten dute. "Esku-hartze integral bat beharrezkoa den gunea da, dudarik gabe; beraz, abenduan egin zen bota-



Munarko haur parkean, lanak. JOKIN BEREZIARTUA



Zaldibarko haur parkean langileak lanean. JOSU BILBAO

zioak oinarritzat hartuta proiektua idazten ari gara. Frontoia berriro frontoi bihurtuko da, eta umeendako parke estali bat eta ibilgailuentzako parking bat ere egingo da, gune hau

**BI JOLAS PARKEAK ERABERRITZEKO AURREKONTUA 61.038,45 EUROKOA IZANGO DA**

auzoaren bihotza balitz bezala bilakatuz" azpimarratu du Obrak Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko buru Oscar Garciak.

Gainera, Udalak "Biteri eta Itxaropena plazako parkeetarako diru partida bat sartu du", Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak azaldu duen moduan. Parke horiek "obra garrantzitsuago bat" behar dutela eta horretarako "proiektu bat" egin behar dela gaineratu du alkateak.



Haur eta nerabeak jolasean. TXATXILIPURDI

## 30 gaztek parte hartu dute Arrasateko ludoteka ibiltarian

Bihar, berriro elkartzeko aukera izango dute gazteek, 10:30ean, Musakolako gazte txokoaren atarian

### Goiena komunitatea

Txatxilipurdi

ARRASATE

Ekintza ezberdinez betetako aste bukaera igaro zuten, Txatxilipurdik gidatutako ludoteka ibiltariaren barruan, Arrasateko hainbat gaztek. Hasiera batean zortzi lagunekoa taldearekin zer egin adostu genuen arren, poliki-poliki haur eta nerabeak gerturatzeko hasi ziren, eta bukaerarako 30 parte hartzaile animatu ziren. Talde anitza izan zen, gainera, generoari eta adin tarteri dagokionez. Hala ere, 8 urtetik 12 urtera bitarteko gazteak izan ziren gehiengoak. Helduei dagokienez, bakarrik animatu zen eta datozen asteburuetan gehiago animatzea espero dugu. Izan ere, oso aberasgarria da helduak ere jolasean eta euskaraz egiten entzutea haur eta nerabe hauendako.

Iragan aste bukaeran, hainbat ekintza eraman zituzten aurreko gazteek; besteak beste, mural iragarle bat egitea, mahai-jolasak eta ping-pong eta billarreko saioak. Gainera, kanpo espazioan, patineteekin eta baloi eserian jolasteko aukera ere izan zuten. Denen artean adostutako ekintza arrakastatsua, hain zuzen ere, napolitanak egitea izan zen. Aurretik erosketen zerrenda egin, auzoko komertzioetara erosketa egitera joan eta napolitanak egin ostean, gustura jan zituzten.

Aste bukaera honetara begira, proposamen batzuk luzatu zituzten haur eta nerabeek; besteak beste, pizzak egitea, skate parkera joatea edota jolas erraldoiak egitea. Egunean bertan, animatzen diren guztiekin, ekintza hauek aurrera eraman edo ez, adostuko dute.

## Valdezcarayra eski irteera antolatu du Gazte Bulegoak

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak Valdezcarayra eski irteera antolatu du, 12-17 urte arteko nerabeei zuzenduta. Irteera martxoaren 4an izango da, eta Arrasateetik goizeko sei eta erdietan irtengo dira. Izena eman daiteke Gazte Bulegoan, gazte txokoetan, Txatxilipurdin edo [www. arrasate.eus](http://www. arrasate.eus) webgunean, otsailaren 26a baino lehen.

## ARRASATE IRRATIA

### 'Oskara' eta Kooltur

Kukai dantza taldekoak *Igo autobusera!* saioan izango ditugu datorren astean, otsailaren 18an Amaian (19:30) eskainiko duten *Oskara* ikuskizunaren gainean berba egiteko. Gainera, hurrengo Kooltur Ostegunean Beheko Larraine antzerki taldeak *Atte hil aurretik* obra taularatuko du. Bi ikuskizunetarako sarre-rak nahi? Deitu edo idatzi: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).



Santa Ageda abesbatzak joan den zapatuan udaletxean eskaintako kantaldia; herritar asko hurbildu ziren. IMANOL SORIANO

# Berritzeaz gain, errotu egin da ohitura zaharra

Santa Ageda bezpera bereziki jendetsua izan da aurten zapatuan tokatu delako, eta horren adierazle izan zen eguerdiko emanaldirako udaletxea txiki geratu zela; antolatzaileek espero dute Caritasera bideratutako dirua urteroko antzekoa izatea

**Jokin Bereziartua** ARRASATE Santa Ageda bezperak irudi ederak utzi zituen Arrasaten ere. Zapatua izanik, aste barruan baino abesbatzako kide, laguntzaile eta poltsero gehiago elkartu ziren batzerako eta eguerdialdi iragarpenak txarrak baziren ere, arratsaldera arte apenas egin zuen euririk. Hori bai,

bazkaldu ondoren aterkien babesean egin behar izan zuten eskea. Goizeko zortzietan hasi eta 21:00ak arte hainbat eta hainbat kantaldi egin zituzten, basterri auzoetatik hasi eta Herriko Plazan amaitezaino. Lantegi gehienak eta ikastetxeak itxita zeudenez, goizean ospitalera eta Biteri plazako azokara

joan ziren eta egunean zehar ohikoa baino komertzio eta taberna gehiagotan egin zituzten geldialdiak. Kantaldien artean 14:00 aldera udaletxeko eskailetan eskaintakoa nabarmendu beharra dago; udaletxea txiki geratu zen eta hainbat herritar kanpoan geratu behar izan ziren goi mailako ahotsen erakustal-

diaz gozatzeko. "Jende ezberdin asko elkartzen gara abesbatzan eta entseguak egiteko ez dugu aukera handirik izaten. Askok urteak daramatzagu beti berdina abesten eta beraz, alzheimerrik ez dagoen bitartean behintzat, berez irteten da. Gainera, egunean zehar horrenbeste alditan abesten dugu modu naturalean ondo irteten direla kantaldiak", dio abesbatzako zuzendari Iñaki Maidaganek.

Udaletxeko emanaldiaren ostean pozik zegoen Maidagan: "Oso gustura egon gara. Ederra izan da ikustea udaletxea jendez gainezka". Maria Ubarretxena alkateak ere bertatik bertara jarraitu zuen saioa: "Zapatua izanik ere erabaki genuen udaletxea irekitzea Santa Ageda abesbatzarentzat. Udaletxeak eskaintzen duen akustika lagun, ederra izan da emanaldia; jende asko gerturatu da, gainera".

## Belaunaldi berriei zabalik

Abesti ezagunenak dioen beza-la, ohitura zaharrak berritzeko asmoz irten ziren eta esan daiteke aspaldiko usadioa gaur egun errotuta dagoela herrian. Hori bai, abesbatzako kideen artean ardurak badago belaunaldi berriei begira: "Gazteak hurbiltzea gurako genuke baina ukazina da garai bateko kanturako zaletasunik ez dagoela gaur egun. Giro ona izaten dugu eta abestiak, hiru edo lau ahotsera abestuak izan arren, ez

dira ikasteko zailak. Hainbat alditan errepikatzen ditugu eta datorrenari ez zaio zaila izango neurria hartzea. Argi dagoena da ateak edonori ditugula zabalik; azken helburua behar dutenei laguntzea da", gaineratu du zuzendariak.

## Jasotako dirua, zehazteke

Urtero moduan, aurten bildutako diru guztia Caritasera bideratuko dute. Garai baten janaria eta edaria batzen ziren bereziki, eta koroak ospitale zaharrera bideratzen zuten zati handiena.

Gaur egun, baina, dirua jasotzen da bereziki -jasotako jakiak eta edariak egunean bertan erabiltzen dituzte hamaiketarako- eta herriko enpresengana jotzen dute alde aurretik Caritasen kontu korrante zenbakira (2095 5055 56 1066568303) transferentzia egin dezaten. 2016an 5.639 euro batu zituzten: horietatik 3.000 euro bideratu ziren seme-alabak dituzten eta lan barik dauden familiei laguntzeko; 2.000 euro etxe alokairuetarako eta 639 euro eskolako jangetarako. 2017an jasotako diru kopurua 2018ko urtarril amaieran emango dute aditzera.

## GAZTEK LEKUKOA HARTZEA GURA DU ABESBATZAK: "ATEAK IREKITA DITUGU EDONORENTZAT"



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

## Arrasateko europar kakatiok

Europa gerran dago! Jihada ate joka dugu, ezpata okerrak, turbante beltzak, danbor-hotsa hegoaldeko zerumugatik...

Basamortutik irtendako barbaroek gure askatasun eta demokrazia lohigabea bortxatu nahi dute!

Imajinatzen ditut guri begira Rodrigo errege bisigodoa Guadaleten, harriritu; Konstantinopla setiatuko biztanleak zur eta lur; Vienako defendatzaileak gure aurpegira barrezka; Lepantoko marinela sinetsi ezinik... Izan ere, Europa

kristau tradizionala orduantxe egon zen benetan islamdar inperioen menpe erortzeko zorian; 711, 1453, 1529, 1571... kalifa edo sultanaren armada musulmanak Europaren bihotzean aurrera zihozazenean. Imajinatzen ditut mehatxu horiei aurre egin zieten orain, gaztelu bilakatutako Europa honetako biztanle alienatuoi begira, erdi barrezka, erdi higuinduta.

Hor gabiltza, kaleak poliziaz beterik, gure komunikazioak zainduta,

kameraz inguraturik, hesiak eraikiz, inoizko aurrekontu potoloenak armagintzara bideratuz, eta inoiz baino beldur gehiagorekin.

Arrasate ere ez da libratzen, dagokion eskalan; kaleetan kamerak jarriko omen dituzte laster, eraikin publikoak zaintzeko edo; ertzainak kalean ibiliko dira patruilatzeko; udaltzainei pistolak emango dizkiegu... eta hala ere, inoiz baino beldurtuago biziko gara. Langile beldurtua otzanagoa baita.



ARRASATEKO UDALA

## Gidabaimena euskaraz: 400 euro

2009an martxan jarri zenetik "nabarmen" igo da gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz ateratzen dutenen kopurua; hamabost izatetik 61 izatera pasatu dira eta egun herriko autoeskola guztiek eskaintzen dute zerbitzu hori. Udalak 400 euroko saria zozketatu du eta Igor Galdosi tokatu zaio: Euskara zinegotzi Juan Ramon Mendietak eman dio saria, asteon.



Malen Ruiz de Azua, iaz, Espainiako pista estaliko txapelketara joateko bezperan, Anoetan. I.BELOKI

## Urrezko bi domina irabazita, Espainiakora

Joan den asteburuan, Anoetako Pista Estalian jokatu duten Euskadiko Txapelketa Absolutuan Malen Ruiz de Azuak urrezko bi domina lortu ditu; asteburuan Espainiako Etorkizuneko Kirolarien Txapelketan izango da, Madrilen, Istar Dapenarekin batera

### Xabier Urzelai ARRASATE

Beste behin, Arrasateko atletak protagonista izan dira Euskadiko Txapelketan; izan ere, Malen Ruiz de Azuak urrezko bi domina lortu ditu, Iñigo Uribarrenen zilarrezko domina bat eta Jonathan Perezek brontzezko domina.

Ruiz de Azuak 4,05 metroko markarekin lortu zuen urrezko

dominetako bat, eta bestea horren ezagun ez duen modalitatean eskuratu zuen, salto hirukoitzean (11,81). Hain zuzen, modalitate horretan espezialista den Iñigo Uribarrenen zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuen (15,29). Eta azkenik, Jonathan Perezek brontzea jantzi zuen pertika saltoan, 4,30 metroko saltoa eginda.

### Espainiako Txapelketara

Asteburuan, berriz, Madrilen jokatu den Espainiako Etorkizuneko Kirolarien Pista Estaliko Txapelketan parte hartuko du Malen Ruiz de Azuak eta Istar Dapenak. Biek domina lortzeko aukerak izango dituzte pertika-jauzian.

Beste atleta asko Anoetan izango dira, txapelketa absolutuan.

## Mondragon Unibertsitateak azken sailkatua hartuko du

Tolosaren kontra etxetik kanpora irabazi ostean, MUK irabazi beharreko beste partidu bat izango du bihar

### X.U. ARRASATE

Duela bi aste, MUKo entrena-tzaile Josu Larreategik aurreratu zuen –Easoren kontra partidu lehiatua jokatu eta azken minutuetan galdu ostean– euren benetako kontrarioak beste batzuk direla. Eta joan den astean kontrario zuzen horietako baten kontra garaipen garrantzitsua lortu zuten, etxetik kanpora, gainera.

Tolosa atzealdeko postuetan dagoen taldea da, eta, hala ere, tolosarrak menderatzea ez zen batere erraza izan (66-68), kategoria honetan normala den moduan. Hala, arrasatearrek ligako seigarren garaipena eskuratu zuten. Bada, asteburuan barkatu ezin den beste partidu horietako bat dute, zazpigarrena irabazteko aukera ederra, azken sailkatua dator-eta Iturripera.



Andoni Aranzabal baloiairekin. I.S.

### Venta de Bañosen bisita

Bai edo bai irabazi behar diren partidu horietakoa izango da biharkoa, eta askotan horiek izaten dira zailenak, presioak mesede beharrean kalte egiten duelako. Venta de Bañosen partidu bakarra irabazi du aurtan.

## Lider dagoen Mondratek ISU Leihoak hartuko du

Azken bi partiduak etxetik kanpora jokatu ostean, lider dagoen Mondratek (38 puntu) Ventanas ISU Leihoak (26 puntu) taldearen kontra jokatu du bihar (18:00, Musakola). Duela hamabost egun Lauburu taldearen kontra galdu ostean, arrasatearrek joan den astean Power Rangensen kontra zuzendu zuten bidea.

## Dragoikoak pozik Bergaran egindako txapelketarekin

Joan den astean Bergaran egindako Eskola Arteko A mailako txapelketan Dragoi taldekoek lan txukuna egin zuten. Esaterako, Gazteen B mailan Leire Elizaranek, Maite Iraetak, Maialen Diazek eta Haizea Uzarragak lehen postua lortu zuten. Emaizta onak eskuratu-ta, dagoeneko hasi dira bigarren fasea prestatzen.

## Hernaniren bisita izango du Arrasateko errugbi taldeak bihar

Joan den astean atseden hartu eta gero, eta azkeneko jardunaldian Elorrioren kontra lortutako garaipenak emandako poztasunarekin, hartuko du Arrasate Rugby Taldeak Hernani bihar, zapatua, Mojategin (16:30). Isasiren mutilek ligako lehenengo fase honetan nagusitasun handiz agintzen jarraitzen dute txapelketan.

## Gimnasioko aholkulari berria dago kiroldegian

Arrasateko Udalak Musakolako kiroldegiko zerbitzua hobetzeko asmoz beste pauso bat eman nahi izan du. Hala, Musakolako kiroldegian gimnasioko aholkularia egongo da, Edorta Bolinaga. Erabiltzaileen zalantzak argituko ditu, entrenamendu planak egingo ditu eta makinaren mantentze-lanaz arduratuko da.

## Gripeari aurre egiteko, 60 metroko lasterketa

Euskadiko Txapelketan, 60 metroko proban, Ibai Fernandezek gripeak jota hartu zuen parte, eta Arrasatekoa zazpigarren sailkatu zen (7.12).

### Carrascal, erreuperatuta

Eguneko albiste ona Eneko Carrascalek eman zuen, badirudi lesiotik ondo erreuperatu dela. Hala, asteburuan Gipuzkoako Txapelketan izango dira.



Ibai Fernandez, ezkerretik lehena, 60 metroko lasterketan. A.ATLETIKO

# Lan berriarekin dator Screamers and Sinners

'The revenge of... El sacramantecas' izena dauka argitaratu berri duten bigarren diskoak; asteburuan hiru kontzertu emango dituzte, eta etxean izango da bigarrena, zapatuan, 22:30ean, gaztetxean. Disko berria jendaurrean aurkezteko gogoz daude

A.A. / A. T. ARRASATE

Psychobilly estiloa lantzen du eta punketik zein beste estilo amorratu batzuetatik edaten du Arrasateko eta Aretxabaletako musikariek osatzen duten Screamers and Sinners taldeak. Are gehiago, saxoa eta harmonika ere batzen dituzte beraien eskaintzan. Taldearen estreinaiko *Demon tales* diskoak harrera oso ona izan zuen eta Europako hainbat jaialditan aritu ziren. Orain, *The revenge of... El Sacramantecas* diskoa kaleratu berri dute, Mad Sin eta Ghostmaker taldeetako Andy Laaf alemaniarrak ekoiztua.



Screamers and Sinners taldeko kideak. KOLDO ORUE

## Kalean da disko berria

Lau urteko ibilbidearen ostean, gaur egun laukote formatua daramate, eta hamabi kantuz osatutako lana argitaratu berri dute. Hasieratik, gehienbat, ingelesez abestu izan dituzte kantuak, egiten duten musika estiloa hizkuntza horrekin lotzen dutelako, eta disko berriko sei abesti dituzte ingelesez, euskarazko bi kantu sartu dituzte eta gaztelerazko lau. Kantu horien artean, bertsio bakarria sartu dute, RIP taldearen *Ahógate* kantu ezagunarena.

Etxean grabatu dute diskoa; Arrasaten hasi ziren, Shot! estudioan, eta Aretxabaletan bukatu dute grabazioa, taldeko Karlos Lopez *Karlote*-k daukan NekroSounds estudioan. Hala ere, Berlingo Andy Laaf ekoizlearen gomendioak izan dituzte, eta, taldekideendako haren lana "lagungarria, gogorra, baina oso lagungarria" izan da, Jagoba Domingo taldekidearen hitzetan. Biniloan eta CD formatuan kaleratu dute lana, Belgikako Drunkabilly zigilupean.

## Zapatuan Arrasaten izango dira

Arrasaten bihar, zapatua, aurkeztuko du taldeak lan berria, gaztetxean, 22:30ean, eta egin-

dako lana jendaurrean erakusteko gogoz daude taldekideak. Etxekoekin batera, Moonshine Stalkers taldeak jardungo du, Euskal Herrian egingo duen emanaldi bakarrean. Londresko hirukoteak *Last day on earth*

diskoa aurkeztuko du eta psychobillya uztartuko dute twist eta rocking garaikidearekin.

Gaur, egubakoitza, Mutrikuko gaztetxean izango dira, 22:30ean, eta etzi, Deustuan, Satellite T tabernan joko dute, 13:00etan.

## Crap eta Perlata ere disko berriekin

Crap taldeak izen bereko EP berria kaleratu du, eta Perlata taldea, berriz, *Nondik hasi* lehenengo disko amaitzen ari da.

Crap taldea Arrasateko hiru musikariek eta aretxabaletar batek osatzen dute: Borja Perezek (baxua eta korduak), Ander Azkaratek (gitarra eta ahotsa), Iker Azkarragak (gitarra) eta Aitor Barbadillok (bateria). Lau kantu jasotzen dituen lana salgai dago Arrasateko DAT eta Taupa tabernetan eta internet bitartez doan deskarga daiteke *Bandcamp.com* webgunetik. Hurrengo zuzeneko hilaren 17an emango dute Zornotzako Zitada Gunean, 20:00etan, beste bi talderekin batera. Uda inguruan berriro sartuko dira estudioara zortzi kantuko disko berria grabatzera.

Perlata taldeko kide guztiak dira Arrasatekoak eta hauek osatzen dute: Maialen Oleagak (baxua eta ahotsa), Jaione Martinezek (biolina eta gitarra), Ane Garaik (gitarra eta ahotsa) eta Ander Morenok (bateria). Betidanik musikarekiko zaletasuna izan duten lagunak elkartu dira eta rock-and-rolla lantzen dute, beste hainbat estilorekin batera. Lana Berrizko Lorenzo Records estudioan grabatu dute bi asteburutan eta zortzi kantu jasoko dira; sei euskaraz eta bi ingelesez. Orain, diskoaren diseinua amaitzen ari dira eta espero dute diskoa hilabete barru argitaratzea eta aurrerago zuzenekoak egiten jarraitzea, lan berria ezagutarazteko.

## Dokeko zuzendari Vene Herrero, 'La casa de Bernarda Alba'-n

Bilbon antzeztan ari diren obraren antzezletako bat da arrasatearra eta astebururo dituzte emanaldiak

Amaia Txintxurreta ARRASATE

Esperientzia berrian murgilduta dago Doke antzerki taldeko zuzendari Vene Herrero. Urtririlaren 20an estreinatu zuten, Bilbon, *La casa de Bernarda Alba* antzezlana, Ribera de Deusto 47ko 6. pabiloian. Herrerok Bernarda Alba pertsonaiari ematen dio bizia eta dio pertsonaia "gogorra" dela, baina harekin "disfrutatzeko pribilegioa" daukala egunero. Itziar Lazkano zuzendariak proposatu zion paper hori egiteko, eta Herrerok "opari" bat bezala hartu zuen: "Nire bizitza profesionala Madrili lotuta egon da eta duela urtebete inguru erabaki nuen berriro hona bueltatzea. Arrasaten Dokekoekin jarraitzen dut, eta orain, Bernarda Albaren pertsonaiari bizia ere ematen diot Bilbon; zer gehiago eska dezaket?", dio. Gaineratu du 1986an joan zela Madrilera interpretazioa ikastera, baina Arrasateko institutuan piztu zitzaizola interesa antzerkiarekiko eta interpretazioarekiko, hain justu ere, orain Bilbon antzeztan ari den *La casa de Bernarda Alba* obraren irakurketa dramatizatua egiten ari zirela.



Vene Herrero. P6 ANTZERKI LABORATEGIA

Antzezlanean talde ona osatu du Karmen Pardo, Idoia Merodio, Nagore Navarro, Leire Orbe, Yannick Bergara, Aiora Sedano eta Olatz Gamboarekin batera.

## Otsaileko asteburu guztietan

Emanaldiak astebururo dituzte hilabete honetan; egubakoitzetan eta zapatuetan 20:00etan eta domeketan 19:00etan. "Harrera oso ona izaten ari da antzezlana. Emanaldi bakoitzean sentitzen dugu nola ikus-entzuleek gurekin bidaiatzen duten. Antzerkiaren magia da hori", adierazi du pozez protagonistak.

## 'Atte hil aurretik' antzezlana hurrengo Kooltur egunean

Antzerkiaren gozatu ahal izango da hurrengo Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, gaztetxean, 22:00etan. Beheko Larrairie konpainiarena da *Atte hil aurretik*, Miren Tirapuk antzez-tutakoa eta idatzitakoa, Maika Etxekoparren zuzendaritzapean.

Bertan ikusi ahal izango da Maxusek bere biloba Aneri gauro ipuin bera kontatzen ziola. Bi hilabete pasako dira, ordea, historio hori azkeneko entzun zuenetik. Aratusteak gainean dira berriz, eta, urtero bezala, Erremosenea baserriko harategira joango da Ane jaiak ospatzera; han agerian utziko dute amonak kontatzen zion ipuinak ezkutuaren zeraman esanahia.

## Berri Txarrak Madrilera ikustera joateko autobusa

Martxoaren 3an Berri Txarrak taldeak bira amaierako kontzertua emango du Madrilgo La Riviera aretoan.

Arrasateko hainbat kuadrillak euren kabuz erosi zituzten sarrerak, eta, azkenean, jende dezente zirela ikusita, autobusa antolatzea erabaki dute. Oraingoz, 25 pertsona inguru elkartu dira autobuserako, baina, oso garesti ez ateratzeko, gutxienez, 40 pertsonako taldea osatu nahi dute. 40 pertsona joanez gero, 30 euro inguru irtengo litzazieke joan-etorriko bidaiak.

Apuntatzeko azken eguna hilaren 15a da eta izena emateko [btmadril@gmail.com](mailto:btmadril@gmail.com) helbidera idaztea nahikoa da.



laz egindako talo ikastaroko parte-hartzaileak, besteak beste, ikasleak eta Tril emakume elkarteko kideak. LORAMENDI ELKARTEA

# Euskara helburu egunero lanean

Euskara sustatzea Aretxabaletan helburu nagusia izanik dihardu lanean Loramendi elkarteak ia 25 urtez; hainbat eratako bederatzi proiektu ditu abian gaur egun eta gogotsu dabilta lanean. Gero eta herritar gehiago elkartzea du orain erronken artean

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Herrian euskara sustatzea helburu nagusi duen Loramendi elkarteak osasuntsu dago. Atzo, eguna, horren ganean jarduteko elkarte ziren elkartearen bueltan diharduten hainbat lagun; besteak beste, zuzendaritzako kideak, langileak eta kolaboratzaileak.

## 521 bazkide

Zortzi lagunek osatzen duen zuzendaritza taldeak gidatzen du Loramendi gaur egun. Horrekin batera, bederatzi lagunek era bateko edo besteko lanak egiten dituzte –begiraleak, diruzaina, teknikaria...– eta hain zuzen ere bederatzi dira elkarteak garatzen dituen proiektuak hiru batzordetan banatuta: aisialdiko proiektuen batzordea, kultura batzordea eta toponimia batzordea. "Horrekin batera borondatez lan egiten

dutenak daude, eta urtean zehar 60 bat lagunek euren aletxoak jartzten dute jarduera batean edo bestean", diote Loramendiko kideek. Diruz laguntzen duten bazkideak ostera, 521 dira, eta elkarteak antolatutako ekintzetara gerturatzen direnak 1.200 inguru.

## Beinketik Loramendira

Beinke kultur elkarteak izan zen Loramendiren aitzindari, 1986an hainbat herritarrek sortua. Kulturaren bidea hartu zuen horrek baina laster sortu ziren hainbat azpitalde, besteak beste, sentsibilizazio taldea, haurren taldea –gerora Ortzadar aisialdi taldea izango zena–, euskaldun berrien taldea eta Tril emakume taldea.

Herriko Loramendi ikastola publiko izatera pasatu zen 1993an eta haren ondasunak euskararen normalizazioaren alde lanean zihardutenei uztea erabaki zu-

ten. Orduan hain zuzen bat egin zuten Loramendi ikastolak eta Beinke kultur elkarteak eta sortu zen Loramendi euskara elkarteak.

## Herritarrek ateak zabalik

Loramendiren erronketako bat da herritarrek elkartearen inguruko ekintzetara gerturatzea. Honela dio Inigo Inurrategi presidenteak: "Euskara bultzatu eta indartu herritarrok egiten dugu, erabiliaz, euskaraz eginez, eta, beraz, edo lortzen dugu herritarrekin bat egitea edo alperreko lanean ariko gara". Eta gaineratu du: "Jendeak jakin behar du elkarteak ateak irekita dauzkatala, edozein proiektutan ekarpenak egiteko, ideiak emateko, ekimenak proposatzeko... Zenbat eta ekarpen gehiago jaso, orduan eta aberatsagoa izango da elkartearen lana".

## Aisialdira bideratutako jarduerak



### Ludoteka

3 eta 12 urte arteko umeei zuzendutako jolaserako eta harremanetarako zerbitzua da eta Loramendik kudeatzen du azken urteotan. Aste barruan egunero elkartzen dira Gernika plazako egoitzan eta jardura bereziak eta irteerak ere egiten dituzte.

## Elkartearen jardura orokorrak



### Toponimia

Bazkide talde batek osatzen du eta herriko txokoen datu toponimikoak eta historikoak biltzen dituzte, gero liburuxkan jasotzeko; baita txango bat egin ere. Urkuluren historiaren gaineko kontuak jasotzeko asmoa dute orain.



### Udalekuak

Opor garaiko aisialdirako zerbitzua da, jolasaren esparruan ere euskararen presentzia bermatzeko. Eta horrekin batera beste lerro batzuk lantzen dira: inklusioa eta aniztasuna, premia bereziak, kulturartekotasuna eta hezkidetza.



### Kultura

Elkarteak bazkideek osatutako batzordearen helburua da euskarazko kultur eskaintza antolatzea (ikastaroak, musika...). Literatura lehiaketak antolatzeaz ere arduratzen da eta herritarren parte-hartzea bultzatzea du helburu.



### Gazte zoro

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako umeei zuzendutako aisialdi zerbitzua da, adin horretan dagoen hutsunea betetzeko. Egubakoitzetan eta domekatan elkartzen dira udaletxe zaharretan euskararen erabilera sustatzeko.



### Iristu gazte taldea

lazko udan eratutako gazte taldea da. Horren helburua da gazteak euskalgintzara gerturatzea eta euren ekimenez antolatzea ekintzak; horren adibide dira Euskararen Nazioarteko Eguna, San Migel jaietako tonbola...



## Euskararen erabilera sustatzea



### Hizkuntza errefortzuak

Hizkuntzaren ezagutza eta erabilera indartzera bideratutako proiektua da, euskaraz jarduteko zailtasunak dituzten Lehen Hezkuntzako umeekin egiten dute lan. Saio ludikoak egiten dituzte bi begiraleren laguntzarekin.



### Barrietan

Euskaraz ikasten dabiltzan helduei bideratutako proiektua da, praktika oinarri izanda euskara maila hobetzeko. Euskaraz jarduten duten lagunekin asteen ordubetez elkartzeko dira horiek eta irteerak ere egiten dituzte gero.



### Auzoko

Hainbat jatorritako lagunek osatutako taldea da eta helburua da kultura errealitate horiek ezagutu eta elkarbizitza eraikitzea, komunikaziorako tresna euskara izanik. Eraginkorra izateko hori herritarren parte hartzea ezinbestekotzat jo dute.



## "Gogotsu gaude erronka berriei heltzeko"

IÑIGO IÑURRATEGI  
PRESIDENTEA

### Loramendiren bueltan lanean zabilzatenok elkartu zarete egun batez, zertarako?

Loramendiren bueltan lanean ari garenek bilduko gara: zuzendaritzako kideak, proiektuetako langileak eta batzordeetako partaideak. Proiektu asko dira eta elkartekideen arteko harremana eta proiektuen ezagutza indartzea beharrezkoa da: bakoitzaren erronkak, arazoak, indarguneak... Gure artean ideiak elkar trukatu, beharrak adostu eta proiektuen arteko lotura eta elkarlan posibleak aztertuko ditugu.

### Zelako osasuna du elkarteak?

Ona, mugimendu handia dago egunero gure elkarteetan, proiektu guztiak martxan daude eta gauza interesgarriak egiten dira. Gainera, erronka berriei heltzeko garaia ere bada eta gogotsu gaude.

### Zeintzuk dira orain erronkak?

Herritarren kontzientzia eragin eta euskara bultzatzeko ekimen berritzaileak sortzea. Horretarako, batetik, Loramendiko ekimenetan bazkideen inplikazioa handitzea eta, bestetik, herriko euskaltzaleekin, norbanako zein elkarteekin, lankidetzara sare dinamiko bat osatzea ezinbestekoa dela uste dugu.

# Ekintzaile berriendako lokalak Aralar kalean

Debagoieneko Mankomunitatearekin adostu du Udalak sei lokal egokitzea ekintzaile berrien enpresak kokatzeko. Hiru urtetan erabili ahal izango dituzte horiek eta Arrasaten dauden hamaseiekin osatu egingo dute Garapen Agentziaren eskaintza

M.A. ARETXABALETA

Udalak Aralar kalean dituen lokalak –tanatorioa egitekoak ziren lokalak– enpresa ekimenetara bideratuko dituzte. Hala adostu du Debagoieneko Mankomunitatearekin eta ekintzaile berriek enpresak kokatu ahal izango dituzte han.

**Enpresa Ekimenetarako Zentroa** Mankomunitateko Garapen Agentziak ekintzaile berriei zuzendutako zenbait zerbitzu ditu, besteak beste, prestakuntza ikastaroak eta bideragarritasun proiektuak. "Ekintzaile berriek enpresak kokatzeko izaten zizuten zailtasunak ikusita, Garapen Agentziak EZZ –Enpresa Ekimenetarako Zentroa– sortu zuen. Zentroaren helburua ekintzaile berriek behin behineko kokapena izatea da", jakinarazi du Aretxabaletako alkate eta Mankomunitateko presidente den Unai Elkorok.

Gaur egun, zentroak hamasei lokal ditu Arrasaten, Mankomunitatearen egoitzan hain zuzen ere. Hitzarmen horren



Aralar kalean Udalak duen lokala. M.A.

ondorioz, EEZk beste sei lokal izango ditu Aretxabaletako Aralar kalean. "Ekintzaileek edo enpresa promotoreek lokal horiek gehienez hiru urtez erabiltzeko eskubidea izaten dute; lehen bultzadaxoa izan ohi da, enpresa abian jarri bitartean", dio Elkorok.

### Martxoan erabiltzeko

Lokal berri horien kudeaketa Garapen Agentziako teknikari baten esku egongo dela iragarri du alkateak. Lokalaren egokitzapen eta txukuntze lanak otsailean egingo dituzte eta martxorako erabiltzeko moduan egongo dira.



NIRE USTEZ

OIER ARANZABAL

## Txakur kaken inbasioa

Hona guztioi kalte egiten digun arazo bat. Eta guztion artean konpondu beharrezkoa. Nork ez du txakur kaka bat zapaldu azken urte honetan? Mota guztietakoak aurki ditzakegu: handiak, diarreiakoak, sakabanatuak, ilunak, usaintsuak... baina deskuiduan zapalduz gero, denok haserretzen gera. Suertearen ematen duela dioenik ere bada! Bizikidetzaren neurgailu egokia da hau, eta, nire ustez,

gehiagora doa kaka kopurua, ze uste duzu zuk? Txakurren jabe batzuk, gutxienak seguru aski, ez omen daude bizikidetzaren alde.

Baina denoi dagokigu arazoa konpontzen saiatzea. Udal batzuek hartu dituzte neurriak: txakurren DNA erregistratu, multak jarri, poltsatxoak ematen dituzten kutzak jarri kalean... norberekoak ere ikusi ditut iniziatiba hartzen: kaleetan topatutako kaka

puskak fosforitoz margotu, banderillatxoak jarri kaka bakoitzari... edo kaka mokordoari argazkia atera eta Twitterrean igo! (#tolosaKakari traola bisitatu!).

Beste ideiarik? Arazoaren muinera joanda, txakur jabea zaren hori, mesedez, jaso zure txakurraren kakak! Eta besteok, txakur bat eginetan topatzen baduzue, jakinarazi jabeari modu onean, askotan despistek jota egon ohi baita...

# Badatoz Txapel Txin eguna eta Aratusteak

Hamargarren urteurrena ospatuko du Txapel Txinek otsailaren 18an eta laguntxo batekin etorriko dela iragarri du: Txintxin; Aratusteak iragarriko dituzte biek ala biek. Bitartean, herriko kuadrillak eta Udala buru-belarri dabilta mozorro festa gertatzen

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Lara Gonzalez aretxabaletarrak egindako kartelak iragarriko ditu aurtengo Aratusteak. Zortzi aurkeztu ziren lehiaketara eta Kultura zinegotzi Joxe Migel Uribarren pozik agertu da: "Beste urte batzuetan baino kopuru handiagoa jaso dugu eta maila altukoak izan dira, gainera; nahikoa lan izan du epaimahaia bat aukeratzen".

Otsailaren 26ean iritsiko dira Aratusteak, eta herriko kuadrillak lan eta lan dabilta azken asteotan: "Izugarritzko lana egiten dihardute, eta emaitza benetan polita izango da", jakinarazi du Uribarrenek.

**Txapel Txinek hamar urte**

Aratusteak iragartzera Txapel Txin etorriko da otsailaren 18an. Hamar urte beteko ditu aurten eta ezustekoak iragarri dituzte: umeendako Txapel Txin txiki bat, adibidez; Txintxin izango da hori. Eguerdian, kalejira egingo dute trikitilariekin, eta ondoren, kuadrillen arteko ginkana. 17:30ean, Birloque taldeak girotuko ditu herriko bazterrak eta gero, torrada lehiaketa izango da. Txapel Txinek 19:00etan iragarriko ditu Aratusteak. Ostean, txistor-mokadutxo eskainiko dute sagardoarekin, eta torrada dastatzeko aukera ere egongo da. Eta Avitxin DJak musikarekin girotuko du plaza ekitaldia.

**Aratuste aste bukaera**

Otsailaren 24an, Aratusteak berotzen joateko, Leizarra musika eskolakoei jaialdia egingo dute Herriko Plazan –eguraldi txarra bada, pilotalekuan–. Egun handia, baina, Aratuste-domeka da. Kuadrillek girotuko dute goiza eta bazkaltzeko Ibarra kiroldegian elkartuko dira: "650 lagun izango dira; gutxi gorabehera, Aretxabaletako biztanleriaren %8. Txartel guztiak ordu pare batean saldu ziren eta badakigu



Kultura Saileko ordezkariak Aratusteen gaineko erakusketan, Arkupen. MIRARI ALTUBE

leku barik geratu zirela hainbat, baina herrian ez dugu beste lekurik", jakinarazi du Uribarrenek. Aratuste-martitzenean, oster, ikastetxeetako neska-mutikoak izango dira protagonista.

Kultura Saileko kideek Karnabalen Lagunak taldea eskertu gura izan dute egiten dabilen lanagatik, baita txistu taldea, musika eskola, ikastetxeak, guraso elkarteak eta Santa Ageda neska-mutilak.

## "Haurdun nago eta Txintxin ekarriko dut"


**TXAPEL TXIN**  
ARATUSTEEN IRAGARLEA

**Hamar urte beteko ditu aurten Txapel Txinek; berezia izango da?**

Zalantza barik; hamar urte dira Zelabaixota, Azpigarri eta oraindik lanean ari diren hainbat kuadrilla lanean hasi zirela. Jaiak indarra hartu du eta sorpresak egongo dira datorren zapatuan. Txapel Txinen kondaira hasi besterik ez da egin!

**Laguntxo batekin zatoz, gainera...**

Bai, haurdun nago eta laster munduratuko dut Txintxin! Umeen lagun handia izango da. Artaxoako ospitalean jaioko da



M.A.

eta datorren astean izango duzue haren berri...

**Umeengana joan ohi zara ikastetxeetara; aurten?**

Bai, Basabeazpitik eta Kurtzebarritik pasatzeko asmoa dut! Baita ludotekatik ere! Oso ondo pasatzen dut herriko txikiekin egunez eta helduekin gauze!

**Badatoz Aratusteak; zer esango zenieke herritarrei?**

Lotsak etxean utzi eta balkoiak eta kaleak kolorez betetzeko! Goizean gosari on bat egin eta kalera ondo pasatzera irteteko! Eta ligatzeko aukerarik baldin badaukate, ba... ligatzeko!

## Diru-bilketarako administrarien lan-poltsa osatzeko deialdia

Lan-poltsan parte hartzeko eskaerak egiteko epea otsailaren 10ean, gaur, egubakoitza bukatuko da

**I.B** ARETXABALETAKO

Diru-bilketako administrarien lan-poltsa osatzeko deialdia arautzeko hainbat oinarri bete behar dira, eta lan-poltsa lehiaketa-erakunde bidez osatuko da.

Lanpostuak hainbat eginkizun ditu: udal zerga guztien eguneraketa, kobratzea, ordainketa guztien jarraipena egitea. Zeregin hauek betetzeko beharrezkoak diren jakinarazpenak egingo ditu, diru-bilketak exekutibo barne, zergekin aipatu berri diren zereginak tasekin eta prezio publikoekin bete beharko

ditu, besteak beste. Horrez gainera, hainbat baldintza bete beharko ditu lehiaketara aurkeztu denak –Aretxabaletako udal webgunean ikusgai–.

**Bost egun erreklamatzeko**

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda udaletxeko iragarki-taulan eta [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus) webgunean jarriko da ikusgai. Udalak bost eguneko epea emango du erreklamazioak egiteko. Lan-poltsan parte hartzeko eskaerak egiteko epea gaur, otsailaren 10ean, bukatuko da.



AMAIA TXINTXURRETA

## Kintoen dantzak domekero

Aretxabaletako 1998ko kintoak hiru egunez herriko hainbat txoko, taberna eta ikastetxetan eta baserri baserri Santa Ageda eskean aritu ostean, dantzak egin zituzten pasa den domekan, Herriko Plazan. Hala ere, Inauterietara arte –otsailaren 26ra arte–, domekero elkartuko dira plazan dantzak egiteko, 19:00etan.

**Udal aurrekontua aurkeztuko diete herritarrei eguaztenean**

Otsailaren 1ean udalbatzak onartutako 2017ko udal aurrekontua herritarrei aurkeztu gura diete orain. Datorren eguaztenean, otsailaren 15ean, 18:00etan, Arkupeko bigarren solairuko aretoan emango dituzte azalpenak eta diru-kontuen gaineko nondik norakoak. Herritar guztiak dardela gonbidatuta iragarri dute udal ordezkariak.

**Zapatuan 'Ecstatic dance' saioa izango da Ibarra kiroldegian**

Musikaz gidatutako dantzaldi askea da *Ecstatic dance*, eta Oskar Estangak gidatuko du zapatuan saioa, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Ibarra kiroldegian. Izena eman nahi dutenek [jai-kielkartea@yahoo.es](mailto:jai-kielkartea@yahoo.es) helbidera idatzi edo 688 81 96 65 telefonora dei egin dezakete. Prezioa: langileentzat 10 euro da eta langabeentzat, 7 euro.



Mikel Ortueta kanpai-jolea Eskoriatzako San Pedro elizako kanpaiarekin. I.B

## Bolibarko Ortueta anaiak, kanpaiak jotzen ikasten

Mikel eta Jon Ortueta urrian hasi ziren Arientzako kanpai-jole eskolan, eta oso gustura ari dira. 13 eta 18 urteko bi gazteek kanpaien gaineko jakin-mina dute, eta beti jotzeko prest daudela azaldu du anaia zaharrenak, Mikelek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Bolibar auzoko Mikel eta Jon Ortueta anaiak urrian hasi ziren Arientzako kanpai-jole eskolan kanpaiak jotzen ikasten. 13 eta 18 urteko bi gazteak oso pozik daude orain arte ikasi dutenarekin, eta, hain zuzen ere, ikasten jarraitzea espero dute.

Mikel Ortueta anaia nagusiak azaldu du aspalditik ikasi nahi zuen zerbait zela, eta Arientzako kanpai eskolan esperientzia ederra izan duela azaldu du. "Beti gustatu izan zaidan zerbait izan da kanpaiak jotzearen artea. Kanpaien inguruko gauzak esploratzea asko gustatu izan zait betidanik, eta jakin-mina piztu zitzaidan. Aspalditik nuen ikasteko gogoia eta anaiarekin batera izena eman nuen Arientzako kanpai-jole eskolan. Uste dut gorde beharrekoa den ondare bat dela, eta, gainera, gustukoa izanda, ezin hobeto".

Hala, urritik hona, asko ikasi dute bi anaiak, eta kanpaiak

jotzeko ez duela zailtasunik adierazi du Mikelek.

**Garrantzitsuena, gogoia izatea**

"Kanpaiak jotzeko modu asko daude, errepikak jo behar dira... eta ikasteko asko dudaren arren, orain artekoa erraza egin zait. Hasieran, DVD baten bitartez hainbat pauso ikasi ditut, eta, horrez gain, oinarrian, praktikatzea dela garrantzitsuena azpimarratuko nuke, eta horretan ere ari naiz".

Egubakoitzetan entseatzan dute, eta auzoz auzo zein herriz herri ibili gura duela azaldu du Ortuetak.

**Auzoan jotzeko irrikak**

Normalean, auzoko eta herriko jaietan jotzen da, eta bi anaiak horretarako asmoa dute. "Ni Bolibarko naiz eta irailaren 29an izaten dira jaiak auzoan, sanmigelak. Aurten, eguen baten izango dira, eta geroago ospatuko dugu, baina esan beharra daukat eguna heltzeko gogoz

nagoela. Izan ere, kanpaiak joko ditut bertan".

Bolibarren dagoeneko jo dugu, eta Joxe Migel Zubiak urtero jotzeko eskatu digu. Hark meza ematearekin eta kanpaiak jotzearekin nahikoa lan du, eta, niri aukera emanda, oso gustura joango naiz eskatzen didan guztietan auzoko kanpaiak jotzera".



Eskoriatzatik Leintz Gatzagara bidean dagoen Santa Columba basiliza. I.B

## Amaitu dituzte Santa Columba basiliza egonkortzeko lanak

Ezkilaren oinarriko zutabea oker dagoenez, errepidera jausteko arriskua dago, eta indartu egin dute

**I.B** ESKORIATZA

Gastanaidi baserri ondoan dago Santa Columba basiliza, Eskoriatzatik Leintz Gatzagara doan errepide alboan. Dokumentuen arabera, 1556an existitzen zen erreferentzia dago, eta, errepidera jausteko arriskua zegoela-eta, segurtasuna bermatzeko konponketa-lan batzuk egin dituzte egunotan.

Pasa den egubakoitzean hasi ziren basilizako ezkilaren oinarriko zutabea sendotzen, eta astelehenean amaitu zituzten lanak. Hala ere, teilatua barrura sartuta dago aspalditik, eta bertako bizilagunek ez dakite guztiz konponduko duten edo ez. Honela azaldu du Juan Karlos Bengoa bizilagunak: "Kanpaia duen ezquila okertuta dago, eta bere egunean matxoi bat jarri zioten, baina arriskua du. Horregatik, bizilagunok arazoaren berri eman genion Udalari, eta

apezpikutzak berehala jarri da martxan. Orain, arriskua kentzeko egur batzuk jarri dituzte zutabeari eusteko, baina ez dakigu zer egingo duten hemendik aurrera...".

**Zer egingo den, erabakitzeke**

Orain, zer egingo duten erabaki beharko da: basiliza bota, konpondu... Hala ere, sendotu den zutabeaz gain, sabaia ere barrurantz dago sartuta, eta konponketa handia egin beharko litzateke; izan ere, teilatua handi samarra da. "Hormak ondo daude, baina Diputazioak eta apezpikutzak erabaki beharko dute zer egin. Bestalde, Eskoriatzan maila ezberdineko ondareak daude zerrendatuta ondare kultural; hau oinarriko babeskoa da, eta ez dakit zein garrantzi emango dioten... Oraingoaz, behintzat, errepidean sor daitekeen arriskua ekidin dute".



## ESKORIATZAN AUKERA

Etxebizitza salgai  
San Juan kalean. **140 m2**  
Sukaldea, egongela  
eta **3 logela**

Bista paregabeak  
**Atxorrotxera, Kurtzebarrira**  
eta **Asensiora.**

Ganbara etxebizitza  
gainean, **80 m2**, gela  
egiteko aukerarekin.

**616 41 71 05**



Olazar Jubilatutako kideak mahai-joko txapelketan Labetxe tabernan. IMANOL BELOKI

# Garai berrietara egokitze asmoarekin

Olazar Jubilatutako kideak batzar orokorra egingo du martxoaren 15ean juntako kideen aldaketa egiteko. Horrez gain, betiko dinamikarekin jarraitzeaz batera, gauza berriak egitearen aldeko apustua egin nahi dute, arlo sozialean gehiago inplikaturik.

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar Jubilatutako kideak 632 bazkide ditu; eta horietatik 72 pertsona 85 urtetik gorakoak dira. Dagoeneko 30 urte ditu elkarteak, urtez urte hainbat aldaketa izan dira, eta lan horretan batzordeko kideak aritu dira urtez urte elkarte indartzen. Martxoaren 15ean batzar orokorra egingo dute, eta batzordea osatzen duten zortzi pertsonatik lau, gaur egun presidentea den Jose Mari Kortazar barne, aldatu egingo dira.

Ekintza ugari egiten dituzte urtean zehar, eta hainbat sailetan sailkatzen dituzte elkarte kideak. Beharrezkotzat hartzen dituztenak: bidaiak; egun batekoak, urtean lau egiten dituztenak, eta astebete, hamar egunen bueltan egiten dituztenak, urtean bi direnak. Hitzaldiak eta karta txapelketak. Horrez gain, azken hiru urteetan, memoria tailerra, zahartze aktiboa eta *Hiri Lagunkoia* bezalako ekintza be-

rien aldeko apustua egin dute berrikuntza moduan. Azkenik, jubilatutako sukaldaria ere kontuan hartzen dute, bertan merienda, bazkari eta afariak egiteko erabiltzen dutena.

## Garai berrietara egokituz

Jose Mari Kortazar elkarte presidentea zegozkion hiru urteak eginda, presidentea kargua utziko du, eta esperientzia ederra izan dela adierazi du: "Azken hiru urteetan betiko dinamikarekin jarraitu dugu, baina, egunerokoaz gain, gauza berriak egitearen aldeko apustua egin dugu. Izan ere, elkarte guztien eta generazio guztien moduan, guk ere aldatzen joan behar dugu, garai berrietara egokituz".

Hala ere, berrietasun integratu arren, urteko plangintza berruz "oso gustuko" dituzten ekintzak egiten jarraitu behar dela azpimarratu du Kortazarrek: "Beharrezkotzat hartzen ditugun ekintzak ez ditugu baztertu behar, guri gehien gusta-

tzen zaizkigunak direla esan dezakegu, baina sozialki pilak jarri behar ditugu, gehiago inplikaturik...".

## Aste honetan, karta-jokoa

Mahai-jokoen txapelketa egin dute aste honetan Olazar Jubilatutako kideak, mus, tute eta briska karta-jokoetara jokatuta. Joko bakoitzean lehenengo geratzen direnek afaria irabaziko dute Labetxe tabernan, eta eskualdeko txapelketarako sailkatuko dira. Bertan garaipena lortzen badute, Donostian jokatuko den finalerako sailkatuko dira eta sariren bat edo beste jasoko dute.

## Udaberrian Lanzarotera

Udaberrian egingo duten bidai programatuta dute dagoeneko. Lanzarotera joango dira bederatzi gau eta hamar egunerako, eta, guztiz zehaztuta ez dagoen arren, 50-60 lagun inguru joango direla aurreikusten du Kortazarrek.



## "Gai sozialak gehiago landu behar ditugu"

**JOSE MARI KORTAZAR**  
ELKARTEKO PRESIDENTEA

Jose Mari Kortazar hiru urtez izan da Olazar Jubilatutako elkarte presidentea. Orain, aldatu egingo dituzte junta osatzen duten zortzitik lau kide, hura barne.

### Ze moduzko esperientzia izan da?

"Egindako lanarekin gustura geratu naiz. Aberasgarria izan da esperientzia, eta talde-lana ondo egin dugulakoan nago, nahiz eta akatsak egin. Jendearen erantzuna ere ezin hobea izan da, eta azpimarratu beharra dago talde ezberdina baina osatua izan dela. Orain, talde berria etorriko da eta guk baino hobeto egingo dute, seguru".

### Azken urteetan berrikuntza asko egin dituzue, gainera?

Urtean zehar egiten ditugun bidaiak, karta jokoa... beti egin behar ditugu, jubilatutako oso gustuko ditugunak, eta egiten jarraitu. Baina gai sozialean ere gehiago sartu behar dugu. Esaterako, *Hiri Lagunkoia* ekimenarekin aritu gara eta berrikuntza positiboa dela uste dut.

### Hemendik aurrera, zer?

Presidentea izan arren, taldean egin dugu lan. Orain datozenek bide beretik jarraitzea nahiko nuke, eta laguntza gura badute prest egongo naiz horretarako.

## Sagardotegira irteera antolatu dute martxorako

Martxoaren 11n, Astigarragako Etxeberria sagardotegira irteera egingo dute hainbat eskoriatzarrek eta aretxabaletarrek. Izen-ematea Eskoriatzako Inker nu tabernan edo Aretxabaletako Urbaltz tabernan egin beharko da, eta, hain zuzen ere, bertan izena ematean hamar euroko fiantza jarri beharko da.

Guztira, 40 euro ordaindu beharko dira sagardotegia eta autobusa ordaintzeko -fidantzako hamarrak barne-, eta hau izango da egunerako plana: 10:45ean autobusa Eskoriatzako eta 11:00etan Aretxabaletan. Denak jaso eta Astigarragan bertan goizeko poteoa egingo dute. Ondoren, bazkaria Etxeberria sagardotegian 14:30ean izango da eta amaitzean, 18:00 aldera, Heranira joango dira denak festara. Bueltarako autobusa, berriz, 00:00etan izango da.

Guztira, 55 pertsonarendako lekua dago autobusean, eta oraindik lekua dagoenez izena emateko aukera dago.

## Inauterietarako dantzak ikasteko saioa egingo da

Otsailaren 19an, domekan, Lantzeko dantzak ikasteko saioa egingo da Joseba Inurrategi pilotalekuan. Dantzak dakizkiten herritarrek batuko dira bertan, ez dakiten eskoriatzarrei irakasteko, eta, hala, otsailaren 23an izango den Urdelardero egunean, 18:30 aldera, Herriko Plazan egingo dituzte ikasitako dantzak.

## Zapatuan 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik' dokumentala

Zapatuan, Nabarralde eta Herri Errotuz elkarteak egindako *Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik* dokumentala ikusteko aukera izango da Ibarraundin, 12:30ean. Hala ere, orain arte izandako erakusketa ikusteko aukerarik ez da egongo; izan ere aurkitutako piezak, jasota daude, eta dokumentala ikusteko bakarrak izango da hitzordua.

## "Ikerkuntza mota batzuk egin beharra dagoela uste dut"

IGOR MELTXOR KAZETARIA

'Kazetari kanaia' proiektuaren berri ematen Eskoriatzan

I.B. ESKORIATZA

Igor Meltxor (Ortuella, Bizkaia, 1978) analista politikoa, iker-tzailea eta idazlea da, eta atzo, eguena, *Kazetari kanaia* proiektuaren berri ematen izan zen Eskoriatzan.

**Zer da *Kazetari kanaia* proiektua?**

Komunikabide digital bat da *elperiodistacanalla.net* izenekoa. Proiektu honen ardatz nagusia ikerkuntza da, baina memoria historikoa, analisi politiko-ekonomikoa lantzen dugu... Maiatza ezker dago martxan.

**Zergatik lantzen duzu kazetaritza mota hori? Zergatik aukeratu duzu?**

Ikerkuntzako kazetaritza da; Pepe Rei elkarteko kideak gara, ez da erraza, baina ikerkuntza mota batzuk egin beharra dagoela uste dugu. Liburuak ere atera ditugu; esaterako, Bidegi auziaren gainekoa...

**Proiektuan zu bakarrik?**

Ni proiektuaren zuzendaria naiz, baina hamalau pertsona daude sartuta.

**Ze babes dauka?**

Proiektu independentea da, eta haren babesa harpidetzak dira. Hainbat hitzaldi egiten ditugu, eta bertan azaltzen dugu harpidetzak nola funtzionatzen duen.



Igor Meltxor. JOTABEURTZI.WORDPRESS

Urtero 60 euroko kuota jartzen dugu, eta, horren barnean, web orria librea da eta martxotik aurrera izango den aldizkari digitala ere jarriko dugu hilero. Horrez gain, liburuen prezioen %40ko deskontua ere izango dute harpidedunek.

**Nola gauzatu, ze formatu, ze bide-tan?**

Liburuen, webgunearen, aldizkari digitalaren eta hitzaldien bidez. Euskal Herrian izaten gara, bereziki, baina baita kanpoan ere. Pasa den urtean, 91 hitzaldi egin genituen.



Leintz Gatzagako Korrika batzordeko kideak, lehenengo bileraren ostean, Labidean. ENEKO AZURMENDI

## Bertso afaria eta Korrika Txikia, ekintza nagusiak

Leintz Gatzagako Korrika batzordeak eguaztenean egin zuen lehenengo bilera, 20. edizioaren gaineko ekintzak eta beste hainbat kontu zehazten joateko; apirilaren 8ko bertso afarian Onintza Enbeita eta Jon Maia bertsolariak izango dira gonbidatuak

**Eneko Azurmendi** LEINTZ GATZAGA

Eguazten arratsaldean egin zuen lehen bilera Leintz Gatzagako Korrika batzordeak Aitor Juaristi Korrikako Debagoieneko koordinatzailearekin.

Hainbat gauza zehaztu zituzten, Korrika laguntzaileak, kartelak non jarri eta arropak salgai noiz jarri, besteak beste. Bestalde, herriko batzordeak

Juaristiri eman zion Korrika pasatzen den egunean, apirilaren 8an, egingo diren ekintzen berri.

Korrika laguntzaileak izateko 20 bat gutun-azal banatu zituen Juaristik, herriko komertzio eta eragileei banatzeko.

Hiru kartel jarriko dituzte: udaletxean, pilotalekuko atzeko paretan eta San Martingo zubian, hain zuzen. Arropak salgai jar-

tzeko eskaera martxoaren 11rako egin zen, Emakumeen Eguna dela eta.

Ekintzei dagokienez, bi dira nagusiak: 12:00 aldera, Korrika Txikia egingo da; eta gauean, berriz, bertso afaria, Onintza Enbeita eta Jon Maia bertsolariekin.

Hurrengo batzarra otsailaren 22an egingo dute, Labidean.



IMANOL SORIANO

## Santa Ageda dantzak bikain

Pasa den domekan euria ez zen aitzakia izan Eskoriatzako Herriko Plazan Santa Ageda neska-mutilen dantzak ikusteko; izan ere, herritar ugari bertaratu zen. Lau eguneko festaren ondoren, oso ondo egin zituzten dantzak, eta ez zitzairen asteburuko nekea batere igarri. Domeka honetan, berriz egingo dituzte dantzak, plazan, 19:00etan.

## Angula zozketa otsailaren 25ean

Kilo bat angula zozketatuko dira aurtan ere; bizirik dauden angulak, hain zuzen.

Dagoeneko tradizio bilakatu den zozketa da angulena. Izan ere, duela urte batzuk, Korrika ekimenari laguntzeko eta gastuei aurre egiteko sortu zen eta orain, urtero egiten da.

900 bat txartel daude salgai, 2 eurotan, eta otsailaren 25ean izango da zozketa, Labidean.



2015eko txartelak eta angulak. MIRARI ALTUBE

# Langraizko bide beretik jarraitzera, Zigoitira

Aurtengo Arabako Txapelketan lehen aldiz abestuko dute domekan Andere Arriolabengoak, Iker Agirrek eta Xabi Igoak. Pasa den domekan Peru Abarrategik eta Manex Agirrek Langraizen erakutsitako maila onari jarraipena ematen saiatuko dira

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketaren fase finalak pasa den domekan egin zuen lehen urratsa Langraizko lehen finalaurrekoarekin, eta Aramaioko bertsolariek maila txukuna erakutsi zuten. Domekan 17:30ean jokatu da bigarren finalaurrekoa, Zigoitiko Kultura Etxean.

**Seitik hiru aramaioarrak**

Oholtza gainera igoko diren sei bertsolarien erdiak aramaioarrak izango dira. Bertan izango dira Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre, Iñaki Viñaspre, Jagoba Apaolaza eta Serapio Gomezekin batera.

Igoa azken edizioko finalista da, eta honela ikusten du bere burua domekara begira: "Ondo nago. Bertso Eskolan egindako prestaketa lana hor dago, eta prest nagoela uste dut. Gainera, oholtza gainean jende ezaguna edukiko dut eta horrela erosoago sentituko naiz. Lagungarria da albokoa ezagutzea, batez ere, ofiziotan aritzeko".

Andere Arriolabengoak lasaitasunez begiratzen dio Zigoitiko saioari. "Azken edizioan ez nuen parte hartu; beraz, aurtengoan ez daukat ezer galtzeko. Ez dut nire burua presionatzen eta bertsotan aritzeaz gozatzeo asmoz noa. Bertso Eskolan aritzen garen lau kide igoko gara oholtzara; izan ere, Iñaki Viñaspre aramaioarra ez izan arren, gurekin aritzen da. Horrenbestez, lagunartean abestea ere polita izango da".

Iker Agirre ere presiorik gabe aurkeztuko da Zigoitian. "Ez daukat espektatiba handirik txapelketari dagokionez. Ez dut finalera heltzea helburu bezala hartzen; beraz, lasai nago. Bertsotan ondo egin eta gozatzea da nahi dudana". Alboan izango dituen bertsolariei buruz zera adierazi du: "Lagun artean, bizitzako beste alderdietan bezala,



Arriolabengoa, Agirre eta Igoa, debuta egiteko prest. GOIENA

## OHOLTZARA IGOKO DIREN SEI BERTSOLARIETATIK HIRU ARAMAIOARRAK IZANGO DIRA

gauzak errazago eta hobeto ateratzen dira.

**Agirre eta Abarrategi fin**

Kanporaketa fasean lan dotorea egin zuten herriko bertsolariek, eta bide beretik hasi zuten aurtengo txapelketa Manex Agirrek eta Peru Abarrategik.

Felipe Zelaieta, Zigor Enbeita, Rikardo G. de Durana eta Asier Rubio izan zituzten aurkari Langraizen egindako saioan. Oholtzara igo ziren sei bertsolarietatik, Manex Agirrek lortu zuen puntuazio altuena (229 puntu) eta Peru Abarrategik, aldiz, hirugarrena (222,5).

Lehen finalurrekoa hasi aurretik, duela bi urteko sentsazio onak urrun sentitzen zituela aitortu zuen Agirrek, baina, domekako saioaren ondoren, gertuago sentitzen hasteko aitziakirik ez zaio falta. "Lehen

ariketetan eroso sentitu nintzen. Ondoren, bakarka egindako lanarekin ez nintzen gustura geratu, eta arantza moduko batekin amaitu nuen saioa. Hala ere, lasaitua hartu nuen puntuazio altuena jaso nuela jakiterakoan", azaldu du Agirrek. Kontrarioei dagokienez, Rikardo G. de Durana oso seguru eta irmo ikusi zuela adierazi, eta Peruk egindako saio serioa ere nabarmendu du.

Peru Abarrategiren kasuan, saioa *benetan pozik* amaitu zuela aitortu du. "Agurrean oso urduri jarri nintzen. Zuri antzean geratu nintzen eta ia doinua ahaztu zitzaidan. Baina saioa aurrera joan ahala segurtasuna hartzen joan nintzen, eta gustura amaitu nuen egindako lanarekin".

**Bertso saioa gaur Marixekan**

Xabi Igoa eztarria berotuta helduko da Zigoitiko finalurrekoara, gaur Marixekan kantuan arituko baita, 20:30ean hasiko den bertso saioan.

Arabako Bertsozaleen Elkarrekin antolatuko du, eta Aroa Zubizarreta, Peru Amorrortu eta Xabier Antia izango ditu alboan.

## Guraso Elkartaren eskutik Mindfulness ikastaroa

*Mindfulness eta arkanasketa kontzientea* familian izenburua du Guraso Elkarrekin antolatuko duen ikastaroa.

Aste honetako martitzenean egin zuten lehen saioa, eta beste bi gehiago egingo dituzte hurrengo bi asteetan. Ikastaroa eskolan egingo da, eta norberaren burua hobeto ezagutzeko helburua izango du.

## Udalak argazki bildumak jarriko ditu Flickr kontuan

Herritarrenganako komunikazio planaren barruan, Udalak Flickr kontua sortu du, aramaioar guztiak argazkiak elkarbanatzeko asmoarekin.

Hiru argazki galeria igo dituzte jada: 2016ko argazki lehiaketakoak, Euskararen Eguneko argazki herri lasterketakoak eta Santa Ageda bezperakoak.

Helbide honetan ikus daitezke galeria horiek: [www.flickr.com/photos/147263284@N05/albums](http://www.flickr.com/photos/147263284@N05/albums).

**Zinea zapatueta**

Zapatu honetan eta hurrengoan zinema proiektzioak egingo dituzte Kultura Etxean, gaueko bederatzietan. Bihar, *RAMS* filmaren txanda izango da.

## Alaiak Elkarrekin Madrilera astebeteko irtenaldia egingo du

Madril hiria sakon ezagutzeko irtenaldi interesgarria antolatu du Alaiak elkarrekin.

Maiatzaren 7tik 13ra bitartean egingo dute bidaiari, eta izen ematea apirilaren 5a baino lehen egin beharko da. Irteerak 370 euroko prezioa du eta, hain zuzen, beharrezkoa izango da diru ekarpena eginda izatea izena eman aurretik.

## Korrika hasiko den egunerako kilometro bat hartu du Udalak

Korrika Aramaiotik pasako ez den arren, herrian eratuak Korrika batzordeak kilometro bat diruz laguntzea adostu zuen.

Aurtengo edizioa Otxandiotik abiatuko da, arratsaldeko bostetan, eta Legutiora iristeko kilometro baten faltan hartuko du lekukoa Aramaio. Kilometroa Udalak diruz lagundu duen arren, herritar guztiak parte har dezakete.

**Jaialdia Aramaion**

Herriko talde ezberdinen parte hartzearekin jaialdia egingo da kiroldegian. Martxoaren 31n egitea aurreikusten da, eta bertsoak eta abesbatzen kantaldiak ez dira faltako.



IMANOL SORIANO

## Santa Ageda eskean gogotsu

Azken hiru eguetan prestaketa lanak egin ondoren, zapatuan eztarriari astindutxo emateko eguna izan zen Aramaion. Laugarren urtez jarraian eskutik emanda aritu ziren Bertso Eskola, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzak eta Trikiti Taldea. Aldi berean, herriko auzoetan ere ibili ziren kantuan eta eskean.

# "Ideia %10 da eta exekuzioa, aldiz, %90"

**ANTTON PEÑA EKINTZAILEA**

Londresen ekintzaile dabil aramaioarra, arrakastatsu. Aseguru enpresei zuzenduta dagoen droneen segurtasunari buruzko aplikazio bat da haren apustu berria

**Xabi Gorostidi ARAMAIO**

26 urte izan arren munduko txoko ugaritan lanean eta ikasten aritutakoa da. Flock izeneko enpresa bat sortu du, eta aseguru-enpresentzat interesgarria izan daitekeen proiektu garrantzitsu bat du esku artean.

**Noiztik zaude Londresen eta nolatan heldu zinen hara?**

Leku askotan bizi izan naiz azkenaldian. Erasmus programaren bidez Frantziara joan nintzen, eta, ondoren, Italian finkatzea erabaki nuen, autoen munduan lan egiteko, eta, azkenean, Alemanian bukatu nuen Audi enpresarentzat lan egiten.

**Interrail bidaia bat bezala, baina lan munduan?**

Hala da. Hor daukazu elkarrizketaren titularra. [Barre]

**Zenbat denbora egin zenuen Audin?** Urte erdi egin nuen han, eta horri esker hasi nintzen mugikortasunarekin lotutako jakintzan espezializatzen; hain zuzen, *connected vehicle* kontzeptuarekin zerikusia zuten gaietan. Eta gaur egun droneen inguruan daukadan proiektua kontzeptu horrekin oso lotuta dago.

**Eta nola amaitu duzu Londresen?**

Audin denboratxo pasatu eta gero erabaki nuen hori ez zela niretzat, eta beste zerbait behar nuela. Beraz, Londresera etorri nintzen master bat egitera. Kuriosoa da, berez, Londresen, New Yorken eta Tokyon egiten den masterra delako. Beraz, interrail 2.0 dela esan daiteke. Bi urteko masterra zen. Lehenengo urtea New York eta Tokio artean eta azkena, Londresen. Azkenean, asko bidaiatu ostean, Londresen geratzea erabaki nuen.

**Eta masterra amaitzean zeri heldu zenion?**

Masterrean bertan proiektu bat garatu nuen ikaskide batzuekin, eta egitasmo horri jarraipena emateko enpresa bat sortu genuen, Farewill izeneko. Internet bidez testamentuak egiteko



Antton Peña, lan bulegoan, ordenagailu aurrean. ANTON PEÑA

**"ERABILTZAILEEI ZUZENDUTA DISEINATU ARREN, ASEGURU ETXEAK BILAKATU DIRA GURE BEZEROAK"**

zerbitzua eskaintzen du, *farewell* (agurra) eta *will* (borondate, testamentu) hitzen arteko jokitik datorkio izena. Gaur egun martxan jarraitzen du, baina nik ez dut bertan lanik egiten, nahiz eta akzioduna izan.

**Deigarria egiten zait, ideia bat, enpresa bat, sistema hori. Ekintzaile izatearen esentzia da, azken finean?**

Benetan berritzailea den zerbait egin nahi baduzu, konturatzen zara oso zaila dela estruktura-tuta dagoen enpresa zuhur batean horrek lekua izatea. Garrantzitsuena proiektu horretan %100ean sinisten duen eta erabat inplikaturata dagoen talde baten lan egitea da, eta, horretarako, txikitasuna abantaila bat da kasu askotan.

**Txikitasuna aipatu duzu. Ekintzaileen bideragarritasunaren klabe-tako bat ideia espezifikoak eta konkretuak izatea da?**

Baietz uste dut. Ideiak behar bat ase behar du, eta hori zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta hobeto. Ekintzaileen artean asko entzuten da ideia %10 dela eta exekuzioa, aldiz, %90. Eta, hein handi batean, horrela dela uste dut. Ekin handia behar da egunetik egunera ideiatik harago joateko, eta, horren ondoren, ideia bideragarri izateko jende askorengana jo behar duzu, hori saltzeko, finantziarioa lortzeko...

**Enpresa propioa sortzearen alde eginda, finantziarioa lortzea al da prozesurik zailena?**

Beste batzuentzat ez da zailena izango, baina, finantzetan aditua ez naizenez, baietz esango nizuke. Enpresan dirua sartzen duen orok errentagarritasuna du helburu, etekin bat atera behar du bertatik. Nire kasuan, data enpresaren errentagarritasuna lantzea derrigorrezkoa izan da nire hasierako ideia erromantiko hori aurrera ateratzeko. Ezin zara *unifazeta* izan, eta beharrezkoa da prozesu osoaren ikuspegi globala izatea.

**Flock enpresari dagokionez, zertan datza? Zein bidetatik heldu zinen produktuaren ideia garbi izatera?**

Idea garbi izatea baino gehiago, ideiarekin alderdi batzuk garbi nituelarik hasi zen guztia. Masterra egiten ari nintzela droneekin lotutako proiektu bat egin nuen. Etorkizuneko garraio sistemaz hazteko aukera asko zituen garraiobidea izan zitekeela ikusteak erakarri ninduen. Egutero milioika bidalketa egiten dituzten DHL edo Amazon bezalako enpresentzat aukera handia da. Etorkizunera joan gabe, gaur egun, Amazonek 350 langileko laborategi bat du Erresuma Batuan egutero droneekin probak egiten.

**Eta zein izan zen merkatu horretan ikusi zenuen zirrikitia?**

Droneak erabiltzen aditua ez bazara, hegaldi amateurren arrisku maila altua izaten da. Beraz, arriskua neurtzeko Big Data sistema bat garatzearen alde egin nuen. Hegaldia hasi aurretik arrisku hauek neurtuko dituen neurgailu bat: zenbat jende dagoen inguruan, zenbateko trafikoa dagoen, zenbat eraikin eta zuhaitz dauden, ea kablerik dagoen, zein eguraldi dagoen... horrekin guztiorrekin, Otik 10erako arrisku metrika bat egiteko.

**Eta zein zen publiko objektiboa?**

Hasieran, erabiltzaileei zuzendutako produktua zen, baina konturatu ginen hauek ez zutela ordainduko hori neurtzearen. Eurentzako euren hegaldiak nahiko seguruak dira. Beraz, buruari bueltaka jarri ginen, eta aurkitu genuen zerbitzu horrengatik ordaintzeko prest zegoen segmentua: aseguru-etxeak.

**Droneekin dabilen ororentzat beharrezkoa da aseguru izatea, ezta?**

Hala da. Urte osorako aseguruak izaten dira, eta, nahiko produktu berriak direnez, ez dute maldatsun handirik eskaintzen. Berdin balio du dronea erabiltzen aditua denarentzat zein hasiberria denarentzat. Berdin urtean 100 hegaldi egiten dituenarentzat zein urtean behin erabiltzen duenarentzat. Gure aplikazioarekin hegaldi solteak aseguratzeke aukera eskaintzen diegu aseguru-enpresei. Horrez gain, aseguru-etxeentzat, erabiltzaileek hegan hasi aurretik euren arriskuak ondo ezagutzea klabea da hegaldeen arrisku probabilitatea jaisteko eta errentagarritasuna handitzeko. Legediaren eta arriskuen ezagutzarekin lotutako jakintza hedatzeko ere balio du, eta hori interesgarria da gobernuentzat.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

## Iraultza kontzeptua

Kontzeptu potolo orok interpretazio desberdinak izaten dituela erakutsi digu historiak. Bakoitzaren subjektibotasunaren errua edo bertutea izan daiteke honen ekintzaile.

Adibide argia dugu, gaur, iraultza kontzeptua. Aurreko mendeetan debate teoriko-praktiko aberatsa jaso du hitz honek, kontzienteki baloraturiko analisi ezberdinak plazaratuz. Baina egun, solasaldi horiek kamiseta edota abesti "borrokarietan" itsatsirik gelditu dira, iraultzak *de facto* dakarren praktikotasuna aireak eraman izan balu bezala.

Ezin liteke ulertu iraultza, nire ustez, honek duen logika historikotik kanpo. Historian zehar emandako derrigorrezko fasea izan da, gizarte esklabista eta feudala gainditzeko beharrezkoa. Baina iraultza hauek ez dira kasualitatez ematen, momentuko kontzientzia idealista bat garatu edo, sistema konkretu batean sorturiko kontraesanek bideratzen dute mugimendu hau.

Beraz, saia gaitzen, behintzat, berezkoa duen logika historikotik ez ateratzen. Nonbaitetik atera behar bada, kamisetatik atera dezakegu, ez baitu inongo zentzurik.

## Plaza dantzak egiten hasteko ikastaroak egubakoitzetan

Herri dantzak gustuko bai baina hauek dantzatzen ez dakitenek aukera polita izango dute Aramaion.

Lagun Artean dantza taldeak ikastaroa antolatu du barikue-tarako, Kultura Etxean. Duela astebate hasi ziren bospasei laguneko taldearekin eta animatu nahi dutenentzat atek zabalik dituzte, 17:45etik 18:30era.

# Ideiak aukeran Aroztegi aretoan

Domekara arte daude ikusgai Udalaren Ideia Lehiaketara aurkeztu dituzten hemeretzi proposamenak. Herritarrek kategoria bakoitzeko –umeena eta helduena– biren alde bozkatu dezakete –webgunean ere bai–. 100.000 euro daude ideiek gauzatzeko

**Julen Iriondo** BERGARA

Martitzena ezkerro daude Aroztegi aretoan jarrita Udalaren Ideia Lehiaketara aurkeztu dituzten hemeretzi proposamenak; zortzi dira umeen kategoriakoak, eta hamaika helduenekoak. Lehiaketak badu epaimahaia, baina herritarrek ere aukera ditzakete gustukoena –batzuen eta besteen iritziak hartuko dituzte kontuan azken ebazpeneko–. 2017ko udal aurrekontuak 100.000 euro ditu lehiaketara aurkeztutako ideia onenak gauzatzeko; horrez gain, ideia horiek aurkeztu dituztenentzat ere izan-

go dira sariak, eta iritzia ematen duten herritarrentzat ere bai.

Askotarikoak dira lehiaketara aurkeztutako proposamenak, eta, edukia baloratua izateko zain, kopuruarekin gustura geratu da Udala: "Nik uste dut kopuru ona dela. Proposamen bakoitzaren atzetik lan bat dago, eta horrek esan nahi du egileek pentsatu dutela nola ikusi nahiko luketen herria hemendik urte batzuetara eta zer egin dezaketen horretarako, eta aberasgarria da hori", zioen alkateak.

Proposamenak aurkeztuta, gainerako herritarren txanda da orain. Aroztegi aretoan bertan, behin erakusketan jarritako proposamenak ezagutu eta gero, domekara arte dago gustukoena aukeratzeko aukera –bi, kategoria bakoitzean–; Udalaren webgunean, berriz, hurrengo eguaztenera arte eman daiteke iritzia.


Herritarrek erabakitakoak eta epaimahaiaren iritziak, bakoitzak %50eko pisua izango du lehiaketaren azken ebazpenean, eta, berdinketaren bat gertatuko balitz, herritarren irizpidea lehenetsiko litzateke. Epaimahaia Udaleko hautetsi, langile eta teknikariz –proposatutako ideien alorretakoak– egongo da osatuta. Hilaren 15ean jakinaraziko dute irabazleak zeintzuk diren, eta astebetara egingo dute sari banaketa.

Udalaren esku egongo dira hurrengo urratsak; proposamenen bideragarritasunaren arabera, aukera denak dira posible: bakarra edo gehiago gauzatzeko lanean hastea; osorik ez izanda ere, proposamenen baten faseren bat martxan jartzea; edo batere ez egitea. Dirua egon badago gordeta, 2017ko udal aurrekontuak 100.000 euro baititu Ideia Lehiaketako proposamenen bat edo batzuk aurrera eramateko. Bideragarritasuna da gakoa, alkatearen esanetan: "Teknikoki posible izatea; gizartearen babesa izatea, eta hori bozketa hauetan ikusiko dugu; eta ekonomikoki ere jasagarria izan dadila".

Gero euren proposamena gauzatu edo ez, babes handiena lortzen dutenek askotariko sariak eskuratuko dituzte; iritzia ematen duten herritarrentzat, berriz, herriko komertzioarako bonuak –150 eta 100 euroko baliodunak– eta Agorrosinerako urte osorako bonua daude.

## Helduek aurkeztutako proposamenak

Hamaika izan dira, denera, 18 urtetik gorakoek Ideia Lehiaketara aurkeztutako proposamenak. Gaur egungo baliabideak edo azpiegiturak egokitzeko dira batzuk, aukera edo zerbitzu berriak sortzeko beste batzuk, eta ingurumenarekin eta ospakizunekin lotutakoak ere badira. Bakoitzaren pintzeladak dira ondoren datozenak; zehaztasunak, Aroztegin eta Udalaren webgunean.



Goiko estazioko bidea. M. TXINTXURRETA

**Goiko estazioa** Espazioa zaindu, garbitu eta txukundu. Umeentzat jolasgunea sortu eta ekintzak antolatu.



Dbizi. DONOSTIA MUGIKORTASUNA

**Bizikleta alokairu sistema** Bizikletaren erabilera sustatzeko. Guneak bizikletekin herriko hainbat puntutan, alokatzeko.



Saihesbidea San Martzial bidetik. M.T.

**Saihesbidera irteera** San Martzialerako bideko zubi ingurutik Elorregirantz, irteera nagusiko zirkulazioa arintzeko.



Arrizuri kalea. MAITE TXINTXURRETA

**Arrizuri kalea** Malda handiak eragin ohi dituen oinezkoen erorketak eta irristatzeak saihesteko proposamena.



Ozaeta jauregia. MAITE TXINTXURRETA

**Informazio panelak aberastu** Herriko ondarearen berri zabalago emateko, QR bidezko sistema erabili.



Tavex zegoen orubea. M. TXINTXURRETA

**Askotariko parkea** Tavex egondako orubean, paseorako eta jolaserako guneekin, ortu komunitario batekin...



Ibilgailuak bidean. MAITE TXINTXURRETA

**Autoa partekatzea** Irabazi asmorik gabeko web orri kooperatibo bat, autoa partekatzeko helburuarekin.



Basoa Aranerrekan. MAITE TXINTXURRETA

**Aranerrekako basoa** Bertako baso naturala berreskuratzea, Boluan gertatutakoa moduko lur-jausien aurka, besteak beste.



Alacanteko azpiegitura. GOIENA

**Kioskoaren ordez Espoloian** Ez dezala lehengoaren egitura izan, baizik maskor akustiko edo agertoki ere bai. Atzerago joatea.



Oñatiko ortuen gunea. GOIENA

**Ortu publikoak** Norbere kontsumora bideratutako lursail txikiak, elikadura osasuntsua eta bizimodu aktiboa sustatuz.




Bergara. UDAL ARTXIBOA / JUAN IDIGORAS

**Hiribilduaren 750. urtemuga** Bergararen urteurren hori 2018an izango dela-eta, hori ospatzeko kultura ekintzak.





Kanpoko igerilekua, udako egun jendetsu batean. GOIENA



Farolak Espoloian. JULEN IRIONDO

## Umeen eta gaztetxoek ideiak

18 urtera artekoek zortzi proposamen egin dituzte Ideia Lehiaketan. Horietatik hiruk zerikusia dute Agorrosingo kanpoko igerilekuarekin, era batera edo bestera: kanpoko igerilekua handitzea eta hobetzea proposatzen du batek; horrekin batera, udan uretako ekintzak antolatzeke begiraleak kontratatzea beste batek; eta kultur ekintzak antolatzea hirugarrenak –kontzertuak, antzezlanak...–.

Horiekin batera, askotariko ideiak jaso dituzte lehiaketan parte hartu duten gazteenen aldetik: komedia eskola bat sortu eta hilean behin komiko ezagun bat gonbidatzea; herrigunetik aparte jolas parke handi bat egitea, gazteentzako abentura parkea tartean; etxegabeentzako aterpea eraikitzea, umeentzako gimnasio batekin eta helduendako beste batekin; uretako abentura parkea egitea; eta farolak konpontzea eta argi gutxi dagoen lekuetan berriak jartzea.

## Erramu Zapatuko feriarako izen-ematea zabalik dago

Apirilaren 8an, zapatua, izango da aurtengo Erramu Zapatuko feria, eta dagoeneko zabaldu dute bertan parte hartu nahi dutenentzat izen-emate epea. "Feriaren antolaketa hobetzeko asmotan", Udalaren webgunean –[www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)– zintzilikatu duten inprimaki bat bete beharko da. Bi aukera eskaintzen dira: bate-

rik, elikagaien postua jartzea; edota, bestetik, artisautza postua.

Izena emateko azken eguna martxoaren 1a izango da, eta izena emandakoek hil horretako 14a baino lehen posta elektronikokoan mezu bat jasoko dute onartuak izan diren edo ez esanez. Zalantzarik edo galderarik izanez gero, Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzura joan edo 943-77 91 59 telefono zenbakira deitu dezakete interesa dutenek.

## Padel pista erabilgarri dago berriz ere

Aurreko egubakoitz gaueko hai-zeak kalteak eragin zituen Agorrosingo padel pistan. Estalpeak zati bat galdu zuen, eta ardura-dunek erabaki zuten instalazioa ixtea. Oraindik ez dute konpondu, baina euria eginez gero ere ur askorik sartuko ez litzatekeela eta –ertz batetik bakarrik–, ohararazpena eginda, berriz jarri dute erabilgarri pista.



Padel pistako estalkia. BERGARAKO UDALA

## Martxanterak, emakumeen arteko sareak sortzen

Kafe baten bueltan, zaintza eta hazkuntza lanen gaineko hausnarketan jardun zuten martitzenean askotariko adinetako hainbat emakumek Dixula tabernan, Martxanterek deituta. Lanok aitoren ekonomiko eta sozial handiagoa beharko ote luketen izan zuten hizpide, besteak beste. Antolatzaileak gustura geratu ziren erantzunarekin.



Martitzeneko saioa. MAITE TXINTXURRETA

## EHUren katedrarekin elkarlana Laboratoriumek

Kultura zientifikoa hedatzea helburu duten bi blogetan ekarpenak egingo ditu hilero

J.I. BERGARA

*Cuaderno de cultura científica* eta *Zientzia kaiera* blogetan egingo ditu ekarpenak Laboratoriumek. Elkarlan honi esker, museoak berak ere "hedapen zabalagoa" izango du; EHUren Kultura Zientifikorako Katedrak urtero milioi bat erabiltzailetik gora izaten ditu bere blogetan.

Elkarlanaren lehen pausok eman dituzte dagoeneko; 2016ko urrian *Zientzialari* bideo sortan parte hartu zuen Laboratoriumek –[zientziakaiera.eus](http://zientziakaiera.eus)–. Bestalde, *Cuaderno de cultura científica* blogeko lehen idatzia urtarilaren 15ean argitaratu zuten, eta *Zientzia kaiera*-n hurrengo egunetan argitaratuko dute.

Blog bakoitzeko kolaborazioak ezaugarri propioak izango ditu. *Zientzia kaiera*-n Laboratorium museoeko zientzia bildumako aleetan oinarritutako dibulgazioa egingo dute; pieza jakin bat aitzakia izango da, eta pieza ezagutzeaz gain, zientziaren arlo bat, printzipio bat edota pertsonaia bat hobeto ezagutzeko erabiliko dute. *Cuaderno de cultura científica*-n Bergarako Errege Seminarioa izango da ardatza zientziaren inguruko istorio bat kontatzeko. Zientziaren historiak pisu berezia izango du.

# BERGARAKO FRONTOIAN

## AZKEN PREZIOAK!!

Bergaran bizi, herrian erosi, denok irabazi

Amua • Anezka • Gracian • Igarza • Iratxo  
Jo'ka • Junbiju • Laket • Mirari • Subijai • Xuxu

**OTSAILAK 18,  
LARUNBATA**  
10:00etatik 14:30era  
17:30etik 20:00etara





59. atariko lehenengo pisuko etxebizitzaik kaltetuena, barrutik. M.T.

## Bukatutzat eman dute larrialdi egoera Boluan

Martitzenean izan zen hori, eta horrek ahalbidetu du etxetik kanpo zeuden familietako bi euren etxebizitzetara itzultzea. Bestalde, maldako emergentziatzko lehen lanak bukatuta, 59. atarian konponketa lanekin hasi ahal izan dira aste honetan

### Maite Txintxurreta BERGARA

Boluan urtarrilaren 16an gertatutako luiziaren ondorioz aktibatutako zuten larrialdi egoera amaitutzat eman zuten martitzenean. Era berean, lur-jausiaren ondorioz etxetik kanpo zeuden bi familia etxera itzuli ahal izan dira aste honetan.

Ezbeharrak gertatu ostean lehen txosten tekniko bat egin zuten adituek, eta, horri jarraituta, zenbait neurri hartu zituzten. Hala, asteotan luiziaren ingurua garbitzen aritu dira, eta egubakoitzean bukatu zituzten lan horiek. Aurrerantzean gerta daitezkeen lur erorketak saihestu eta ura blokeatzeko, panel berezi batzuk jarri dituzte. Horren ostean egindako bigarren txosten ahalbidetu zuen larrialdi egoera bertan behera lagatzea.

Uneoroko jarraipena egiteko protokolo bat martxan dutela argitu du Udalak.

Etxeetara bueltatu diren familiak 57. atariko bigarren pisukoak eta 61. atarikoak dira.

59. atariko eskailerak oso kaltetuta zeudela pentsatzen zuten arren, egunotan ikusi ahal izan dute eskailera bera ez dagoela apurtuta. Hala, aste honetan hasi dira atariko konponketekin.

### 59. atariaren egoera

Hain zuzen, aste honetan peritua sartu da atari kaltetuenean, bertako etxebizitza ikustera. Bigarren pisukoetan martitzenean sartu ahal izan zen, eta lehenengokoetan, berriz, atzo.

Bigarren pisuko bizilagunek diote euren etxeetan ez dagoela kalte nabarmenik. Kaltetuenak lehenengokoak dira. Lehenengo pisuko etxebizitza horien artean, bazen bat joan den astean artean ur asko zeukana. Orain, baina, lokatza bakarrik gelditzen da, suhiltzaileek ura atera baitute.

Atariari dagokionez, eskailean, maldaren aldeko paretan dagoen zuloa da nabarmenezkoa. Luiziak pareta apurtu zuen, eta bertatik sartu ziren ura, lokatza, harriak eta enborrak.

Horrez gain, lokatz dezente zegoen eskaileretan, eta langileek hori erretiratzeko dihardute. Bestalde, eskaileren barandak ere apurtuta zeuden.

### Azterketa geologikoa maldan

Orain, azterketa geologikoa abiatuko dute maldari nola eutsi dakioken ikusteko. Horretarako hilabete inguru beharko dutela aurreikusitako dute.

### Trenbidea itxita

Udalak gogorarazi du goiko trenbidea itxita egongo dela, oraingoz, Boluan, luiziak kaltetutako gunean, hain zuzen ere, segurtasuna mantentze aldera. Eta ez dakite noiz zabaldu ahal izango duten.

### Diru laguntza Udalak

Bestalde, 2017ko udal aurrekontuan oposizioaren proposamenetarako aurreikusita zeuden 80.000 euroak Boluko beharretara bideratzea erabaki dute alderdi politikoek, adostasunez.



Maider Osa, Nerea Madariaga eta Maite Agirre. M.T.

## Ohiko hitzorduak ez dira falta izango Bergarako Aratusteetan

Airez taldeko kideek egindako kartelak irabazi du lehiaketa, eta horrekin iragarriko dituzte jaiok

### Maite Txintxurreta BERGARA

Urtero legez, aurten ere Aratusteak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa abiatu zuen Udalak, eta dagoeneko badu irabazlea. Airez taldeko kideek egin dute; zehazki, Maite Aranzabalek, Sara Martinezek, Xabi Lukek, Irati Alberdik eta Nerea Madariagak.

Azken horrek kartela egitearen nondik norakoak azaldu ditu: "Beste lan batzuetan ari ginela, bat-batean okurritu zitzaigun lehiaketarako kartel bat egitea. Orduan, eskura genituen material batzuk elkartu eta argazki bat atera genien. Ondoren, digitalizatu egin genuen eta testua-eta gehitu genion. Globoak, gomak edota adar bat agertzen dira kartelean". Herritarren 82 boto lortu ditu kartelak.

### Hitzordua nagusiak

Aratusteak ofizialki Eguen Gizenan hasten diren arren, lehenago, martitzenean (otsailak 21), sasoi honetan tipikoak diren torradak eta pellak egiteko ikastaroa egingo dute San Antonioko Gure Ametsa elkarteak.

Eguren Gizenan sorgin dantza izango da, iluntzean, erdiguneko kaleetan, musikaz lagunduta, lehoi, hezle eta guzti.

Hurrengo egunean, berriz, egubakoitza, Udal Pilotalekuan ohiko aratuste kontzertua izango da, Bergarako Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren eskutik. Bergara-Cai Non Stop izenburupean, gaia bidaia bat izango dela aurreratu dute,

baina gehiago jakin nahi duenak kontzertura joan beharko du.

Aratusteetako zapatua ere egun handia izango da. Hala, besteak beste, eguerdian moztorro bazkaria izango da Aranzadi ikastolako gimnasioan, herriko produktuekin egindako menuarekin, berogailuarekin eta musikaz girotuta.

Arratsaldean, berriz, ohi bezala, Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazo ezagunen bi emanaldi izango dira frontoian. Euren ikuskizun berriarekin datoz oraingoan, *Tipi-Tapa, Korrika!* izenekoa.

Iluntzean, erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira izango da, eta ondoren erromeria, plazan.

Bukatzeke, martitzena izango da azken eguna, eta egun horretan, musika eskolako gazte bandaren kalejira eta batukada herrikoia izango dira arratsaldean. Iluntzean, berriz, DJ festa Gauargi taldearen eskutik.

### Sarrerak

Aratuste-kontzerturako eta pailazoen emanaldirako sarrerak aurrez erosteko aukera izango da otsailaren 13tik aurrera Kutxabanken webgunean eta Zabalotegi aretoan. Dena den, egunean bertan ere irekiko dituzte leihatilak. Moztorro-bazkarirako txartelak, berriz, dagoeneko salgai daude Pol-Pol eta Ariznoa tabernetan.

Udalak herritarrak animatu nahi izan ditu moztorrotera eta antolatutako hitzorduetan parte hartzera.

# Zezeaga, lau t'erdiko txapelketatik kanpo

Soraluce txapelketaren final-laurdenetako promes mailako partiduan, Josu Zezeaga herriko pilotariak galdu egin zuen Oskar Lerenaren kontra; lehiaketatik kanpo geratu da. Nagusietan, berriz, Eneko Labakak 22-13 irabazi zion Iraitz Zubizarretari

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Soraluce lau t'erdiko txapelketako bigarren jaialdia jokatu zuten martitzen iluntzean Udal Pilotalekuan. Lehen partidua izan zen ikusmira handiena sortu zuena, herriko seme Josu Zezeagak jokatu baitzuen. Partidu ona egin zuen arren, ezin izan zion Oskar Lerenaren errioxarrari irabazi herrikideen aurrean, eta 22-18 bukatu zen norgehiagoka.

Hala, Zezeagarendako dagoeneko bukatu da Bergarako txapelketa, eta, "ilusio bereziarekin" prestatu duen arren, datozkion beste txapelketetak gertatu behar ko ditu orain.

Etxeko pilotaria hasi zen irabazten, baina, gero, Lerenak aurre hartu zuen markagailuan, eta hala mantendu zen partidu osoan, puntu gutxiko aldearekin bada ere. Zezeagak joko ona egin zuen arren, sakeekin min handia egin zion errioxarrak; izan ere, zazpi tanto sakez egin zituen.

Nagusien mailan, berriz, Eneko Labakaren eta Iraitz Zubizarretaren arteko partidua jokatu zen, eta 22-13 irabaztea lortu zuen Labakak. Erraz irabazi zion, gainera, eta argi geratu zen Zubizarreta baino maila hobean dagoela Labaka.

Datorren martitzenean (otsailak 14) final-laurdenetako beste bi partidua jokatu dituzte. Promes mailan, Ivan Garcia-Elola, eta nagusietan, berriz, Xabi Santxo-Alain Prieto.

Pilota elkarteko Reyes Azkoitia pozik azaldu da orain arteko partiduek eman dutenarekin eta herritarren erantzunarekin, eta hala jarraitzea espero du.

## Asteburuko partidua

Bestalde, gaur, egubakoitza, hiru pilota partidua izango dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. Alebinetan: Bergara-Ilunpe; infantilen bigarren mailan: Bergara-Legazpi; eta nagusien mailan: Bergara-Eskoriatza.



Josu Zezeaga martitzeneko partiduan. M.T.

## "Ilusioz prestatu dut txapelketa, baina ez da posible izan"

**JOSU ZEZEAGA** PILOTARI BERGARARRA


Josu Zezeaga bergararrak martitzenean jokatu zuen lau t'erdiko txapelketako lehen partidua, Oskar Lerenaren aurka. 22-18 galdu zuen norgehiagoka, eta lehiaketatik kanpo geratu da.

### Ezin izan duzu garaipena eskuratu zure herrian.

Bai, pena da, ahaleginak egin ditut, baina ez da posible izan. Hasieran, ni joan naiz aurretik, baina gero, aurre hartu dit, eta gero, ezin izan diot buelta eman. Partidua ez da oso polita izan, baina, behintzat, ahaleginak eginda, etxera.

### Alde handirik ez dizu atera momentu batean ere, baina atzetik ibili zara.

Bai, aurre hartu didan momentutik aurrera, denbora guztian joan naiz bi edo hiru puntu atzetik markagailuan; alde handirik gabe, baina atzetik. Ezin izan diot buelta



M.T.

eman, baina lana ondo eginda, gutxienez.

### Zale bergararren bultzada igarri duzu?

Bai, beti da polita herriaren aurrean jokatzea, eta, jendea partidura hurbiltzen bada, oso gustura jokatzen da horrela. Zuretzako bukatu da txapelketa, beraz.

Ilusioz prestatu dut txapelketa, aurrera segitzeko asmotan, baina, bueno, orain, beste txapelketa batzuk prestatu behar ko ditut.

## Herriko karatekek emaitza onak lortu dituzte Euskadikoan

Asteburuan Azkoitian jokatu dute Euskadiko senior mailako karate txapelketa. Bada, Shotokan taldeko bergararrak fin ibili dira, eta emaitza onak lortu dituzte. Hala, kumitean, nor bere pisu kategorian, Joseba Perez txapeldunorde izan da, Iker Osinagak ere bigarren egin du eta Iñaki Karasatorrek laugarren postua eskuratu du.



Xabat Irazola. GOIENA

## Kadete taldea eta San Martzialera igoera, Lokatzaren nobedade

Lokatza ziklismo eskolak bi nobedade dakartza 2017rako. Aurtent kadete taldea izango dute azken bi urteetan kategorian hau hutsik egon da jende faltagatik, sei txirrindulariz osatua. Bestetik, iazko lasterketak mantendu egingo dituzte eta bat gehiago izango dute: emakumezkoen San Martzialera kronoigoera, San Martzial egunean.

## Mahoneroek Tolosa hartuko dute Agorrozingo zelaian

Futboleko gizonezkoen lehen taldeak Tolosaren aurka jokatuko du etxean bihar, zapatua, 16:30ean. Bergararrak lider dira momentu honetan, eta denboraldi honetan oraindik inor ez zaie gailendu etxean. Bada, jorra hori mantentzen ahaleginduko dira bihar. Tolosa seigarren postuan dago eta 17 puntuko aldea dago bi taldeen artean.

## Pol-Polen irteera eta urteurrena ospatzeko herri bazkaria

Beteranoek otsailaren 19an Deba eta Zumaia arteko ibilbidea egingo dute, goizez. Bulegoan eman daiteke izena, 15 euro ordainduta. Bestalde, otsailaren 28ra arte erosi daitezke martxoaren 19an Pol-Polen urteurrena ospatzeko egingo duten bazkari-rako txartelak (35 euro), toki hauetan: bulegoan, Gracianen, Lazkanon eta Pol-Pol tabernan.

## "Min handia emango liguke etxean bolada ona haustek"

**XABAT IRAZOLA**  
SORALUCE BKE-KO  
JOKALARIA ETA  
ENTRENATZAILEA

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Soraluce BKEk Zast Zarautz liderra hartuko du bihar, zapatua, Labegaraietan (16:00). Bolada onean daude bergararrak **Nola ikusten duzue zapatukoa?**

Partidu zaila izango da, denak bezala, baina, azken bost partidua irabazita, bolada onean gaude eta konfiantza daukagu. **Denboraldi hasieran baino hobeto zaudete orain.**

Hori da. Ondoegi ere ez ginen hasi, eta, gure helburua mailaz igotzea zen arren, hasieran bazirudien jaitsi egingo ginela. Baina gero, dinamika onean sartu ginen, hobeto entrenatzen dugu orain, eta hobeto gabilta. Gainera, bolada hori etxean apurtzeak min handia egingo liguke, eta, horregatik, oso garrantzitsua da motibatuta ateratzea kantxara.

**Joanekean 19 puntuko aldearekin galdu zenuten. Errebanza hartzeko aukera ona duzue orain.**

Bai. Markagailuak horrela islatzen ez duen arren, egia esan, partidu hura nahiko parekatua izan zen, baina haiek etxean jokatzen zuten, abantaila hori zuten. Orain, guk jokatuko dugu etxean, eta hori aprobetxatzen ahaleginduko gara. Horregatik, zaleak animatu nahi ditugu partidura etor daitezen.



Laskurain eta Etxaniz zutik, eta Ugalde eta Ibarra belauniko. KARLOS ETXANIZ

# Bergararrak, aurten ere, Opus Liricaren obran

'Carmen' opera taularatuko dute gaur eta domekan Donostiako Kursaal, eta bertan parte hartuko dutenen artean dira Marije Ugalde, Nere Ibarra eta Karlos Etxaniz, baita Bergarako Musika Eskolako ikaslea den Edurne Laskurain eibartarra ere

**Julen Iriondo** BERGARA

Aurreko urtean besteko protagonistorik ez, baina aurten ere izango du presentzia Bergarako Opus Liricaren opera emankizunean; 40 laguneko abesbatzako kide izango dira Marije Ugalde, Nere Ibarra, Karlos Etxaniz eta Edurne Laskurain.

Denera 200 parte-hartzaile izango dituen *Carmen* lanaren entseguak abenduan hasi zituzten, eta bi emankizunetan taularatuko dute orain asteburuan, gaur –egubakoitza– 20:00etan eta domekan 19:00etan.

Ordezkaritza bergararra gogotsu dago azken asteetan prestatutakoa jendaurrean erakusteko, hainbat arrazoigatik. Batetik, Georges Bizeten obra goi-mailakoa eta ezaguna delako, eta askok dakizkiten doinuak jasotzen dituelako: "*Carmen* opera oso-oso polita da. Bospasei abesti ditu edozeinek ezagutzen dituenak, eta hori ez da hain ohikoa. Hori erakargarria da jendearendako, eta guretzako

ere kantuan gehiago disfrutatzeko aukera, hain dira ezagunak eta politak kantu horiek!", dio Karlos Etxanizek.

Antzerako iritzikoa da Marije Ugalde. Eurak, aurrez, obrak eman dezakeenarekiko "oso irudipen onarekin" doazela dio, publikoaren erantzunaren zain: "Opera batzuk erreferente dira eta denek ezagutzen dituzte, eta *Carmen* da horietako bat. Denek ezagutzen duten musika da, beti entzun izan ditugun hainbat abesti dituen, eta orain hori kantatzeko aukera edukitzea gustagarria da".

Emanaldietarako gogoz egoteko beste arrazoi batzuk dira abesbatzak protagonismo berezia duela obra honetan eta

**BERGARARREK ABESBATZAN ABESTUKO DUTE; PROTAGONISMO BEREZIA DU OBRAN**

aurreko esperientzietatik oritzapen onak dituztela: "Obra denek dituzte euren berezitasunak. Nik azken hiru operetan hartu dut parte, eta oso-oso gustura", zioen Etxanizek; Ugaldek, berriz: "Abesbatzak protagonismo handia du obra honetan, beste batzuetan baino handiagoa, eta eskatzen du abesbatza potente bat, horregatik gara 40 abesbatzan bakarrik".

**Munduko Carmen onenetakoa**

Obrako protagonista nagusiak kanpokoak dira: Don Jose-rena egiten duena, Eduardo Sandoval murtziarra; eta Carmen, Maria Jose Montiel madrildarra, pertsonaia hori egiten "munduko onenetako bat", Marije Ugalde-aren arabera.

Opus Lirica taldearen seigarren muntaia da oraingoa, Bizeten jatorrizko lanaren bertsio modernoa. Emanaldietarako sarrerak salgai daude Kursaal webgunean, 18 eta 75 euro arteko salneurriekin.

## Helduentzako antzezlan bat eta umeentzat beste bat asteburuan

Eromen konpainiak 'Sweeney' izeneko lana taularatuko du, eta Txalok, berriz, 'Magia lapurra', Zabalotegin

**J.I. BERGARA**

Bihar –zapatua–, 20:00etan, da lehenengo emanaldia. 8 euroren truke egongo da Zabalotegin Eromen Produzioak konpainiaren *Sweeney* izeneko antzez-lana ikusteko aukera. Helduentzako saioa da.

Benjamin Barker izeneko protagonistaren gainekoa da antzez-lana: "Hamabost urtez kartzelan egon ondoren, bere herrira itzultzen da bere familiaren bila. Inork ezagutu ez dezan, Sweeney Todd izenarekin itzultzen da. Baina bertan topatuko

duena ez da atzean utzi zuen bizitza". Aktore pilatxo batek dihardute antzezlan honetan, Amancay Gaztañagaren zuzendaritzapean.

Domekan, berriz, 18:00etan hasiko da, toki berean, Txalok taldearen *Magia lapurra* antzez-lana; kasu honetan, haurrei zuzenduta, eta 4 euroko sarrerarekin: "Dorleta neska gazteak magiarako zaletasun handia du eta, bere ilusioa betetzeko asmoz, casting batera aurkeztuko da, mago laguntzaile izateko proba-ra, alegia".

### Fly Shit eta Inoren Ero Ni taldeak, bihar kartzela zaharrean

Txapa Irratiaren jaia 22:30ean hasiko da. Inoren Ero Ni taldekoek landutako egituradun euren kantuak ekarriko dituzte. Fly Shitekoek, bestalde, etxean joko dute taldearen 20. urtemugako biraren barruan. 90eko hamarkada erdialdean sortu eta indarrean jarraitzen duen euskal hardcore talde apurretakoa da. 5 euro balioko ditu sarrerak.

### Amodiozko gutun eta esaldien lehiaketako sari banaketa

**Goiena komunitatea**

Jardun / BERGARA

Asko izan dira aurtengo edizioan jasotako amodiozko gutun eta esaldiak; hain justu ere, 82 gutun eta 41 esaldi. Lehiaketako sari banaketa datorren martitzenean, otsailak 14, 19:00etan izango da, Irizar jauregian –informazio gehiago, Goiena aldizkariko 40. orrialdean–.



**NIRE USTEZ**

**IOSU ELORTZA**

### Behin bakarrik munduan

Festara, gu ere bai, atera ginen San Sebastian eguna ospatzera. Kalerik kale, gerria mugituz, Anoetan pasatako hotza umore onez ahaztu genuen.

Aldi berean, Atlantikoaren beste aldeko danbor hotsak munduaren alaitasuna kolakan jartzen hasiak ziren. Amerikarrek aukeratu duten gizon ilehori, handiki eta harropuzak kargua hartu zuen egunetik lortu du guztion arreata bereganatu eta kezka sortaraztea. Debekuen eta harresien garaietara itzuliz, historiako pasarte ilunenetako kontuak ekarri dizkigu gogora.

Nik oso argi daukat. Hartuko dituen erabaki asko kaltegarriak izango dira guztiontzat, bai, baina ez du lortuko alaitasunarekin amaitzea. Aberatsago edo pobreago, alboan ditudanen, lagun zein ezagunen, zorientasuna izango da nire bizipozaren iturri. Benetan balio duen aberastasuna, dudarik gabe.

Beti bezala, presaka eta astirik gabe gaurkoan ere... Cadizerako maleta prestatzeko daukat oraindik ere! Izango dugu elkarren berri, beti pozez, beti alai!



# ARRASATEKO OSOKO BILKURA

**GOIENA TELEBISTA**

EGUBAKOITZA, OTSAILAK 10, 22:00ETAN

**goiena**<sup>“</sup>  
ZU HEMEN ZAUDE



Udal ordezkariak martitzeneko ohiko osoko bilkura. MAIDER ARREGI

## Nekazaritza lurren araudia aldatuko dute

Martitzenean egin zen Antzuolako Udaleko otsaileko ohiko osoko bilkura. Bertan, nekazaritza lurren arau subsidiarioen aldaketa eta Diputazioak proposatutako parte hartze programaren atxikipena onartu ziren EH Bilduren eta EAJren botoei esker

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

EH Bilduren eta EAJren aldeko botoei esker onartu zen nekazaritza lurren arau subsidiarioaren aldaketarako hasierako onespina. Izan ere, gaur egun, Antzuolako baserrien arteko distantziak oso murriztaileak direla azaldu zuen EH Bilduko Ion Iturbe zinegotziak eta distantzia hori malguagoa izatea gura dutela gaineratu zuen. "Gertatu dira zenbait kasu Antzuolan non jendeak iniziatiba hartu duen abeltzaintzako proiektu batzuk martxan jartzeko, baina bertan behera geratu direnak. Izan ere, Udalak zeukan baserri lurren arteko distantzia araudia oso murriztailea zen. Ondorioz, zenbait herritarrek ezin zuten euren proiektua aurrera eraman. Arau horien aldaketa egitea proposatu dugu eta gaurko osoko bilkuran onartua izan da. Hau da, herriko espezifikazioak kendu eta arau orokorrari aipamena egitea proposatu dugu".

Hala, herritarren proiektuak bideratu eta oztopatu ez daitezkeen, nekazaritza lurren arau malguagoaren aldeko apustua egin dute hasierako onespina onartuta.

### Parte hartzerako bilgunea

Osoko bilkuran bertan onartu zen Gipuzkoako Diputazioaren eta Antzuolako Udalaren arteko parte hartze programan atxikitzea. Luis Javier Telleria jeltzaileak azaldu zuen programa honen helburua foro bat sortzea dela eta Diputazioaren eta udalen arteko bitartekari lanak erraztea eta arintzea. "Bilgune bat, topaleku bat sortzea da funtsa. Izan ere, Gipuzkoako udalaxe askotako zinegotziak une

**ABELTZAINZARAKO ZENBAIT PROIEKTU AURRERA ERAMAN AHALKO DIRA BEHIN ARAUDIA ALDATUTA**

oro Aldundira joaten dira harremanak sortu nahian edo herritarako askotariko proiektuen gaineko diru laguntzak lortu guran. Modu horretan eta harremanetarako bilgune bat sortuz gero, bidaiak murriztu eta arinduko lirarteke harremanak sortuz".

Beñardo Kortabarria alkateak parte hartzea EH Bilduren oinarri nagusia dela gogorarazi zuen: "Parte hartzea da EH Bilduren oinarri nagusienetako bat. Herriarendako herriarekin gobernatzen dugu; berez, ondo iruditzen zaigu denondako antzerakoa izango den Gipuzkoa mailako marko bat". Baina EH Bildu kritikiko ere azaldu zen: "Iruditzen zaigu goitik behera etorri den zerbait dela. Azken unera arte udalekin ez da asko kontatu. Praktikan, gainera, parte hartzearen gaineko diru laguntzak beheraka joan direla ere ohartu gara". Ideia hau oraindik zehaztu gabeko ekimena dela ere azaldu zuten.

## Antzuolako emakume langileak ikusarazteko erakusketa

Gaur egungo eta antzinako emakume langileen gaineko erakusketa antolatu du Gizarte Zerbitzu Sailak

**M.A. ANTZUOLA**

Martxoaren 8aren bueltan, *Antzuolako emakumea lanean* gaia oinarri hartuta, erakusketa antolatzen dihardu Gizarte Zerbitzu Sailak. Helburua da Antzuolako emakumea lanean ari dela -etxean edo kanpoan- erakusten duten argazkiak batzea. Herritarrei dei berezia egin gura zaie parte hartzeko eta erakusketa osatzen laguntzeko. Argazkiak udaletxera eraman daitezke otsailaren 17a baino lehen. Momen-

tuan eskaneatu eta originala itzuliko zaie.

### Nolako argazkiak

Emakumea lanean jasotzen duen edozein argazki balio du. "Hau da, gaur egungoak edo lehenagoak, etxean edo kanpoan agertu daiteke, zenbat eta lanbide edo arlo desberdin gehiagoko argazkiak jaso, adin eta belaualdi desberdin gehiago azaldu, orduan eta hobeto", azaldu du Gizarte Zerbitzuak.



Haginlaria den emakume antzuolarra. ANTZUOLAKO UDALA



JABIER ETXANIZ

## Saharako haurrei laguntzeko

**Goiena komunitatea / Anelkar / ANTZUOLA**

Euriari aurre eginez ahotsak berotu ditugu Santa Ageda bezperan. 60 lagun inguruk, tartean gaztetxo dezentek, herriko kaleetan barrena koplak abesteko ohitura mantendu dugu. 795 euro jaso ditugu eta oporretan Saharako haurrak gurera ekartzeko izango da. Mila esker!



Bergaran iaz Lokatzak antolatutako bizikleta festa. GOIENA

# Bizikleta zaletasuna sustatzeko ekimena

Lehenengoz egingo dute Antzuolan bizikleta festa. Helburua da herriko txikitxoan artean txirrindularitza sustatzea eta herritarren artean kirola egitearen aldeko apustua sendotzea. Izena egunean bertan emateko aukera izango dute antzuolarrek

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Herrian kirola sustatzeko asmoz antolatu dute, lehenengoz, bizikleta festa. "Kirol hitzarmenaren helburuetako bat herrian kirola sustatuko duten ekintzak antolatzea da. Hau kontuan hartuta, Bergarako Lokatza elkarrearen inizatiba bat izen da ekintza hau Antzuolara ekartzea. Elkartearen ezagutzera eman eta

Antzuolako haurren artean bizikleta mundua sustatzea, alegia", kontatu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Bizikleta festa bihar 16:00etan hasiko da eskolako patioan. "Ginkana ezberdinak egongo dira, 2 urtetik gorako haurrentzat. Lokatzakoek, gainera, gaztetxoaren tamainara egokitutako errepideko bizikletak ekarriko

dituzte, proba ditzaten. Haurrengan txirrindularitza zaletasuna piztea gura dugu". Norberak kaskoa eta motorra edo bizikleta eraman beharko du.

## Txirrindularitza sustatu

Bergaran urteak daramatza Lokatza elkarteak bizikleta zaletasuna sustatzeko ekimenak antolatzen. Antzuolan ere gaztetxoei kirol hau ezagutzera ematea du helburu. Baita elkarre bera ere: "Gaztetxoak motibatu daitezten, bailarako txirrindulari profesionalak gonbidatu ditugu. Hala, Eneko Lizarralde bergararra etorriko da. Eta, nola ez, antzuolarra den Mikel Arregi ere bertan izango da. Aritz Kortabarria herritarra, ordea, Iparraldean lasterketa dauka eta ezingo du parte hartu", azaldu du Lokatzako Jon Unamunok. "Gura dutenek, gainera, Lokatza izena emateko aukera ere izango dute".

Otsailaren 18an Bergaran egingo dute bizikleta festa.

## Aurten ere mozorro desfilea egingo da Aratuste-domekan

Aratusteetako herri bazkarira joateko txartelak salgai daude udaletxean eta liburutegian otsailaren 17ra arte

### M. A. ANTZUOLA

Aratuste-domeka otsailaren 26an ospatuko da. Aurten, gainera, bigarren, mozorro festa egingo da bazkalostean.

10:00etan Oinarin taldeko dantzariak eta herritarrek kalejira egingo dute. Bi talde ibiliko dira: bat plazan gora eta bestea plazan behera. Talde batek sorgin dantza egingo du. Talde horrekin batera ibiliko dira Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea-Tximinoa Antzuolan soilik irteten den pertsonaia da-. 12:30ean, saio nagusia egingo da plazan eta Antzuolako Aratuste dantzak izango dira ikusgai.

### Bazkaria pilotalekuan

14:30ean bazkaria egingo da pilotalekuan eta txartelak salgai daude udaletxean eta liburutegian otsailaren 17ra bitartean. Bi menu daude aukeran. Lehe-

na 16 eurokoa: entsalada mistoa, paella tradizionala oilaskoarekin eta goxua-Bergarako gozotegiek egindako postrea- eta kafea eta likoreak. Bigarren menua, 12 eurokoa: paella tradizionala eta goxua. Bazkariko mahai eta jarlekuak bazkaltiarren artean muntatu eta jaso behar dira-muntaia egiteko, 11:30ean pilotalekuan-. Bazkaltzeko, txartela eskatuko da; beraz, bazkaltiar bakoitzak txartel bat izan beharko du. Txartel barik ezingo da pilotalekuan sartu.

### Mozorroak eta txaranga

16:30ean mozorro jaia eta txaranga saioa egingo dira. Mozorro festan nahi duenak har dezake parte eta nahi duena egin dezake: desfilea, koreografia... Talde onenarentzako saria egongo da. Musika txaranga jarriko du, giroa borobilduta.

## Mugikortasun diputatu Marisol Garmendiaren hitzaldia egunean

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatu Marisol Garmendiak Antzuolako bidegorriaz eta plan orokorraz jardungo du. Garmendia diputatuaren solasaldia otsailaren 16an izango da-ordua zehazteke-Olaran etxean. Herritarren zalantzak argitzera eta informazioa ematera etorriko da, besteak beste, Mugikortasun diputatua.

## Arnasguneen tailerra egingo du Uemak martitzenean

Euskararen arnasguneen tailerra egingo du Uemak otsailaren 14an, martitzena, 18:30ean, Olaran etxean. Izan ere, Antzuolako herria arnagune identifikatua dauka Uemak. Bada, Udaleko Euskara Sailak gazteen euskara erabilera indartzeko ahalgin berezia egiten dihardu, Antzuolak euskararen arnagune izaten jarrai dezan.

## Izen-ematea, eskolan

Lokatza elkarteak zapatuan, otsailak 11, egunean bertan eskolako patioan jarriko duen mahaiaren eman ahalko dute parte hartzaileek izena. 15:30 aldera zabalduko dute izen-ematea. 2 urtetik gorakoek izango dute aukera bizikleta festan parte hartzeko. Gogoratu etxetik eraman beharko duela norberak bere kaskoa eta bizikleta edo motoa.



Izen-emate mahai. GOIENA

## MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

# LARREA

## TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Martitzenetan arrain freskoa Ondarroatik


Aurrerantzean Guillermo Burgoa arrain saltzailea astean behin etorriko da Elgetara. Gustura dago herritarrek martitzen goizean egindako harrerarekin. Ezaguna da herrian; urte askotan ekarri izan du arraina Kontxi Bolinagaren arrandegira

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Martitzen goizean berehala zabaldu zuen arrandegia Guillermo Burgoa ondarrutarrak. Ondo prestatutako ibilgailua dauka. Udaletxe aurrean aparkatu, ur iturrira konektatu, eta aldeetako batean duen estalkia gora igotzea nahikoa izan zuen salmenta postua martxan jartzeko. Urtarrilean itxi zuen arrandegia Amagoia Irazabalek, eta, aurrerantzean, astean behin ekarriko du Burgoak arrain freskoa herriara. "Plazan izango gara martitzenetan 09:00etatik 13:00etara, gutxi gorabehera. Ez dugu haztegiko jenerorik ibiltzen, eta Ondarroako portuan sartzen den arraina ekarriko dugu, garaikoa eta freskoa", azaldu du Burgoak. Legatza, lupia, oilarra, zapoa, mihi-arraina, izokina, bakailaoa, txibiak... ekarri zituen martitzenean. "Harrera polita izan dugu gaur, baina uste dut jende gehiago ere etorriko dela. Batzuek ez zekiten etortzekoak

ginela", azaldu du arrain saltzaileak. Burgoaren esanetan, herri txikietan asko estimatzen dute zerbitzua. "Astelehenetan eta barikuetan Berriatuan izaten gara, eguaztenetan Berastegin eta eguenetan ostalaritza asko izaten dugu. Koinatua eta biok

ibiltzen gara, eta herri txikietan oso pozik hartzen dute zerbitzua". Lehenengo eguna izateagatik prezioetan eskaintza bereziak egin dituen galdetuta, ezetz esan du arrain saltzaileak. "Prezio egokiak jartzea garrantzitsua da. Bezeroak ez dira inozoak".



Arrandegi ibiltaria, martitzen goizean, Elgetako Mendizaleen plazan. L.Z.




**GUILLERMO BURGOA**  
ARRAIN SALTZAILEA

"Pozik gaude. Harrera ona egin digute elgetarrek. Ezagunak gara herrian. Lehenago ere arrain asko ekarri izan dugu bertako arrandegira".




**ARANTZA ARRIETA**  
HERRITARRA ETA BEZEROA

"Hutsune handia zegoen herrian eta primeran dator zerbitzua. Arrain ona ekarri du eta prezio onean. Aspalditik ezagutzen dut, oso gizon langilea da".



**ALEX ARANTZABAL**  
HERRITARRA ETA BEZEROA

"Zerbitzu garrantzitsua da eta Guillermo elgetar askorendako da ezaguna. Arrandegi oso ona da eta ekarri duen jeneroa oso ona iruditu zait".



**ANA ROYUELA**  
HERRITARRA ETA BEZEROA

"Asko gustatu zait ekarri duen arraina. Prezioak ere onak dira. Gainera, ondo prestatuta ikusten ditut. Legatza erosi dut herritik irten beharrik izan gabe".

## Ibilgailuen abiadura murrizteko lanak Pagatza industrialdean

Bi irlatxo egiten ari dira Elorrioko errepidetik datozen ibilgailuen abiadura murrizteko helburuarekin

**L.Z.** ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundia ari da Pagatza industrialdearen sarrera nagusiaren parean lanak egiten. Elorrioko errepidetik datozen ibilgailuen abiadura murriztea da helburu nagusia. Iraitz Lazkano alkateak azaldu duenez, Elgetako Udalak orain dela urte eta erdi egin zuen puntu horretan segurtasun neurriak hartzeko eskaera. Industrialdean sartu gura duten kamioiek, batzuetan, alderik alde gurutzatu behar dute errepidea, eta oinezkoendako ere ez da leku segurua.



Lanak industrialdeko sarreran. L.Z.

Industrialdeak bi gune ditu eta errepideak zeharkatzen du. "Gaur egun dagoen biribilgune erdi hori biribilgune egiteko eskaera egin genuen. Foru Aldundiak ez du proposamena ontzat hartu eta alternatiba da bi irlatxo egitea eta oinezkoendako pasabidea babestea", esan du Lazkanok. Lanek ez dute luze joko. Eguraldia asko petraltzen ez bada, aurreikuspena da hurrengo aste erdirako lanak amaituta egotea.

Lazkanok azaldu du irlatxoek ez dutela koskarik izango; hau da, ertzek txikitik handira egingo dutela era progresiboan. "Biribilgune erdi horretan egun dauden modukoak izango dira ertzak ibilgailuen gurpilak ez kaltetzeko, baina, bai edo bai, abiadura murriztu egin beharko da puntu horretan".

## En Tol Sarmiento, DJ Bull eta Trikizio, oraingoz, jaietarako

Udala hasita dago 2017ko Ferixa Nagusiko jaien antolaketarekin. Eguaztenean egin zuten jaietako musika taldeak aukeratzeko batzorde irekia. Bertan adostu zuten En Tol Sarmiento, DJ Bull eta Trikizio ekartzea. Barikurako ekarri nahi dituzte Elgetara En Tol Sarmiento eta DJ Bull. Arabako ska-rock taldea da lehenengoa, eta DJ Bull-Jon Gotzon Ugalde-musika jartzailer aski ezaguna da Debagoienean. Trikizio taldea, berriz, egunerako aurreikusten dute. Folk, rock eta ska estiloetan diharduen musika taldea da. Zapatuko emaldia zehazteko dago. Jai batzordeak jakinarazi du hainbat aukera daudela aztertzeko.

## OHARRAK

### Gaztelekua

Zapatuan, 16:30ean, grafiti tailerra egingo dute Oier Peñagarikanorekin. Domekan, berriz, *Berdinen arteko harremanak* tailerreko azken saioa dago. Ate irekiak dira.

### Korrika batzordea

Martitzenean, hilak 14, batzar irekia, udaletxean, 19:00etan.

### Podologoa

Erretiratuendako kontsulta hilaren 16an izango da. Txanda hartzeko: 943 768 077.

### Errekreazioa

Apirilaren 23ko fronteko errekreazioarako boluntarioak behar dira. Zabalik da izen-ematea ohiko tokietan.





Hiru pilotuak, kopilotuekin. ASIER UNZETABARRENETXEA

# Herriko pilotuen aldeko festa datorren zapatuan

Asier Unzetabarrenetxea, Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua hiru pilotu elgetar dira; martxoaren 5ean hasiko dute denboraldia, eta, gastuei aurre egiteko laguntza lortzeaz gain, kirol hau ezagutaraztea eta herrian giro polita sortzea gura dute

**Eneko Azurmendi** ELGETA

Ostailaren 18an, zapatua, Mendi mendia Racing jaia egingo da Elgetan, "herrian giro ona sortzeaz gain, gure kirol hau ezagutarazi eta 2017ko denboraldiko gastuari aurre egiteko laguntza bat lortzeko" helburuarekin, Asier Unzetabarrenetxea pilotuetako baten esanetan. Azken honekin batera, Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua ari dira auto munduan.

Martxoaren 5ean hasiko dute denboraldia, Gabiriako rallysprintean. Aurten, gainera, hiru pilotuak kategoria berean lehiatuko dira, R4 taldean. "Iaz kategoria ezberdinetan aritu ginen, baina aurten antzeko autoak ditugu hirurok eta kategoria berean ariko gara, lehia polita izango dugu", adierazi du Unzetabarrenetxea. Kategoria horretan, pilotuaren esanetan, aldaketarik jasan gabeko autoek hartzen dute parte. "Ezin dira ez motorra ezta auto beste hainbat pieza ere aldatu. Behin

aldatuta, beste kategoria baten lehiatu behar izaten da".

Autoei dagokionez, Unzetabarrenetxeak BMW e30 325i bat dauka; Beretxinagak, BMW e36 325i bat; eta Sarasuak, berriz, Opel Astra GSI bat.

**Lasterketa guztiak, ezin**

Unzetabarrenetxearen esanetan, denboraldian zehar 38 lasterketa inguru izaten dira eta guztietan parte hartzea ezinezkoa da haien zat. "Oso garestia da denboraldiko lasterketa guztietan parte hartzea, diru asko gastatzen da", adierazi du. Beraz, ahal duten eta gustuko duten lasterketetan parte hartzen dute. "Debagoien mailan, parte hartzen dugun lasterketak Gorlako Igoe-

**HERRIKO HIRU PILOTUAK KATEGORIA BEREAN ARITUKO DIRA AURTEN: R4 TALDEAN**

ra, Udanako Igoera, Udalako Igoera eta Aramaioko rallysprinta dira. Horiez gain, beste lasterketa batzuetan ere hartzen dugu parte".

Hiru pilotuek kopilotuak ere badituzte. Unzetabarrenetxearena Ibon anaia da. Beretxinagarena, Omer Garcia bergararra eta Sarasuarena, berriz, Koldo Olartua. "Igoeretan pilotua bakarrik joaten da. Baina rallyan eta rallysprintean kopilotuaren laguntza behar izaten du", zehaztu du Unzetabarrenetxeak.

**Bazkarirako sarrerak salgai**

Egun osoko egitaraua antolatu dute datorren zapatarako. Tartean, hiru autoen erakusketa, triki-poteoa, DJ Elvis Cainoren emanaldia eta bazkaria.

Bazkaria herriko kiroldegian izango da, baba-jana, eta 16 euro balioko du. Izena emateko azkeneko eguna otsailaren 14a da, martitzena, eta, horretarako, honako telefono honetara deitu beharko da: 608 67 64 42.

## "Ipuinen aukeraketa, lanketa eta kontaketa landuko ditugu"

**ENEKO HARITZA** IPUIN KONTALARIA

Kontalaritza tailerra eskainiko du herriko liburutegian

**E.A.** ELGETA

Ostailaren 15ean, 22an eta martxoaren 1ean, bina orduko hiru saio eskainiko ditu, 18:30etik 20:30era bitartean.

**Zer landuko da tailer honetan?**

Ipuinak kontatzen ikasteko tailerra izango da, ariketa praktikoetan oinarrituta, batez ere. Ipuinen aukeraketa, lanketa eta kontaketa bera landuko dira, ahozkotasanari begira, betiere. **Ze profiletako jendea joaten da mota honetako ikastaroetara?**

Oro har, nahiko harrera ona izaten dute eta mota guztietako jendea joaten da. Etxean haurrei kontatzeko modua pixka bat hobetu nahi duen jendea; ikusle kopuru handiago baten aurrean ipuinak kontatu nahi dituen jendea; jendaurrean ipuinak kontatzeko asmo berezirik ez duena baina ahozkotasuna hobetu nahi duena, eta abar. Hala ere, gurasoak eta irakasleak nabarmentzen direla esango nuke, eskolan eta etxean haurrei ipuinak kontatzeko.

**Oro har, euskarazko ahozkotasuna hobetu nahi duen oro dago gonbidatuta, beraz?**

Hala da. Kontuan izanda tailerra euskaraz dela, norberak ikusi



Eneko Haritza. HARITZA.EUS

behar du. Ni ohituta nago horrelako jendearekin aritzen; beraz, ez dago arazorik alde horretatik, giro ona egoten da.

**Denbora asko daramazu honetan? Zer zailtasun dauka?**

2011n hasi nintzen eta dirudiena baino askoz zailagoa da, ondo landu beharreko teknika bat.

**Ze mezu helaraziko zenieke elgetarrei tailerlean parte hartzeko?**

Gai honekiko interesa badaukate, etor daitezela, guztien artean tarte atsegina pasatuko dugulako, aurrera begirako gako batzuk eskainiz.

## Rock-and-roll klasikoaren bertsio akustikoak, Bikustik-en eskutik

Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatutako bikoteak kantu ezagunen bertsioak eskainiko ditu bihar Spaloian

**E.A.** ELGETA

Creedence Clearwater Revival, The Beatles, Queen, Rolling Stones, Led Zeppelin eta beste hainbat talde klasikoaren bertsio akustikoak eskainiko dituzte Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak bihar, zapatua, 19:30ean, Spaloia antzokian. "Abesti guztiak ingelesez dira. Azkenaldian, Su Ta Gar taldearen *Itxaropena* ere jotzen ari gara, baina gaintzekoak ingelesezko abestiak dira", azaldu du Zabaletak.

Emanaldiari dagokionez, "aspaldiko" abestiak izan arren,

umeekin joateko ere gomendagarria dela adierazi du Zabaletak. "Gainera, Jonen ahotsa benetan ederra da, guztiz entzungarria. Abesti *rockeroak* moldaketa akustikoan entzutea gauza bikaina dela iruditzen zait", dio.

Zabaletak gitarra jotzen du eta Gurrutxagak abestu. "Abestiaren arabera, biok jotzen dugu gitarra edo nik bakarrik, eta batzuetan koru batzuk ere egiten dizkiot", dio Zabaletak. Ukelearekin ere jo izan dute.

Ordu eta erdi inguruko emanaldia izango da biharkoa.



Etziko irteerara Lekaixoka zapi berdeekin joatea animatu gura dituzte herritarrek antolatzaileek. M.A.

# Kilometroetako ibilbidea probatuko dute domekan

11:00etan izango da zinta mozketa Txantxiku Ikastola aurrean eta irailaren 24an egingo den zirkuituaren zati bat egingo dute. Ibilbidea guztiendako egokia izatea gura dute antolatzaileek eta Trauti elkarteak ere joango dira etziko irteerara

## Oihana Elortza OÑATI

Kilometroak festa egunera begira, lehen proba egingo dute etzi, domekan: Kilometroak Txikia. Asmoa da irailaren 24an egingo den Kilometroak jairako prestatzen dabiltzan ibilbidea proban jartzea.

Ibilbidea Txantxiku Ikastolan hasiko da, 11:00etan egingo den zinta mozketaarekin, eta Aloñaren magalean barneratuko da gero: Bidebarrietatik Santa Lutzia igoko dira, gero San Martinetik eta Kale Barritik jaitsi eta Foruen plazan amaitzeko. Ibilbidea osatzeko ordu eta erdi beharko dutela aurreikusten dute antolatzaileek. "Ez da izango irailaren 24ko ibilbide berdina. Hark sei kilometro eta erdi inguru izango ditu eta domeka-koak bi gutxiago, gutxi gorabehera", azaldu du Malen Ugartek, Kilometroak 2017ko koordinatzaileak.

Ibilbidea herritar guztiek egiteko modukoa izatea gura dute antolatzaileek eta horregatik,

Trauti elkarteak kideak ere gonbidatu dituzte, ibilbidea probatzeko eta mugikortasun zailtasunak dituztenendako egokia den edo ez frogatzeko.

## Bertakoak

Guztira hamasei talde daude Kilometroak festa antolatzen. Horietako bat zirkuituarena da, baina ibilbidea beste talde batzuekin batera zehaztu dute: trafikoa, ikuskizunak, erronka, protokoloa eta muntaia taldeak.

Domekako irteera alaia izango dela ere aurreratu du Malen Ugartek: "Herritar guztiak daude gonbidatuta, noski, eta eurekin batera egingo dute ibilbidea txistulariek, erraldoiek eta dantzariak ere". Kilometroetako

**IRAILAREN 24KO  
IBILBIDEAK 6,5  
KILOMETRO IZANGO  
DITU, ETA ETZIKOAK BI  
GUTXIAGO**

jantziekin joateko gonbidapena egin die Ugartek herritarrei. "Jaiko jantziekin joan gura duenak, oso ondo. Guk zapiak janztera animatuko ditugu. *Lekaixoka* zapi berdeak, alegia".

Ibilbidearen bukaerarako ekin-tzak ere antolatuta dituzte. Foruen plazan jolasak egingo dira ume eta gaztetxoendako eta taberna edo txosna bat ere jarriko dute. "Jatekoak eta edatekoak egingo dira salgai txosna horretan; sagardoa, txakolina, txorizoak edo gazta, adibidez. Produktu guztiak izango dira bertakoak, herrikoak", zehaztu du koordinatzaileak.

## Martxoan

Domekako ekitaldiaren ondoren, Inauterietakoa etorriko da. "Ordurako ere herri osora zabalduko ekin-tza antolatu dugu eta martxoko egitaraua ere erabat lotuta dugu. Oso indartsua izango da datorren hilabetea, ekin-tza asko egingo dira", aurreratu du Malen Ugartek.



Astelehenean jarri zuten martxan zerbitzua, aurkeztu eta berehala. E.A.

## Erosketak eramaten ditu etxera kalean dabilen auto elektrikoak

EderMobilityServices eta SD Logistica enpresen arteko proiektua da eta hiru hilabetez egongo da martxan

## Eneko Azurmendi OÑATI

Astelehenean jarri zuten martxan EderMobilityServices eta SD Logistica enpresen artean aurrera eramandako proiektua; auto elektrikoak erabiliz, herriko komertzioetan erositako produktuak etxean jasotzeko aukera eskaintzen du.

Herriko 20 komertzioek dagoeneko baiezkota eman diote zerbitzu hori erabiltzeari eta kopurua handitzea da sustatzaileen asmoa; bilerak egingo dituzte dendari-ekin, proiektua azaltzeko. Eguneroan erosten diren produktuen komertzioak dira izena eman duten gehienak –harategiak, fruta dendak...-. Hala ere, beste negozio mota batzuk ere badaude. "Adibidez, lore dendak eta dekorazio dendak ere badaude. Gure helburua da, hasiera baten, behintzat, Oñatin dauden komertzio gehienak ukitu eta, interesa badaukate, proiektuan sartzea",

adierazi du Igor Ezpeletak, EderMobilityServices-eko proiektu arduradunak. Zerbitzuaren ordutegia da: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

## Proba

Hiru hilabetez egongo da martxan zerbitzua, bideragarria den edo ez aztertzeko. "Gure helburua da hiru hilabete hauetan aztertzea ea egokiak diren autoa, tamaina, ordutegia, prezioak, materiala, eta abar. Hori dena aztertu gura dugu", dio Ezpeletak. Horrez gain, "teknikoki posible den, enplegua sortzea posible den, bolumena dagoen, herritarrek erabiltzen duten eta komertzioei interesatzen zaien" ere aztertu gura dute proiektuaren sustatzaileek.

Oñatin jarri dute martxan, baina beste herri batzuetara zabaltzeko asmoa dute, hiru hilabeteko proba gaindituz gero.

## Otsaileko odol ateratzea gaur da MUKo fakultatean

Gaur, egubakoitza, egingo dute otsailerako odol ateratzea. 17:00etatik 19:00etara izango da MUK Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean. Euskadiko Odol Emaileen elkarteak, gainera, deialdi berezia egin du emaileak odola ematera joan daitezen, eguraldi txarrak eta sasoiko infekzio birikoek jaitsi egin dutelako azken ateratzeen kopurua.

## Nagusiendako bisita gidatu berezia zapatuan Arrikrutzen

Nagusiendako espeleoabentura irteera antolatu dute Arrikrutz koban zaturako. Ohiko bisitan ikusten ez diren hainbat galeria ezagutzeko aukera eskaintzen duen irteera gidatu berezia izango da. Tartean, Arrikrutze eszentrika ikusiko da. 09:30an hasiko da bisita, baina plazak mugatuak dira eta komeni da izena aurrez ematea: 943 08 20 00.

# Biodibertsitatea eta okila ardatz bi astez

Otsailaren 15ean hasiko dira Oñatiko Natur Eskolak antolatutako aurtengo Ingurumen Jardunaldiak, eta, aurreko urteetan bezala, hitzaldiak, filmak, erakusketa eta irteera antolatu dituzte. Zineklubeko eta Aloñako Lagunak elkarteko kideek ere bat egin dute

## Oihana Elortza OÑATI

Biodibertsitatea da aurtengo Ingurumen Jardunaldietan landuko duten gaia. Ikastetxeetan ere hori ari dira jorrotzen aurtengo, Agenda 21 programaren barruan, eta horregatik aukeratu du natur eskolak gai hori. "Biodibertsitatea, baina, ez da naturan espezie asko egotea bakarrik. Espezieen arteko harremanak edo oreka ere bada. Adibidez, okilak enborretan egiten dituen habiak, zuloak, beste animalia batzuek ere aprobetxatzen, erabiltzen dituzte; muxarrek, esaterako. Hori da biodibertsitatea zer den ikusteko adibide garbi bat, eta, horregatik, gaiaz beraz gain, okila izango da aurtengo jardunaldietako beste ardatza", azaldu du natur eskolako Idoia Bollarrek.

## Zazpitik bost

Euskal Herrian zazpi okil mota bizi dira egun eta horietako bost



Okil mota ezberdinak ikusiko dira egunean zabalduko duten erakusketan. FLICKR

atzeman eta ikusi dituzte Oñatin. "Mendira edo herri ingurueta berdeguneetara joanez gero ikus daitezke okilak. Ez dut esan gura joaten garen aldiro ikusiko ditugunik, baina ikustea ez dela arra-

roa bai. Olapotoko hariztian, esaterako, ikusten dira. Eta baita entzun ere, mokoarekin egurra zulatzen", dio Bollarrek.

Antolatu dituzten ekintzen artean, irteera bat egingo dute okilak ikustera. Martxoaren azkeneko asteburuan izango da eta joan gura duenak izena eman behar du aurretik natur eskolara deituta, telefono zenbaki honetara: 943 71 64 04.

Datorren egunetik martxoaren 5a arte kultura etxean zabalik egongo den erakusketan ere ikusiko dira okilak. Haien gaineko informazioa jasoko duten panelak egongo dira, baita okilen irudiak ere. Aurtengo bisita gidatu bereziak egingo dituzte ikastetxeetako ikasleekin. Baita nagusiekin ere. "Joan den urtean eurek eskatu ziguten egitea. Bi egin ginen eta arrakasta izan zuten. Pozik gelditu ginen guztiok. Horregatik, aurtengo ere egingo ditugu", aurreratu du Idoia Bollarrek.

Zuhaitz azoka eta landaketa ere egingo dituzte aurtengo. Hitzaldietan, berriz, Oñatira behin baino gehiagotan etorri diren hizlariak eta jardunaldiak lehenengo aldiz ikusiko dituztenak. Hitzaldi guztiak kultura etxean izango dira.

## Bi oñatiar IISJk aurtengo egingo dituen mintegi eta ikastaroetan

Mintegietako bat Miren Maniasek koordinatuko du eta Gorette Madinak udako ikastaroa gidatuko du

### O.E. OÑATI

Apirilean hasiko dira Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen 2017ko mintegiak. Hamabost egingo dituzte guztira, eta, beste behin, nazioarteko koordinatzaileak eta parte-hartzaileak etorriko dira Oñatira.

Mintegietako bat Miren Maniasek koordinatuko du, Lucero Ibarrarekin batera. Kultur eskubideak eta aniztasuna izango da mintegi horren gai nagusia. EHUko udako ikastaroen babesean antolatu duten udako ikastaroan, berriz, Gorette Madinak parte hartuko du. Abokatutza lokala eta globala aztertuko dituzte ikastaro horretan, eta lokalari buruzko gidari lanak egingo ditu Madinak.

Aurtengo mintegi gehienak zuzenbidea eta gizarte elkartzaren eremukoak izango dira; adibidez: preso ohien eskubideak

birgizarteratzean, immigrazioaren kriminalizazioa, generoa eta feminismoaren ikuspegia eta klinika juridikoa. "Koordinatzaileak eta parte-hartzaileak munduko herrialde ezberdinetatik etortzen dira. Proposamenak egiten dituzte eta patronatuak onartzen ditu. Aurtengo, esaterako, 40tik hamabost onartu ditu", dio Jose Ramon Bengoetxeak, EHUko irakasle eta patronatuko kidea. Euskal Herriko gero eta proposamen gehiago jasotzen dituzte.

### Ezaguna

Bengoetxearen esanetan, horrek esan gura du Oñati mundu osoan dela ezaguna: "Oñatiko erakunde munduan kokatuta dagoela esan gura du horrek, ezaguna dela. Zuzenbide eta gizarte gaietako munduko ikerlari guztiek, edo ia guztiek, ezagutzen dutela".

## Herribusa, San Martinera

Astelehenera, San Martin auzoraino helduko da herribusa. A lineak txandaka egingo ditu Elkar Hezi-Eroski eta San Martin geltokiak; ordu batean batera joango da eta hurrengoan bestera. Elkar Hezi-Eroskira igoko ez den orduetan, Arantzazuko Amako biribilgunean geldituko da, erabiltzaileek bi gune horiek gertuago izan ditzaten.



O.E.

## Ludoteka ibiltaria Olakua auzora doa bihar goizean

Txaloka ludoteka ibiltaria Olakua auzora joango da bihar, zapatua, goizean. Pizza tailerra eta jolas erraldoiak egingo dituzte han 3 eta 10 urte bitarteko ume guztiendako. Olakuako dorrearen ondora eramango dituzte beharrezko osagai guztiak eta umeekin jolas egingo dute begiraleek 10:30etik 13:30era.

## Euli-arrantza ikastaroa antolatu du Pago Uso elkarteak

Pago Uso elkarteak euli-arrantza ikastaroa antolatu du. Otsailaren 26an izango da, baina aurretik eman behar da izena. Alzu dendara joanda edo hara deituta eman behar da izena eta azkar egitea komeni da, plazak mugatuak dira eta. Ez da beharrezkoa ikastarora materiala eramatea, baina eroan daiteke.

## Egitaraua

### Otsailak 15

- 19:00 Biodibertsitatea, kopuru aniztasuna baino zerbait gehiago hitzaldia.

### Otsailak 21

- 19:00 Okilak; basoko arotzen inguruko biodibertsitatea, hitzaldia.

### Otsailak 22

- 19:00 Bosques viejos de Europa. ¿Existen?, hitzaldia

### Otsailak 23

- 20:00 La tortuga roja, zineklubean

### Martxoak 1

- 19:00 La caza mayor: euforia poblacional y problemas de gestión, hitzaldia

### Martxoak 2

- 20:00 Mañana, zineklubean.

### Martxoak 3

- 19:00 Ekofeminismoa; deconstruir para construir alternativas, hitzaldia

### Martxoak 4

- 09:00 Zuhaitz azoka, Foruen plazan

### Martxoak 5

- 10:00 Zuhaitz eguna, Foruen plazan

### Martxoak 12

- 10:00 Zuhaitz landatzea, Unaimendin

### Martxoak 25-26

- 10:00 Irteera



Intz Gomes eta Kirian Martin epaile oñatiarrak, Azkoagain futbol zelaietan. MIREIA BIKUÑA

# Intz Gomes eta Kirian Martin, bi epaile oñatiar

Gomesek zortzi urte daramatza futbol epaile lanetan eta erregional lehenengo mailara arte arbitratzeko gaitasuna du, bere fitxagatik; Martin, berriz, hasiberria da, eta, oraindik urtebete daraman arren, gogotsu dago mundu honetan jarraitzeko

## Eneko Azurmendi OÑATI

Arrazoi berak eraman zituen biak futbol epaile izatera. "Guztiok ez dugu futbolari onak izateko zortea, eta, azken finean, epaile lana ere futbolaren parte da", dio Gomesek. Martin futbolari hasi zen, Aloña Mendi taldean. "Baina ez nuen askorik jokatzen eta epaile izatea erabaki nuen", berretsi du.

Martinek 16 urte ditu, eta, esan bezala, urtebete darama epaile. Oraindik ikasten ari da. "Proba moduan ari naiz eta orain kategoria txikiak komeni zaizkit, partidu errazagoak direlako". Azterketa teorikoa gainditu du eta orain futbol zelaietan ari da jartzen praktikan arlo praktikoa. "Ikusiko dugu proba gaintzen dudan eta noraino heltzen naiden. Baina gogotsu nago eta progresio bat edukitzea gustatuko litzaidake", onartu du.

Gomesek 22 urte ditu eta zortzi urte daramatza epaile. Beraz, eskarmentu handiagoa dauka. "Zenbat eta urte gehiago eraman

honetan, orduan eta ezagunagoa zara, gehiago ezagutzen zaituzte eta badakite zure lan egiteko modua zein den. Horrenbestez, zuregana errazago jotzen dute", azpimarratu du. Edozelan ere, mota guztietako partiduak izaten direla dio eta lekuak ere eragina daukala nabarmendu du. "Denetarik dago. Zelai batzuetan oso gustura eta lasai arbitratzen duzu, eta beste batzuetan, berriz, edozein erabaki hartzen duzula, gainera etortzen zaizkizu".

Biak ados daude, epaitzeko orduan, jokalarien gurasoak izaten direla okerrenak. "Uste dute haien semea edo alaba lehen mailako jokalaria dela eta edozein erabaki hartuta ere, beti

**BIAK ADOS DAUDE  
EPAITZERAKO ORDUAN  
JOKALARIEN  
GURASOAK IZATEN  
DIRELA OKERRENAK**

edukitzen dute zerbait esateko", azaldu du Gomesek. Martinek gaineratu du beti ezin dela irabazi eta guraso askok hori ez dutela kontuan hartzen.

Aintzat hartu behar da erregional mailara arte, bakarrik arbitratzen dutela epaileek. "Marrain gabe arbitratzen dugu eta faktore oso garrantzitsua da hori. Jokoz kanpo izan dela eskatzen digute askotan, edota baloia marratik irten dela, baina guk ezin izaten dugu guztia ikusi, oso zaila da eta batzuetan sentsazioengatik hartzen dituzu erabakiak", azaldu du Gomesek.

## Teknologia futbolean

Azkenik, teknologia berriak futboleant aplikatzea izan dute hizpide. "Telebistarekin, mundu guztiak daki huts egin duzula, baina zuk ez. Alde horretatik, teknologia berriek laguntza handia eman diezagukete epaileoi. Hala ere, modu egokia aurkitu beharko litzateke joko askorik ez mozteko", dio Gomesek.



Txintxurreta, Murgiondo eta Umerez. XABI URZELAI

## Hiru oñatiar izango dira aurten txirrindularitzan amateurretan

Julen Umerezek bigarren urtea izango du eta Ekaitz Txintxurreta eta Xabi Murgiondo aurten hasiko dira

## E.A. OÑATI

Hiru txirrindulari oñatiar ariko dira aurtengo denboraldian amateur mailan. Umerez eta Murgiondo Ampo taldean ariko dira eta Txintxurreta, berriz, Debarrena taldean.

Umerezek bigarren denboraldia hasiko du aurten. Hala ere, belauneko arazoak direla eta, geroago hasi beharko du denboraldia. "Iaz ebakuntza egin zidaten meniskoan, baina ez zitzaidan ondo jarri. Orain arte, ahal dudan moduan entrenatu naiz, baina orain ebakuntza egin berri didate, eta, uda parterako lehiatzeko moduan egoten baina, albiste ona izango da", azaldu du.

Murgiondo gogotsu dago erronka berriari aurre egiteko, betiere, maila honi dion errespetua nabarmenduz: "Jendea beste maila batean dago, eta lehiatzeko modua ere oso ezberdina da.

Beraz, ikusiko dugu taldekideei laguntzeko eta lasterketak amaitzeko gai naizen, hori izango da helburua", onartu du.

Azkenik, Txintxurretak ere denboraldia hasteko gogoz dagoela azpimarratu du: "Hasierako asmoa da lehenengo lasterketetan kategoria berrira ohitzea, erritmora egokitzea eta, batez ere, ikastea. Hortik aurrera, ikusiko dugu noraino iristeko gaitasuna daukadan. Kategoria serioa da amateurra, maila handia dago, baina gogotsu nago", dio Txintxurretak.

## Garazi Erostarbe, junior mailan

Emakumezkoetan, Garazi Erostarbe oñatiarrak junior mailarako jauzia egingo du aurtengo denboraldian, eta Gipuzkoa-Ogi Barri taldearekin ariko da.

Iazko denboraldian, Caja Rural taldean izan zen Erostarbe, kadete mailan.

## Kadete mailako bi taldeak Euskal Ligara igotzeko fasean

Eskubaloian, Aloña Mendiko kadete mailako nesken A taldeak eta mutilen taldeak Euskal Ligara igotzeko fasea jokatuko dute asteburu honetan. Neskek Zumaian jokatuko dute eta mutilak Tolosan.

Bakoitzean, lau taldek jokatuko dute fasea eta horietatik bik lortuko dute Euskal Ligara igotzea. Neskei dagokienez, Pulpo,

Usurbil eta Urdaibai izango dira Aloña Mendiren aurkariak. Pulporen aurkakoa gaur, egubakoitzan, izango da, 19:00etan. Usurbilen aurkakoa bihar 17:30ean eta azkena, Urdaibairen aurkakoa, domekan 11:30ean.

Mutiletan, berriz, Barakaldo, Tolosa eta Elgoibar. Lehenengo partiduan Barakaldo hartuko dute, gaur, 19:30ean. Bihar, Tolosari egin beharko diote aurre, 12:00etan eta domekan, berriz, Elgoibarren aurka jokatuko dute oñatiarrek, 10:30ean.



Uxue Alberdi eta Andoni Egaña, ikuskizunean. GOIENA

## Bertsoarekin lotuta, bi hitzordu Gaztelekuan

VIII. bertso paper lehiaketako sari banaketa egingo da domekan, 17:00etan, eta Uxue Alberdi bertsolariak hartuko du parte; 19:00etan egingo da hark sortutako 'Kafkaren aulkia' ikuskizuna, Alberdi, Andoni Egaña, Pello Ramirez eta Mainer Arregirekin

### Miren Arregi OÑATI

Bertsoarekin lotutako bi hitzordu egingo dira etzi, domeka, Gaztelekuan. Lehenengoa 17:00etan izango da, VIII. bertso paper lehiaketako sari banaketa, hain zuzen ere, eta ondoren egingo da, 19:00etan, *Kafkaren aulkia* ikuskizuna. Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariak eta Pello Ramirez musikaria arituko dira. Eurekin izango da taula gainean, Mainer Arregi oñatiarra.

### Bertso paper kopuruak, gora

Guztira 129 lan aurkeztu dira aurtengo bertso paper lehiaketara. Oñatiko hiru ikastetxeetako ikasleek hartu dute parte lehiaketan. Lehen Hezkuntzako ikasleek 99 lan aurkeztu dituzte, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan 30. Lehen Hezkuntzako alorrean bost lan saritu ditu epaimahaiak; DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean, berriz, hiru. Azken kategorian honetan, hiru sariez gain,

aipamen bereziaren saria ematea onetsi du epaimahaiak.

### Aurtengo sarituen izenak

Esan bezala, bost lan saritu ditu epaimahaiak Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Hauek dira sarituak: Mainer Molinero Larrea; Hegoa Larrea Negeruela; Lide Arregi Markuleta; Garazi Uriarte Arregi eta Nahia Blazquez Zelaia.

DBHko eta Batxilergoko ikasleen kasuan, hauek dira sarituak: Bittor Zubiagirre Anduaga; Aitor Tatiegi Loidi eta Haritz Olaeta Barruso. Saririk gabe gelditu arren aipamen berezia egin diote Malen Osa Ansaren lanari. Aipatu guztiek ikasmateria eta herriko artisauen produktuak

**GUZTIRA 129 LAN AURKEZTU DIRA AURTENGO BERTSO PAPER LEHIAKETARA, IAZ BAINO GEHIAGO**

jasoko dituzte sari gisa. Gainera, aurtun, berrikuntza gisa, parte hartzaile guztiek eskuratuko dute sari txiki bat. Uxue Alberdi bertsolariak hartuko du parte sari banaketan.

### 'Kafkaren aulkia', ondoren

Horren ondoren, 19:00etan, Uxue Alberdi bertsolariaren *Kafkaren aulkia* izeneko proiektuaren emankizuna egingo da. Proiektuak bertsoa, musika eta olerkia uztartzen ditu bere baitan. Gaztelekuko taula gainean arituko dira Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariak, eta Pello Ramirez musikaria –horiek proiektuko protagonistak–, eta Mainer Arregi oñatiarra, idazlearen paperean. Hain zuzen ere, idazleak osatuko du ikuskizunaren ardatz izango den kontakizuna. Bertsolariak idazleak proposaturiko pertsonaia literarioen ahotik zein euren ahots propiotik kantatuko dute, "narratioari koloreak, atmosferak eta kanpo-begiradak gehituz".



Sharon Stoner taldea zuzenean Gaztelekuan 2013ko otsailean jotzen. IMANOL SORIANO

## Aspaldiko partez, zuzenean joko du Onatin Sharon Stoner-ek, bihar

Antixena gaztetxean da kontzertua. Gaur, egubakoitza, Joseba B. Lenoir eta Norman taldeek joko dute

### Oihana Elortza OÑATI

2013an hasi zuen geldialdia Sharon Stoner taldeak, baina kideek garbi zuten ez zela betiko izango. "Bueltatze prest gaudela ikusi dugunean, ez dugu zalantzarik izan. Bitartean, hala ere, beste proiektu batzuetan ibili gara", dio Egoitz Olalde.

Bost kontzertu dituzte buruan; horietako hiru, lotuta. "Gustura gaude eta hori da inportantea, bizirik gaudela", dio Iñigo Ibarrondok. Lehenengo emanaldia urtarrilaren 29an egin zuten, Donostiako Bukowkski tabernan. "Oso ondo joan zen. Gustura jo genuen", dio Ibarrondok. Biharko kontzertuan Gasteizko lagun batzuk izango dituzte ondoan. "Tutam Come On proiektua dute. Lagunak dira eta musika aldetik ere gertukoak. Bigarren disko kontzertuak prestatzen ari zirenean deitu ziguten eurekin

batera jotzeko. Kontzertu bakarra egin ordez gehiago egitea proposatu genien", azaldu du Iñigo Ibarrondok. "Kalean bat baino gehiago etorri zait esaten entzun duela Sharon Stoner bueltan dela eta kontzertura joango dela. Oso pozgarria izan da hori entzutea", dio Olalde.

Ibarrondok esan duen moduan, oraindik ez dute abesti berririk zuzenean jotzeko moduan, eta kantu zaharrak joko dituzte. Ernaik antolatatu du biharko kontzertua; 21:30ean hasiko da. Sarrera bost euro da. Beste talde batek Anestesiaren bertsoak joko ditu.

### Beste bi

Gaur, egubakoitza, bestalde, beste bi taldek joko dute Antixena gaztetxean, 22:00etan: Joseba B. Lenoir eta Norman-ek, hain zuzen ere.

### Txinparta 1 taldea Oinarri elkartearen lehiatuko da bihar

Txinparta 1 taldeak bihar, zapatua, egingo du herriarteko txapelketako lehen saioa. Oiarzungo Martzeliña taldearen kontra izango da, 20:30ean, Oinarri elkartearen. Afari formatuan egingo dute saioa. Talde hau Urretxu-Zumarragako aurka lehiatuko da hurrengo, eta Txinparta 2 Zizurkil-Asteasukoen kontra.

### Malirako izango da Ikusi Makusikoen antzerkian batutakoa

*Sala de espera* eta *Carta a Ramón* antzezlanak eskainiko dituzte Ikusi Makusi taldeko aktoreek zapatuan, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Batuko den dirua Maliko Togo herriko ikasleen elikadura ziurtatzeko proiektura bideratuko dute. Martitzenean, bestalde, elkartasunari buruzko hitzaldia egingo du parrokoak Pake Lekun, 17:30ean.



Jon Odriozola, astelehenean, Goienan, erredakzioan. IAGOBA DOMINGO

# "Proiektuak berandu baino lehen behar du azken bultzada"

**JON ODRIOZOLA** EUSKADI BASQUE COUNTRY MURIAS TALDEKO ZUZENDARIA  
Mallorcan eta Valentzian, bi lasterketa horietan hasi du Muriasek urtea, eta baita ondo hasi ere; Oñatikoaren ardura, baina, ez dago errepideko lanean bakarrik

**Xabier Urzelai** ARRASATE  
Hirugarren urtea egingo du Euskadi Basque Country Muriasek errepidean, eta hiru urte hauetan Jon Odriozola (Oñati 1970) ibili da gurdi horretatik tirakara. "Betikoa kontatzeaz" nekutzen hasita dagoela aitortu du, eta politikariek eskatzen dioten pazientziak mugak dituela antzematen zaio. Valentziako Itzulia amaitu eta etxerako bidean Donostian egin behar izan du geldialdia, bulegoetan ere lana dagoelako. Lan erabakigarria.

**Mallorcan hasi zenuten urtea, eta Valentziatik itzuli berri zarete. Gusura taldeak izandako hasierarekin?**  
Bai, oso pozik. Valentziako Itzulia sekulako maila egon da. Talde onenekin lehiatu gara, eta podiuma zapaldu dugu, gai-

**"TALDEAK URTE HASIERATIK HASTEN DIRA TOPERA, ETA ONENEKIN BORROKAN EGON GARA"**

nera; mendiko sariarekin, tarteko helmugekin... Ihesaldietan sartu gara... Eta, gainera, Gariquito Bravo onenekin borrokatu da.

**Elkarrizketa hasi aurretik aipatu duzu Espainiako Vuelta txiki bat izan dela Valentziako Itzulia.**

Azken urteotan txirrindularitza asko aldatu da. Lehen, taldeek lasai hasten zuten urtea, baina orain, denak urtarriletik dabil-tza topera. Pentsa zelako taldeak egon diren, Sky, BMC, Movistar... Pentsa, Quintanak irabazi du!

Eta gu hor egon gara borrokan, Cofidis, Direct Energy eta Caja Rural moduko taldeen aurretik. Hori garrantzitsua da guretako, eta erakusten du bide onetik gabiltzala.

**Pozgarria izango da Continental Pro mailako taldeak atzean uztea.**

Guk ere dagoeneko maila horretan egon beharko genuke, etxeko lasterketan parte hartzen [Euskal Herriko Itzulia], Espainiako Vueltan... Eta apurka-apurka Tourrera begira lan egin. Uste dut proiektua ondo landuta dagoela, bulegoetako lana ere oso aurreratuta dagoela, baina orain behar duguna da jendearen berotasuna, guztiona.

**Eta, zaleak, kazetariak, konturatzen gara lorpen horiek zenbat balio duten?**

Ez dakit zergatik, baina kosta egiten da hona iristea. Munduko lasterketa onenetan gaude, ziklista onenekin lehiatzen gara, telebistak zuzenean ematen ditu lasterketa asko, hor dago Eurosport... Baina etxean ez digute halako jarraipenik egiten. Eta pena da; izan ere, Euskal Herriko lurralde guztiak batzen dituen benetako euskal proiektua gara, baina guk ezin dugu gehiago egin. Euskadiren izena daramagu soinean, maillotetan, autoetan... Baina bultzada behar dugu.

**Urtarril amaieran aurkeztu zenuten taldea, Bilbon. Eta garai bateko Euskaltel-Euskadik egiten zituen aurkezpenen itxura hartu nion; talde handi itxura eman zenuten.**

Hori zen helburua. Babesleak izan ziren, garai bateko txapel-dunak, instituzioetako ordezkariak... Denak daude proiektuarekin ados. Baina hirugarren urtea daramagu hemen, eta beste pauso bat emateko ordua da.

**Talde profesionaltzat zaituztete.**

Eta zera esaten dut nik, hau ez dela talde profesional bat, hau herri proiektu bat dela, eta, gainera, euskal selekzio bat. Gurea da aukera bakarra munduko talde onenen kontra lehiatzeko, eta, behin hau ulertuta, uste dut erraza izango litzatekeela gauzak

**"HURRENGO PAUSOAK EUSKAL HERRIKO ITZULIAN EDO VUOLTAN LEHIATZEA IZAN BEHAR DU"**

zelan egin behar ditugun denon artean adostea.

**Tourra aipatu duzu lehen; hainbatetan elkartu zarete antolatzaileekin.**

Bai, hiru bat bider bai, eta oso batzar emankorrek izan dira. Frantzian jendearen errespetua lortu dugu, baita Tourreko antolatzaileena ere. Gainera, eurek euskal zaleak errekuperatu gura dituzte, Pirinioak ikurrinez beteta ikusi.

**Gurera etorrita, taldea debagoien-darrez josita daukazu: bergararrak, oñatiarrak, aretxabaletarrak...**

Hori ere polita da, kanpora joan lehiatzera eta ondoan konfiantzazko jendea daukazula ikustea, etxeko jendea.

**Etxeko ziklistak, Eneko Lizarralde eta Julen Irizar, Lokatzako harrobikoak biak. Zelan ikuste dituzu?**

Enekorendako hirugarren urtea da taldean, eta exijentzia maila igo egin da. Baina gauza politik lortu ditu. Egia da zorteak bizkarra eman diola, iaz gaixorik ibili zen, erorikoa izan berri du... Baina hor egoteko maila badu, eta izango du aukera erakusteko. Egia esan, konfiantza handia dut Enekorengan, nirekin egon da amateur mailatik eta daukana erakusteko zorte apur bat baino ez du behar.

**Julen Irizar iritsi berria da.**

Bai, sorpresa pozgarri horietako bat izan da. Gaztea, ilusioarekin, baina, horrekin batera, maila polita duela erakutsita. Profesional mailan lekua izateko gaitasuna ikusten diot. Egia da gazte horiek gurea moduko proiektuei esker irits daitezkeela horra, baina iristea ez da nahikoa, Euskadi-Murias bezalako proiektuak behar dituzte jarraipena izan dezaten.

**Joan den zapatuan egin zuten Aloña Mendikoek taldeen aurkezpena. Euren, Lokatza Ziklismo Eskolako, Dorletako Amakoen lanari esker iristen dira ziklistak horraino.**

Eta jasotzen dutena baino laguntza handiagoa jaso beharko lukete; hori guztia proiektuan jasota daukagu. Aurreko batean, asko gustatu zitzaidan Aloña Mendiko gazte mailako ziklista batek esan zuena. Ondo ibili da aurretan, eta kazetariak galdetu zion ea etorkizunean non egon gurako zukeen, Sky taldean... Eta zera erantzun zuen: "Sky? Ez, nik Euskadi-Muriasen egon gura dut". Bada, halako detaile txikiak ematen dute lanean jarraitzeko indarra.

# Derbia orain ere, beste protagonista batzuekin

**FUTBOLA** Aloña Mendik joan den astean Mojategin azken minutuan jasotako kolpea ahaztu gura du Aretxabaletaren kontura (domeka, 16:30, Azkoagain). UDAkoek ez dituzte gauzak erraztuko, Ordiziaren kontra ez zuten-eta gura moduko partidurik egin

## Xabier Urzelai ARRASATE

Bigarren astez jarraian ibarrekoen arteko derbia izango da Ohorezko Erregional Mailan, baina oraingoan oñatiarrak (18 puntu) eta aretxabaletarrak (34 puntu) izango dira protagonista. Lehenengo itzulian, Ibarren, Aretxabaletak ez zuen kontrariorik izan, erraz irabazi zioten Aloña Mendiri (3-0); Oñatikoa egiteke zegoen taldea zen, eta Iñigo Velezen Aretxabaletak ondo aprobetxatu zuen hori. Baina ordutik hona –eta, batez ere, etxean–, Gotzon Urzelairen taldea askoz ere lehiakorrago bilakatu da, eta Aretxabaleta aldean kontuan izango dute hori.

Bada, ikusteko dago derbiak zer emango duen, hiru porroten ostean oñatiarrek garaipena behar dutelako –ikusteko dago Mojategiko kolpetik ondo errekupekatzen diren– eta Aretxabaletak ere ezin duelako barkatzen jarraitu, ligako erreferentetako bat izaten jarraitu gura badute, behintzat.

**Mondrak Lasarten jokatu du** Elgoibarren eta Ordiziaren kontra garaipenik lortu ezinda egon ostean, Mondrak (37 puntu) *in extremis* irabazi zuen joan den astean Mojategin (1-0, 92. minutuan). Bigarren itzulia hasi



Zaitegi eta Irizar, 2013-2014 denboraldian, Azkoagainen. GOIENA

dutenetik, Zubiaren mutilak jabetu dira orain garaipen bakoitza izugarri borrokatu behar ko dutela, lehen itzulian ez bezala, talde asko atzean sartuko direlako. Eta itxura guztien arabera, domekan (10:30) Lasarte Orián Ostadarren kontra jokatu duten partidua halakoxea izango da.

## Bergarak Tolosaren bisita

Mahoneroak geldiezin daude. Azken hamar partiduetatik berderatzi irabazi dituzte, eta beste berdindu. Hala, bistan dago

kategoria txiki geratu zaiela, eta datorren urtean ibarreko gainontzeko taldeekin egongo direla, deskalabrurik ez badago. Bihar, zapatua, seigarren dagoen Tolosaren bisita izango dute (16:30, Agorrosin).

## Antzuolak bostetik lau irabazi

Antzuola ere ederto dabil igora fasean, jokatu duten bost partiduetatik lau irabazita. Multzoko liderrak dira –hamar taldek osatzen dute multzoa– eta bihar zortzigarren dagoen Touring izango da Estalan (16:00).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

#### Ostadar-Mondra

Domeka. 10:30. Lasarte.

#### Aloña Mendi-Aretxab.

Domeka. 16:30. Azkoaga.

ERREGIONAL PREF.

#### Mondra-Intxurre

Zapatua. 16:00. Mojategi.

#### Aretxabaleta-Idiazabal

Zapatua. 15:45. Ibarra.

#### Bergara-Tolosa

Zapatua. 16:30. Agorros.

LEHEN ERREG. IGOERA

#### Antzuola-Touring

Zapatua. 16:00. Estala.

### ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Mallabia-Aretx.UDA

Domeka. 17:00. Zaldibar.

#### Eskoriatza-Gasteiz

Zapatua. 17:50. Eskoria.

GIPUZKOAKO TXAP.

#### Mondrate-Vent. ISU

Zapatua. 18:00. Musako.

### SASKIBALOA

EBA

#### MU-Venta de Baños

Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO BIG. MAILA

#### Goierri-Natra Oñati

Gaur. 20:15. Urretxu.

GIPUZK. SENIOR MAILA

#### MU-DKS

Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

#### Soraluce BKE-Zarautz

Zapatua. 16:00. Bergara.

### ESKUBALOA

EUSKADIKO GIZONEZK.

#### Izarraitz M.-Muskiz

Zapatua. 18:00. Azkoaga.

#### Donibane-F. Mugarri

Zapatua. 18:00. Doniban.

EUSKADIKO EMAKUME.

#### Basauri-Aloña Mendi

Domeka. 12:15. Basauri.

GIPUZKOAKO SENIOR.

#### Saieko-Soraluce BKE

Domeka. 12:00. Donosti.

### ERRUGBIA

EUSKADIKO GIZONEZK.

#### ART-Hernani

Zapatua. 16:30. Mojategi.

### PILOTA

#### Aretxabaletan:

Gaur. 19:00. Hiru partidu.

#### Oñatin:

Gaur. 18:30. Bost partidu.

Zapatua. 16:15. Bi partidu.

#### Arrasaten:

Gaur. 20:00. Partidu bat.

#### Bergaran:

Gaur. 19:10. Hiru partidu.



Aurkezpen amaieran egindako talde erretratu, amateurekin batera. GOIENA

## Errepidean izango dituen ziklistak aurkeztu ditu Aloña Mendik

**ZIKLISMOA** Taldeak erakustearekin batera 2017an antolatuko dituzten lasterketen berri ere eman zuten

### X.U. ARRASATE

Aloña Mendik Etxe-Aundi jate-txearen kanpoaldean egindako ekitaldian aurkeztu zituen errepidean izango dituen 24 txirrindulariak. Aurkezpenean, Ruper Arkauzek itxura serioa hartu zien taldeetako kideei: "Deigarria iruditu zait ekitaldiaren seriotasuna, talde serioa dugu aurten".

Seriotasun hori errepidera eramane behar dute gero, eta lasterketa asko izango dituzte horretarako. Alebin mailan bost ziklista izango dituzte, infantil mailan zortzi, kadete mailan sei

eta gazte mailan bost. Garbi izanda Aloña Mendikoen helburu nagusia formazioa dela: "Gazteei bizikletan ibiltzen, lasterketetan ibiltzen eta kirol honekin gozatzen irakastea da".

Bestalde, Oñatin egingo dituzten lasterketen berri eman zuten. Bost izango dira guztira. Martxoaren 18an maila eskolarreko lasterketa izango da, ekainaren 11n Olakua Proba –kadeteak–, uztailaren 22an Arantzazuko Igoera –gazte mailakoak–, irailaren 2an San Migel proba eta irailaren 16an San Migel proba.

## Arizmendi igoera fasera, Mondra eta Bergara Kopara

Emakumezkoen erregional mailako azken jardunaldia Mondrak eta Arizmendik derbiarekin agurtu zuten. Arizmendikoek zergatik diren lider erakutsi zuten, baina arrasatearrek ez zuten partidua onaritu (2-3).

Hala, Arizmendik igoera fasea jokatu du, eta Bergarak eta Mondrak Kopa. Asteburuan atsedena izango dute



Derbi amaieran talde erretratuarekin agurtu zuten liga bi taldeek. R.AZKARATE



Maitane Arizabaleta, Maite Franko, Maite Larburu, Patxi Zubizarreta eta Migel Angel Elkoroberezar. JARDUN

# Maitasunari idazten, 25 urte

Begarako Jardun euskara elkarteak 1993an abiarazi zuen Amodiozko Gutun Lehiaketa. Harrezkero, 2.732 gutun jaso dituzte; horietatik 82, aurten. Otsailaren 14an, martitzena, Irizar jauregian, 19:00etan egingo dute sari-banaketa ekitaldia

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA "Ez dira urteak alferrik pasatu. Hasieran, postaz bidaltzen zizutzen; orain, ia guztiak e-maillez. Lehen edizioetan eskuz idatzitako ugari ziren; orain, bat edo beste. Urteotako gutunei maitasuna darie, ezinezkoa edo zaila gehienetan, baina esperantza eta ametsak ez dira falta. Sentimendu ugari, gehienez, bi foliotan. Begarakoaren arrastoari segituz beste herri batzuetan antzeko lehiaketak antolatzen hasi ziren; poztu egiten gaitu", dio Migel Angel Elkoroberezarrek, Jardun elkarteko kideak.

Gustura dira harrerarekin: 82 gutun eta 41 amodiozko esaldi jaso dituzte.

**Irabazlea, kostaldetik idatzita** Jon Gurrutxagak, Maite Franko, Maite Larburu eta Patxi Zubizarretak -iazko irabazlea-

osatu dute aurten epaimahaia. "Denetik irakurri dugu; lan benetan txukunak, baina, akaso, umore eta sentsualtasun gehiago eskertuko genuke", dio Zubizarretak, eta zera gaineratu du: "Asko harritu gaitu irabazlearen gaztetasunak; bikain idatzita dago, heldutasunez. Gainbeheran dagoen arrantzale herri batetik idatzitakoa da, egunero kotasun grisa, amodio herdoildu eta fosilizatu baten deskribapena; despedida moduko bat da. Oso atmosferikoa, poetikoa, intimoa eta sujerentziaz bete".

**IRABAZLEAREN GAZTETASUNA ETA EGINDAKO LANAREN HELDUTASUNA NABARMENDU DUTE**

Kostaldekkoa izanik espazio eta giro horretan kokatzeko gogo zuela kontatu du Eider Perezek. "Begi bistan nuen paisaiarekin jolastu nahi nuen. Oso idazkera bisuala dela uste dut; ez zen zaila izan buruan nuen eszena hori orrira eramatea. Gogoz eta eroso idatzi nuen. Funtsean, gutunaren hartzaileari "maite zaitut" esaten dio idazleak, eta, era berean, aitoren hori onartu, eta badoala jakinarazi".

**Bigarrena, bi zatitan banatuta** Zubizarretaren esanetan, biak paretsu nabarmentzea iruditu zitzaien egokiena. "Oso antzekoak dira: Iñigo Legorbururena Txirritaren garaiko bertsolarien girokoa da, gipuzkera ederrean idatzita; Ane Labakarena, berriz, amodio baten nostalgia bertso dotorean emana. Homosexualitateak zeharkatuak biak ere. Sari

## Gutun irabazlea: 'Bi arrain'

2002ko udaberrian.

Ehunka arrain gorri hilik agertu dira gaur itsas-azal urdinean. Mareak ohi baino abiadura handiagoan egin du behera eta, harrigarriki, hego haizea dario aspaldi itzali zen portuari. Kaiko lehorrean arrantza sare metatuak arrain-hezurrez josirik aurkitu dituzte, mendi garailtako itsas izakien fosilak dirudite. Irratiak ez du gertaeraren inguruko azalpenik eman, eta zeru ederra iragarri du ilusentirako.

Kontserba latente fabrikak atek itxi ditu. Kiebra jo du. Orain aluminiozko milaka lata koipetsu daude zabalik, tontor gris erraldoi bat dago fabrikako atean. Eta baxurako ontzien herdoila ur-azpian, ez da ikusten, baina ezkutuan dagoena ez ikusiagatik ere antzeman daiteke. (...)

(...) Gutun hau ez da distopia bat eta ez dut fikziorik esan. Ez da marinel zaharren inguruko poema bat edo botilaratutako maitasun kantu bat. Sabelean badut esmeralda koloreko ozeano bat eta bi arrain. Eta itsaskirria dabil aspalditik. Ikusi dut begi atzean duzun akuarioa eta nabari ditut zure azal azpian ezkatat lasaieran. Masailak, animalia-sena, edo korronea... Baina berriz murgildu gara ur abisaletan. Nork ukatu dizu maitatzea? Nik maite zaitut. (...) Maite zaitut, baina banoa itsasoz bestaldera. Banoa, baina maite zaitut. Maite zaitut eta banoa. Sabeleko ozeanoa baretu arte hustu eta bi arrain geratu zaizkit lehorrean. Gutun hau ez da distopia bat eta ez dut fikziorik esan. Banoa. Ba omen dira arrain gehiago itsasoan. (...)

(...) Aspaldian ikusi gabeko zeru ederrera izan da gaurko ilusentia.

EIDER PEREZ

banaketako irakurketan, askok elkarren osagarritzat joko ditu".

Begarako onenaren saria eskuratuko duen Elena Lakarena ere nabarmentzeko modukoa dela dio: "Bigarren irakurketan aberatsago; literatur keinuz bete iruditu zaigu, nahiz eta gaur egungo harreman birtualen giroan kokatuta egon. Gainera, lehiaketa honi erreferentzia egiten dio". Urteurrena modu berezian ospatu gura zuen Lakak: "Eskutitzak denbora horren erreferente izan behar zuela pentsatu nuen. Euskaran eta, orokorrean, gizartean gauzak zenbat aldatu diren pentsatzen jardun nuen. Idazten 25 urteko pertsona bat jarri dut; eta hura jaio zen urtean -lehiaketaren urte berean- Jardunen lehen irabazleari idazten dio".

**Gaztea eta esaldia**

Amama zenari idatzi dio Izar Odriozolak, gazteen sariaren irabazleak: "Haren zantzu ezberdinak ikertu ditut lore baten egituraren oinarrituz. Nire sentimenduak papera ekarrita, agur duin bat eman nahi nion".

Maria Lopezek, berriz, pottokekiko duten maitasunaz, aitarantzako idatzita zuen esaldia; moldatu, eta bidali egin zuen.

## Aurtengo lehiaketako irabazleak

**Gutunak**

- **Lehenengo saria** Eider Perez 21 urteko Pasaia-Trintxerpeko gazteak jasoko du *Bi arrain* lanarengatik.
- **Bigarren saria (erdia)** Iñigo Legorburu Hernanin bizi den errenteriarrek idatzi du *Beste laurogei... ustian* lana.
- **Bigarren saria (erdia)** Lasarte-Oriako Ane Labakak eskuratuko du *Gabon polita* lanarekin.
- **Begarako onena** Bergaran bizi den Elena Laka eibartarrari emango diote.
- **Gazte saria** Izar Odriozolak (Begara, 1999) eskuratuko du.

**Esaldia**

- **Laztan, xuxurla: gure lotura; maitale, adiskide: elkarrekin libre!** Maria Lopez (Ibarra, 1992).



# Ikasleak telebistako kazetarien rolean sartuta

Otsailaren 22an eskainiko dute 'Galdegazte' saioaren atal berria Goiena telebistan. Maiatzera bitartean, eguaztenetan, Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 18 urte bitarteko ikasleek Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarrizketatuko dituzte

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Hirugarren denboraldia estreinatuko du otsailaren 22an Goiena telebistako *Galdegazte* saioak. Eskualdeko udalek, ikastetxeek eta Goienak elkarrekin landu duten egitasmoa da.

Jokin Bereziartua Goienako kazetariak aurkeztuko du, baina Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 18 urte bitarteko ikasleek izango dute, bereziki, elkarrizketaren ardura.

## Ikastetxeetatik platora

30 minutu iraungo duen saio bakoitzean, ikasleek aukeratu duten pertsonaia ezagun bat gonbidatuko dute. Hori horrela, besteak beste, Txerra Bolinaga -RIP taldeko kidea-, Aitziber Garmendia aktorea eta Miren Amuriza bertsolaria izango dira aurtengo eskaintza.

Saioak grabatu aurretik, Bereziartuaren bi ikastaro jasotzen dituzte ikasleek: ikastetxeetan egiten dutena, telebistako elka-



Aurkezlea eta Arrasateko Institutuko ikasleak Txerra Bolinagarekin. MIREIA BIKUÑA

rrizketa bat prestatzeko oinarritzko gomendioen gainekoa; eta Goiena telebistako egoitzan egiten dutena. "Bigarren denboraldian heldu nion *Galdegazte*-ri, eta esperientzia ederra izan zen. Ikastaroak oso ondo joan ziren iaz, eta aurtengo ere ikasleek, oro har, interes handiz jarraitzen dituzte ematen dizkiedan oinarritzko gomendioak.

Produktzio lanak ez dira errazak izaten, guztion agendak bateratzea zaila izan ohi delako; hala ere, emaitza ikusita, merezi duen lana da. Gonbidatuek ere, oro har, gustura hartzen dute proposamena. Nerabeen zalantzak gustura erantzuten dituzte eta formatua atsegina zaie", dio Jokin Bereziartuak, *Galdegazte*-ko aurkezleak.

## "Lan asko dut irailera bitartean, baina ilusio handiz nago"

**GARTXOT UNSAIN** JOKIN ZAITEGI BEKAREN IRABAZLEA Abenduan argitaratuko du *Elkar* argitaletxeak liburua

**A. A. ARRASATE**

Ilusioz heldu dio donostiarrak Bob Dylanen kantuak itzultzeko aukera emango dion erronkari. **Kirola ere haren soinua bandarekin egiten omen duzu, orain.**

[Barre]. Halaxe da, bai. Giroz hasita nago, eta erosita daukat Dylanen kantuak ingelesez eta gazteleraz jasotzen dituen liburua ere. Hasi naiz lehenengo zirriborroak han idazten.

**Dylan-zalea zara? Horregatik aurkeztu zinen lehiaketara?**

Haren musikaren entzulea naiz, bai, baina ez naiz zale amorra-

tua. Itzuli beharreko kantu batzuk ezagutzen ditut; hala ere, aurrerantzean bihurtuko naiz adituago. Ez naiz itzultzailea; lagun batek eman zidan deialdiaren berri. Pizgarria izan zen niretako, badaukadalako nire musika taldeendako kantari anglosaxoiak hitzak euskarara ekartzeko joera. Gustuko ditut sormen lanak, eta pozik nago! **Ze punturaino dira parekideak euskarara eta ingelese?**

Euskarara hizkuntza melodikoa dela eta gauzak modu askotara adierazteko aukera ematen due-



Gartxot Unsain Letona. G. U.

la iruditzen zait. Asko maite ditut bi hizkuntzak; eroso nago. **Aholkularirik baduzu gertu?** Euskararekiko ditudan zalantzak pisu-kide batekin argitzen ditut; era berean, musikari lagunekin ere partekatzen asmoa dut, bai.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko otsaileko zozketa!



#### Liburu sorta

- Urpekariak (Fermin Etxegoien)  
- Lepoan hartu (John Andueza)  
- Azken txorakikeriak (Kike Amonarriz)  
Parte hartzeko sariaren izena: Liburu sorta



#### CD sorta

- Txapel punk (Punkaren semeak)  
- Governors (Su garaian)  
- Labrit (Zortzi)  
Parte hartzeko sariaren izena: CD sorta



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

**ARRIKRUTZ**  
ONATIKO BAKA



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremendenda.org](http://www.harremendenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

### PARTE HARTZEKO:

**E-postaz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua

**GURE AMETSA JATETXEARI ESKER**

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!

📞 943 25 05 05 📧 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

📍 KLUBA *Jatetxea*  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Aretxabaletako Udalari esker**

*M. A. Marin eta A. Boiraren bakarriketarako sarrerak ditugu.*  
Zaraia aretoan, Aretxabaletan. | Otsailaren 17an, 20:00etan

**Arrasateko Udalari esker**

*'Oskara' dantza ikuskizunerako sarrerak ditugu.*  
Amaia antzokian, Arrasaten. | Otsailaren 18an, 19:30ean.

**Spaloia Kafe Antzokiari esker**

*Etsiakeroak, Sugo eta Space Jam-erako sarrerak ditugu.*  
Spaloia Kafe Antzokian, Elgetan. | Otsailaren 17an, 22:00etan

### PARTE HARTZEKO:

**E-postaz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA "ikusizunaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



**Puntua** aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 osoa: 55 euro.  
Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



OROIGARRIA

**Marije  
Lezeta Ibabe**




2017ko otsailaren 6an hil zen, 61 urte zituela.

*Iluntasunean argi izpia aurkitzen lagundu diguzu.  
Orain zu izango zara gure bidea argizatuko duen izarra.*

Anai-arrebak eta bilobak.  
Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Ibon  
Viteri Zubia**



2017ko otsailaren 4an hil zen, 42 urte zituela.


*Sortu dozu gure artian txoko bat  
atsegina, goxua ta jatorra.  
Hutsune ein da oin, ze gogorra!  
Baina zuk emundakua izengo da  
gugan haziko dan altxorra.*

*Eskerrik asko, Ibon.*

Basabeko familiaia.  
Aretxabaletan, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Jose Antonio  
Cid Freitas**



2016ko otsailaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Antzuolan, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Marije  
Lezeta Ibabe**




2017ko otsailaren 6an hil zen, 61 urte zituela.

*Aitorren lagunak.*

Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Ibon  
Viteri Zubia**



2017ko otsailaren 4an hil zen, 42 urte zituela.


*Eskerrik asko elkarrekin  
bizi izan ditzugun  
momentu berezi eta  
ahaztezinengaitxik.*

*Gure bihotzetan  
egongo zara beti.*

Zure kuadrillia.  
Eskoriatzan, 2017ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

**Dolores  
Varga Perez**



2017ko otsailaren 2an hil zen, 82 urte zituela.

*Eskerrik asko egun hauetan babeseta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

*Gure ondotik joan arren, beti gure bihotzean egongo zara.*

Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Marije  
Lezeta Ibabe**




2017ko otsailaren 6an hil zen, 61 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barranean  
eramango zaitugu betiko.*

Belaxeko zure lankide eta lagunak.  
Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Ibon  
Viteri Zubia**



2017ko otsailaren 4an hil zen, 42 urte zituela.

*Bidelagun ezin hobian babesian  
maitasunez beteta fan zara.*

*Gure bihotzetan betirako, Viteri.*

Atxabaltako kuadrillia.  
Aretxabaletan, 2017ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

**Angel Garitano  
Astigarraga**



2017ko urtarrilaren 28an hil zen, 71 urte zituela.

*Eskerrik asko etxekoan izenean egun hauetan  
babeseta eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi*

Bergaran, 2017ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

**Marije  
Lezeta Ibabe**




2017ko otsailaren 6an hil zen, 61 urte zituela.

*Egun hauetan babeseta eta gertutasuna adierazi,  
eta gurekin egon zareten guztioi eskerririk asko  
bihotz-bihotzez, familiaren izenean.*

Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

**Ibon  
Viteri Zubia**



2017ko otsailaren 4an hil zen, 42 urte zituela.

*Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan izan zareten guztioi,  
zuen gertutasun eta babesak asko lagundu digu.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Eskoriatzan, 2017ko otsailaren 10ean.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire  
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean  
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-  
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Kanariarrak Bergaran**

Kanaria Handiko Las Palmas hiriburuko Felo Monzon Grau Bassas institutuko ikasleak Laboratorium Museoa eta herriko erdigune historikoa bisitatzen izan dira hilaren 4an. Batxilergoko zientzietako ikasleak dira.

**2. San Blas jaiak Buruñao**

San Blas jaiak ospatu dituzte Bergarako Buruñao auzoan, otsailaren 3aren bueltan. Moises Azpiazu dantza taldeko 60 umek eta gaztetxok elkartean egin behar izan zituzten dantzak, euriagatik.

**4. Marrazkia Tinduferraino**

Hilaren 25ean Donostiatik Tindufeko kanpamenduetara (Aljeria) bidaiatuko duen kamioi batek Kurtzebarriko Naroa Fernandez de Arroiabe ikasleak egindako marrazkia eramango du, grafitigile talde batek margotuta.

**3. 53 urte batera**

Begarako Pablo Rodriguezek eta Emili Sanchok bien urtebetetzea eta ezkondu zireneko 53. urteurrena ospatu dute. Zorionak bikote! Yune, Nayara, Vega, Unai, Aimar eta gainerako senideen partetik.

**5. Gernikako Arbolak 100 urte**

Mendeurrena bete zuen otsailaren 2an Oñatiko Gernikako Arbolak eta askok hartu zuten parte 3an egindako ospakizunean. 100 kandela piztu zituzten eta Jabier Bikuñak egindako oroigarria jarri zuten, besteak beste.



## #DIOTENEZ

**ETXERA**

Antzuolako neska bat **AEBetatik** Kanadara zihoan baina hegazkina hartu aurretik, **bueltan** bidali dute etxera, **bisa** kadukatuta, iraungita zuelako. Hori jakinarazi aurretik, baina, lau orduko galdera **zaparrada** jasan behar izan zuen.

**ANTZUOLAN**

Emakumeen Birako **etapa** bat Antzuolan hasi eta bukatuko da. Maiatzaren **19an** izango da.

**Puntako** txirindulariek zeharkatuko dituzte bailarako **errepideak** egun horretan. Antzuolan, gainera, **bizikletez**, **maillotez** eta **trofoez** gain, bestelako ekintzak ere egongo dira. **Festa** giroa izango da nagusi eta **musika**, adibidez, ez da faltako.

**KILIMANJARON**

**Duela** 20 urte, 66 urterekin, igo zuen Tanzaniako Kilimanjaro

mendia Jaxinto Lizarralde **oñatiarrak**. Donostiako espedizio talde batekin joan zen. Duela hiru bat aste ETBko **Gailurra** programan agertu zen oñatiarra, ekintza hori eta **Aizkorrira** zenbatetan joan den azalduz. Bada, Kilimanjarora berarekin batera igotako **gazte** batek hori ikusi, eta **zur eta lur** gelditu zen Lizarralde mendi **puntan** ikusita. 20 urte zituen orduan mutil **donostiar** horrek. Oñatiarra telebistan ikusi eta

harremanetan jarri zen harekin, telefonoz, hunkituta.

**HOLOKAUSTOA**

Holokaustoaren biktima izan zen Pedro Joxe **Axpe Sagasta** bergararrari **omenaldia** egiteko eskatu dio **Intxorta 1937** Kultura Elkarteak Bergarako alkateari, Elena Leteri. Omenaldia egiteko unerik egokiena **maiatza** izango dela esan diote eta prest agertu dira hori antolatzen laguntzeko.

Alkatea ados agertu da **bilerak** egiteko gai horren gainean berba egiteko.

**'OUTLET'-A**

Datorren hileko lehen asteburuan egingo dute neguko arropen **outlet-a Oñatin, martxoaren 3an** eta 4an, Txandak antolatuta. Inauteriak pasa eta gero egitea erabaki dute. Gainera, **litekeena** da Debagoieneko beste herrietan **ere** egun beretan egitea.

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Uxue Bernal Varela**  
Otsailaren 16an, 9 urte. Zorionak, maitia, familiako guztien partetik. Askok maite zaitugu.



**ARETXABALETA**  
**Izaro Maskariano**  
**De San Justo**  
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, printzesa. Primeran pasatu zure eguna. Askok maite zaitugun guztien partetik. Aitatz, amatxo eta Aner.



**OÑATI**  
**Beñat Larrea**  
**Negeruela**  
Otsailaren 12an, 5 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo handi bat, ebeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Inesa Ugalde**  
Otsailaren 12an, 21 urte. Zorionak zure anaia maitearen partetik.



**ARETXABALETA**  
**Manex Arriaran**  
**Oianguren**  
Otsailaren 12an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatuko bazkari eta txokolatada handi batekin! Zorionak familia danaren partetik!



**ARRASATE**  
**Izadi Orobengoa Zabala eta Ane Urbina**  
**Orobengoa**  
Otsailaren 12an, Anek 4 urte eta 14an, Izadik 5 urte. Zorionak, printzesak! Ondo-ondo pasatu zuen egunean. Muxu handi bana familia guztiaren eta, bereziki, Haizearen eta Intzaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Nerea Olmedo eta Malen Gartziaetxabe**  
Nereak otsailaren 12an, 35 urte eta Malenek otsailaren 14an, 5 urte. Ondo-ondo pasatu zuen eguna. Marrubizko mila muxu, familiako danen partetik.



**OÑATI**  
**Jorge eta Aner**  
Anerrek otsailaren 11n, 3 urteko eta aitatzok otsailaren 12an, 37 urte! Zorionak! Bixon urtiak ospatuko bazkari goxo batekin, patxo bat Aimirren, amaxoren eta familixa danaren partetik.



**BERGARA**  
**Ane Elkorobereibar**  
**Rivas**  
Otsailaren 11n, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu erraldoi bat, etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Markel Pinedo**  
**Santos**  
Otsailaren 11n, urtebete. Zorionak, Marke!! Muxu handi bat familia osoaren eta, bereziki, Alexen eta Jakesen partetik.




**BERGARA**  
**Beñat Garitano**  
**Garmendia**  
Otsailaren 9an, 6 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Izadi Bellido**  
Otsailaren 8an, 7 urte. Zorionak, Izadi! Ondo pasatu zure egunean, familia osoaren partetik!



**BERGARA**  
**Jon Aranzabal**  
**Elkorobereibar**  
Otsailaren 8an, Jonek bi urte. Zorionak! Patxo handi bat aitita eta amamen, osaba-izeben eta lehengusuen partetik.



**ARRASATE**  
**Eneko Oruna**  
**Rodriguez**  
Otsailaren 8an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Julen Aranburu**  
**Gomendio**  
Otsailaren 8an, 13 urte. Zorionak, Julen. Zure eguna topera disfrutatu eta lagun eta senitartekoekin ospatu. Muxu handi bat, etxekoan partetik.



**ARRASATE**  
**Nerea Losa Herrera**  
Otsailaren 7an, 13 urte. Zorionak, Nerea! Ondo pasatu zure egunean. Mila musu familia osoaren eta, bereziki, Alazneren eta Aitorren partetik. Aupa, txapelduna!



**ARRASATE**  
**Garazi Bragado**  
**Alvarez**  
Otsailaren 7an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure eguna, etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Naroa Legazpia**  
**Larrea**  
Otsailaren 7an, 9 urte. Zorionak, Naroa! Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu zure egunean!



**ARRASATE**  
**Xabi eta Oxel**  
Otsailaren 7an, Xabik 6 urte eta otsailaren 10ean, Oxelek 4 urte! Segi oin arte moruen gure bizitza betetzen! Patxo handi bat, etxekoan partetik!




**ARRASATE**  
**Izaro Urkitza**  
**Perez**  
Otsailaren 6an, 10 urte. Zorionak, printzesa, familia osoaren eta, batez ere, lehengusu Youness eta Nabilen partetik. Ondo pasatu zure eguna.



**BERGARA**  
**June Gonzalez**  
**Fernandez**  
Otsailaren 6an, 4 urte. Zorionak, maitia! 4 urte jada. Pa handia etxeko guztion partetik.



**ARETXABALETA**  
**Jokin Jausoro**  
**Zubizarreta**  
Otsailaren 6an, 3 urte. Zorionak, Jokin! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Agate Etxeberria**  
**Zabala**  
Otsailaren 6an, 2 urte. Zorionak, printzesita! Honezkeru bi urte! Muxu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Inarren partetik!




**ARETXABALETA**  
**Intza Eraña**  
**Larrea**  
Otsailaren 6an, 3 urte. Zorionak, Intza! 3 urte! Ze handi ein zaren! Patxo handi bat danon partetik!



**OÑATI**  
**Auritz Aranburu**  
**Sologaitoa**  
Otsailaren 1ean, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



**ARETXABALETA**  
**Ibai Urkia**  
**Berezibar**  
Otsailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, lbaixko! Ondo pasatu zure urtebetetzea familiako guztiekin.



**OÑATI**  
**Maren Irazabal**  
**Plazaola**  
Urtarrilaren 31n, 12 urte. Zorionak, Maren, etxeko danon eta, batez be, Garaziren eta Izarren partetik. Ondo pasatu merendolan. Txokolatetzko muxuak.



**OÑATI**  
**Jokin Elorza**  
**Soares**  
Urtarrilaren 28an, 2 urte. Zorionak etxeko guztien partetik! Muxu erraldoi bat, txikitxo!

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



JOKIN BEREZIARTUA

## ARRASATEKO OSOKO BILKURA OSORIK

'Osoko bilkurak' Egubakoitza, 22:00



IMANOL SORIANO

## ARRASATEKO ERRUGBI TALDEAREN PARTIDUA

'Harmailatik' Astelehena, 22:00



GOIENA TELEBISTAKO  
PROGRAMAZIO OSOA:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu  
aldamenero qr kodea.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 10

### OÑATI Odol ateratzea

Urteko bigarrena egingo dute. *Enpresagintzan, 17:00etan.*

### OÑATI VIII. bertso paper lehiaketako sari banaketa

Uxue Alberdi bertsolaria egongo da. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Zoru klausulak, hipoteka gastuak eta abusuzko klausulak' hitzaldia

Gipuzkoako Kaleratzeak Stop plataformako abokatu eta aholkulari juridiko Maite Ortiz, Jose Maria Erauskin eta Xabi Soto izango dira hizlariak. *Kulturaten, 18:30ean.*

### ARAMAIO 'Txoxtparta' jaia

Arrasateko Ttakun txalaparta taldearen eskutik. 20:00etan autobusa Arrasateko Garibain, 20:30ean kalejira Aramaion eta 21:30ean afaria Iturrietan. *Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

### ARAMAIO Bertso saioa

Peru Amorrortu, Xabier Antia eta Xabi Igoa oholtza gainean. Lexuri Gonzalez de Heredia izango da gai-jartzailea. *Marixekan, 20:30ean.*

### OÑATI Joseba B. Lenoir Gang eta Norman taldeak

Gitarrista nafarrak *Eguzkiari begietara* so diskoa aurkeztuko du. Bestalde, Norman eibartarrek rock doinuuz beteko dute oholtza. Sarrerak, bost euro. Langabeek eta ikasleek, bi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 11

### OÑATI Mendi martxa

Altsasuko gertakarietako gazteei elkartasuna adierazteko hainbat mendi tonforretan banderak jartzeko mendi irteera. *Foruen plazan, 09:30ean.*

### ARETXABALETA Ecstatic dance saioa

Oskar Estanga DJak gidatutako dantza saioa askea egingo dute.

Aurrez izena eman behar da: *jaikielkarta@yahoo.es* helbidean. *Ibarra kiroldegian, 10:00etan.*

### OÑATI Espeleoabentura

Arrikutzeko eszentrika ikustera bisita gidatua. Aurrez izena eman behar da 943-08 20 00 telefonoan. *Arrikutzen, 12:00etan.*

### ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Pizzak egitea, skate parkera joatea eta jolas erraldoiak egitea dituzte helburu. Parte-hartzaileen artean adostuko dute zer egin. *Musakolan, 10:30ean.*

### OÑATI Ludoteka ibiltaria

Pizza tailerra eta jolas erraldoiak, 3-10 urte artekoendako. *Olakua dorrean, 10:30ean.*

### OÑATI Aratusteetako entseguak

Aratuste herrikoiko entsegua. *Larrañan, 12:00etan.*

### ESKORIATZA 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik

Dokumentalaren helburua Atxorrotzek Nafarroako erresumaren baitan izan zuen garrantzia erakustea da. *Ibarraundin, 12:30ean.*

### OÑATI 'Bufoiaren jolasera hurbilduz' ikastaroa

Eneritz Artetxe aktorearekin eta 16 urtetik gorakoendako, Irazan antzerki gunearen eskutik. *Eltzian, 16:00etan.*

### ANTZUOLA Bizikleta festa

2 urtetik aurrerako ziklista txikiendako jaia, Lokatzakoekin *Eskolako patioan, 16:00etan.*

### ELGETA Grafiti tailerra

Plantilla bidez grafitiak lantzen dituen Oier Peñagarikanorekin. *Gaztelekuan, 16:30ean.*

### ARRASATE Aratusteetarako karrozak

Prestaketa lanekin hasiko dira. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

### ARETXABALETA Sukaldaritzat tailerra

Torradak egingo dituzte. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ESKORIATZA Karta-jokoak

Musa, tutea, txintxona... *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARETXABALETA Bacon Maiden taldea

Heavy eta rock doinuak Iron Maidenen taldearekin. *Haizea tabernan, 19:00etan.*

### ELGETA Bikustik taldea

Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatzen duten bikoteak kantu ezagunen bertsoak egingo ditu. Sarrera doan. *Spaloian, 19:30ean.*

### BERGARA 'Sweeney' antzezlan

Zestoako Antzerki Eskolako konpainiaren antzezlan, helduendako. Euskal antzerki topaketetan ikusleen saria irabazi zuen iaz. Sarrerak, zortzi euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

### OÑATI Gipuzkoako herriarte bertsolari txapelketa

Oñatiko Txinparta 1 taldea Oiarzungo Martzelina taldearen kontra. *Oinarri elkartearen, 20:30ean.*

### OÑATI Sharon Stoner eta Tutan Come On taldeak eta Anestesiaren bertsoak

Sharon Stonerren itzulerako emanaldia Ernairen eskutik. *Antixenan, 21:00etan.*

### ARAMAIO Pelikula

Rams pelikula emango dute. *Kultura etxean, 21:00etan.*

## DOMEKA 12

### OÑATI Mendi irteera

Donostia-Orio ibilbidea egingo dute, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak eta DBHko ikasleek. *Autobuse geltokian, 08:00etan.*

### ELGETA Mintzapraktika irteera

Euskal mitologiaren inguruko bisita gidatua egingo dute Aramaion. *Mendizaleen plazan, 09:15ean.*

### OÑATI Kilometroak txikia

11:00 hasierako ekitaldia; 11:15-12:30 ibilaldia; eta 12:30-14:00 haur jolasak Foruen plazan.



NAGORE LAGARRETA

### BERGARA Fly Shit eta Inoren Ero Ni

Txapa Irratiaren jaia. Fly Shit bergararrek 20. urtemugako birako emanaldia egingo dute. Hardcore doinuuz beteko dute oholtza. Inoren Ero Ni taldea lagun izango dute. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.*

*Lekaixoka* zapiak jantzita eramatea eskatu dute antolatzaileek. *Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

### ELGETA 'Berdinen arteko harremanak'

Kalexka elkarteke hezitzaileek gidatutako tailerraren azken saioa. *Gaztelekuan, 16:00etan.*

### ARRASATE Wii jolasak eta karaokea

Gaztehoendako ekintza. *Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

### ARETXABALETA Pelikula

Gaztehoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ESKORIATZA Laburmetraien emanaldia

Gaztehoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### BERGARA 'Magia lapurra' antzezlan

Txalo konpainiarena. Haurrendako. Dorletak mago laguntzaile izan gura du eta *casting* batera aurkeztuko da. Baina proba egingo diona ez da magoa, lapurra da. Sarrerak, lau euro. *Zabalotegin, 18:00etan.*

### OÑATI 'Kafkaren aulkia'

Bertsoak, musika doinuak eta olerkiak bateratzen dituen ikuskizuna, Andoni Egañarekin, Uxue Alberdirekin eta Pello Ramirezekin. *Gaztelekuan, 19:00etan.*

### ESKORIATZA Kintoen dantzak

Bigarrenez egingo dituzte dantzak. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

### ARETXABALETA Kintoen dantzak

Bigarrenez egingo dute dantza. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

### OÑATI 'Itxarongela' eta 'Eskutitza Ramoni' antzezlanak

Ikusi Makusi taldekoen eskutik. Sarrerekin batutako dirua Parrokiako Misio Taldeak Malin duen proiektura bideratuko da. *Santa Anan, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 13

### ARETXABALETA Odol ematea

Asteroko deialdia. *Durana kalean, 16:45ean.*

### OÑATI Artixa taldearen erakusketa

XX. mendeko lehen erdiko argazkiak ikusteko azken eguna. *Kultura etxean.*

## MARTITZENA 14

### OÑATI 'Elkartasuna'

Joxean Larrañaga parrokoak egingo du berba, Pake Lekuk gonbidatuta. *Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

### ARETXABALETA Makillaje ikastaroa

Aratusteetan zelan makillatu erakutsiko dute Gemes estetika

zentrokoek. Mozorroak eramatea gomendatu dute.  
*Udaletxe zaharrea, 18:00etan.*

**OÑATI 'Nola landu komunikazioa gure seme-alabengan' tailerra**  
Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetak gurusoendako.  
*Euskaldunberri gelan, 18:15ean.*

**ANTZUOLA Arnasguneen tailerra**  
Uemako teknikarien eskutik.  
*Olararen, 18:30ean.*

**ELGETA Korrika batzordea**  
Bigarren batzarra egingo dute. Irekia herritar guztiendako.  
*Udaletxean, 19:00etan.*

**BERGARA Amodiozko gutun eta esaldien lehiaketako sari banaketa**

82 gutun eta 41 esaldi aurkeztu dituzte lehiaketa. Onenak sarituko dituzte.  
*Irizar jauregian, 19:00etan.*

**OÑATI Aratusteetako entseguak**  
Aratuste herrikoiko entsegua.  
*Errekalden, 20:00etan.*

## EGUAZTENA 15

**ELGETA Helduendako ipuin kontaketa tailerra**  
Lehen saioa egingo dute gaur, Eneko Haritza ipuin kontalariaren gidaritzapean.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Odol ateratzea**  
Hamabostean behingo deialdia.  
*Anbulatorioan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Biodibertsitatea, kopuru aniztasuna baino zerbait gehiago'**  
EHUKO irakasle Arturo Elosegiren berbaldia, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien barruan.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**OÑATI Helduendako ipuin kontaketa saioa**  
*Sólo cuando me río* saioa egingo du Virginia Imazek, gazteleraz.  
*Liburutegian, 19:00etan.*

**DEBAGOIENA Lehen sorospenen ikastaroa**  
Debagoieneko Gurutze Gorriak emango du otsailaren 24tik martxoaren 24ra. Izena emateko: 678 40 15 86 telefonoa.  
*Izen-ematea, aipatutako telefonoan.*

**OÑATI 'Ur estimulazioa jaioberriendako' ikastaroa**  
Martxoaren 4an egingo dute kiroldegian eta 0-24 hilabete arteko umeen gurusoendako izango da. Lara Martin izango da irakaslea. Arlo teorikoa eta praktikoa landuko dituzte eta gutxienez sei guraso beharko dira ikastaroa egiteko. Izena emateko epea zabalik dago, otsailaren 21era arte.  
*Izen-ematea, Zubikoa kiroldegian.*

## EGUENA 16

**ELGETA Podologia erretiratuendako**  
Ezinbestekoa da alde zurretik txanda hartzea: 943-76 80 77.  
*Kultura etxean, 15:00etan.*

**OÑATI 'Okilak, basoko arotzak eta biodibertsitatea' erakusketa**  
Ingurumen Jardunaldien barruan, Natur Eskolaren eskutik. Gaur egingo dute irekiera ekitaldia.  
*Kultura etxean, martxoaren 5era arte.*

**BERGARA 'Oparitu zuhaitz bat'**  
Gai hauen berri emango da: argindar enpresa handien "gehiegikeriak", kooperatiba energetikoak, Fiare banku etikoaren jarduerak eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa.  
*Kultura etxean, 19:30ean.*

**OÑATI 'Yo, Daniel Blake'**  
Zineklub emanaldian Ken Loachen azken pelikula ikusteko aukera. Hayley Squires eta Natalie Ann Jamieson dira protagonistak.  
*Kultura etxean, 19:30ean.*

**ARRASATE Antzerkia Kooltur Ostegunetan**  
*Atte hil aurretik* delako antzezlan eskainiko du Beheko Lorraine taldeak. Musikaren ordez, antzerkia. Sarrerak, bost euro  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**Figuras ocultas**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.  
**Orm (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Lion**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 20:30.  
**Blinky Bill, el koala**  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 12:00, 17:00.

### ARETXABAETA

#### ARKUPE

**Figuras ocultas**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.  
**Orm**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

#### COLISEO

**50 sombras mas oscuras**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
**Lion**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Loving**  
Zapatua: 17:00, 19:45.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

### EL fin de ETA

Zapatua: 22:30.

#### ANTZOKIA

**50 sombras mas oscuras**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.  
**Blinky Bill, el koala**  
Domeka: 17:00.

#### GASTEIZ

#### BOULEVARD

**Ballerina**  
Egubakoitza: 16:45, 18:40.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 18:40.

**50 sombras mas oscuras**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Eguena: 17:30, 22:30.

**Figuras ocultas**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:30, 22:30.  
Eguena: 17:30.

**Lion**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 20:00, 20:30.

**Batman, la lego pelicula**  
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.  
Astelehena eta eguaztenera: 17:30, 20:00.  
Martitzena: 17:30.  
Eguena: 20:00.

**Manchester al frente**  
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:20.  
Astelehenetik eguaztenera: 17:15, 20:00.

**La, La, Land**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Tarde para la ira**  
Egubakoitzetik domekara: 16:30,

20:30.  
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 22:30.

**Multiple**  
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 22:30.  
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**Loving**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:30.  
**Hotel Europa**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 20:00.

**Toni Erdman**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:00.

**Vaiana**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**jCanta1**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Teresa y Tim**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

#### BOULEVARD

**50 sombras mas oscuras**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:00, 21:00, 22:00, 22:30, 23:30.  
Eguena: 17:30.  
Domeka eta eguaztenera: 16:00.

**Batman, la lego pelicula**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:00, 20:00.  
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

**Batman, la lego pelicula 3D**  
Domeka eta eguaztenera: 16:00.

**Rings**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:10, 20:20, 22:30.  
Domeka eta eguaztenera: 16:00.

**Multiple**  
Egubakoitzetik domekara: 19:05, 21:30.  
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

**Manchester frente al mar**  
Egubakoitza eta domeka: 19:00, 21:40.  
Zapatua eta astelehenetik eguaztenera: 21:40.

**Figuras ocultas**  
Egubakoitza eta domeka: 20:05.  
Astelehenetik eguaztenera: 22:25.  
Zapatua eta astelehenetik eguaztenera: 19:00.

**Resident Evil**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:20, 20:30, 22:40.

**La, La, Land**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:35, 22:10.

**Lion**  
Egubakoitza eta domeka: 22:10.  
Zapatua: 22:35.  
Astelehenetik eguaztenera: 20:05.

**Ballerina**  
Zapatua: 15:50, 18:10, 20:10.  
Egubakoitza, zapatua eta eguaztenera: 16:50.

**jCanta!**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:30.

**Passengers**  
Egubakoitzetik domekara: 22:35.  
Astelehenetik eguaztenera: 21:30.

**Tarde para la ira**  
Egubakoitzetik domekara: 20:40.  
Astelehenetik eguaztenera: 19:30.

**XXX: reactivated**  
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:00.

**¿Tenia que ser el?**  
Astelehenetik eguaztenera: 17:15.

## KRITIKA

**Loving** ★★★★★

**Zuz.:** Jeff Nichols. **Herr.:** AEB (2016). **Aktoreak:** Ruth Negga, Joel Edgerton, Michael Shannon.

## Maitasunaren indarra

### ANTONIO ZABALA

Ameriketako Estatu Batuetako Virginia estatuan kokatuta dago. Joan den mendeko 50eko hamarkada bukaeran. Hiriburutik aldentuta, basoan bizi den pertsona talde bat —gehienak beltzarenak dira, eta zuriak gutxiengoak— elkarrekin ederki konpontzen ikusten da. Badago semea edo alaba espero duen bikotea: gizona zuria da eta emakumea beltza. Washington estatura joango dira ezkontzera, debekatuta dagoelako Virginian arraza desberdinetako pertsonak elkarrekin ezkontzea. Legeak eta instituzioak zapaltzaileak dira eta, ezkontzaren ostean, elkarrekin nahi duten lurraldean eta baldintzetan bizi ahal izateko bikoteak izango duen borroka jarraituko ahal izango dugu. Bikotearen ibilbidearen lekuko bagara ere, istorioan,



PLAYCAM

egoera politikoa eta epaitegietan izandako borroka bigarren planoan geratzen da. Jeff Nicholsen filmak, batez ere, maitasun istorioa da. Zuzendariak, aldarrikapen nabarmenak egin barik eta ahotsa igo barik, sentiberatasuna eta neurria erabiltzen ditu bikotearen maitasuna azaldu eta

ikusleak euren intimitatean sartzeko. Bikoteak ia ez du berba egin beharrik. Euren arteko keinuak eta begiradak benetan adierazgarriak dira. Eta horrela antzematen dugu zer-nolako astakeria den elkar maitatzeko eskubidea duen bikote bati zoriontsu izateko oztopoak jartzea.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

**Joseba Mirena**

*Eguna* lehen euskal egunkaria omentzen ari dira hainbat erakunde egunotan. Gerra garaian kaleratu zuten, orain 80 urte, eta, sei hilaren ostean, Bilbo erortzear zegoela, itxi behar izan zuten. Lau gazte ziren erredaktoreak. Zein, horien artean? Jose Maria Arizmendiarieta.

*Eguna*-ko lanagatik heriotza-zigorra jasotzeko zorian egon ostean, gerra amaizuta, bere asmo sozioekonomikoak aurrera eramane zituen euskara alde batera utziz. Arizmendiarietak hogeiturtan ia ez zuten euskara erabili.

Edonola ere, etapa hartatik kanpo, euskaraz egindako jarduerak apartekoa da garai haietarako. Adibidez, seminarioan euskara hutsezko aldizkari bat sortu zuen ikaskide batzuekin, itzulpengintzan aritu zen edota arlo ezberdinetako berbekin hiztegi bat egin zuen bere idazkietarako. Gerra egoeran, *Eguna*-z gain, *Gudari* egunkarian ere idatzi zuen. 1968. urte ingurutik aurrera *TU Lankide*-ren zerbaki guztietan euskarazko artikulua idatzi zituen, enpresen izenak asmatu zituen...

Azken batean, euskara arloan ere, bere bizitzako zati handi batean erabili zuenean, lan nabarmena egin zuen Arizmendi-Arieta Joseba Mirenak.

BUKATZEKO

# 150 urte haren berri izan barik, eta Oñatin agertu

Gipuzkoan desagertutzat jotzen zen asun mintzakara aurkitu dute Oñatiko Aitzulo kobazuloan. Botanikari alemaniar batek orain dela 150 urte jaso zuen horren berri Gipuzkoako kostaldean, baina ordutik berriro ez dela ikusi diote adituek

**Miren Arregi OÑATI**

Aurkikuntza polita egin dute joan den urtarrilaren 29an Oñatiko Aitzulo koban. Izan ere, Gipuzkoan desagertutzat jotzen zen asun mintzakara –*Urtica Membranacea*– aurkitu dute bertan. "Asun mediterranearra da; batez ere, kostaldean agertzen da. Bizkaian ezagutzen da, eta barrualdean azaltzen denean, normalean, haitzuloen sarreran izaten da", azaldu du Iker Novoak, Oñatiko Naturzaleak elkartearen kideak.

Hain justu ere, Novoa bera haitzuloan zen aurkikuntza egin zenean eta sorpresa polita hartu zutela adierazi du: "Ez genuen asuna aurkitzerik espero, sorpresa izan zen. Txikia da eta haitzuloaren sarrerako izkina-txo baten aurkitu da. Pixkanaka handitzen joango da".

**Betidanik han**

Ea desagertuta zegoen espezie bat den galdetuta, Novoak dio azken 150 urteetan ez dela horrelakoen konstantziarik Gipuzkoan, baina, seguru asko, betidanik bertan egon den asuna izango dela. "Ez da orain sortu; seguru asko, han egon da betidanik. Gertatzen da orain

Asun mintzakara (*Urtica membranacea*). JAVIER ELORZA


Urtarrilaren 29an aurkikuntza egin zuen taldea. ARABAKO NATUR INSTITUTUA

aurkitu egin dela". Esan bezala, botanikari alemaniar batek orain dela 150 urte jaso zuen horren berri Gipuzkoako kostaldean, baina ordutik berriro ez dela ikusi diote adituek.

**Herbario digitala bultzatzeko**

Xabier de Arizaga herbario digitala bultzatzeko elkartu ziren aurkikuntzaren egunean Arabako Natur Institutuko, Sestaoko Natur Zientzien elkarteak eta Oñatiko Naturzaleak taldeetako kideak Oñatin. "Inguru hori oso aberatsa da botanikoki, eta bertara joan ginen espezieak ikustera", azaldu du Novoak. Jaturaben hasi zuten ibilbidea eta handik Urrexolara egin ostean Aitzulora joan ziren. "Oñatiko taldekook Aitzulo bisitatu ostean beheranzko bidea hartu genuen. Une baten atzera begiratu genuen, ea Arabako eta Sestaoko taldekoak ingurune ederrari begira liluratuta ote zeuden ikusteko, eta hara non, ingurura begira barik, lurrrera begira aurkitu genituen, kobako sarreran, izkinatxo baten. Asun mintzakarari begira zeuden", azaldu du Novoak.

Asunaren ezaugarrien gainean galdetuta, Oñatiko Naturzaleak elkartearen kideak azaldu du "urteroko landarea" dela; alegia, "urte baten, ziklo osoa egiten duen landarea". Une honetan irten berri dagoela adierazi du eta laster loratu egingo dela. Babes neurri berezirik ez da hartuko behin aurkikuntza egin ondoren. Izan ere, "ganadua eta dabilen tokiak toki egokiak dira asun mintzakararendako", eta, ezer egin gabe ere, Aitzulo sarreran, ondo mantenduko da.

**Aste honetako Puntua aldizkarian**

## Bazen behin Union Cerrajera

Arrasateren eraldaketa, eraikin batean islatuta

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak. | Puntua aldizkaria astero etxean. | Deskontuak Goienako iragarki sailkatu eta eskeletan. | Zozketetan eta promozioetan parte hartzeko aukera.

Urteko kuota: **55€**. | 943 25 05 05**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!